ASTELEHENEKO
# Goienkaria
2008ko irailaren 14a > Egubakoitza > VII. urtea > 245. zenbakia > Euro 1
www.goiena.net

"Seminarioa Udalak eta Arrizuriaga UNEDek hartzea da gure asmoa"

**Maria Jesus Aranburu**
Diputatua > 08



**G2a** Fanfarre sinfonikoaren eztanda > 29

**BAKEGINTZA**
**Javier Sadaba filosofoak ireki zuen Baketik-en ikasturtea** > 05

**STADLER**
**Kontzentrazioa egingo dute bihar Oñatin, ELA eta ESK-k deituta** > 06

**ARRASATE**
**Mugikortasun Astea egingo dute hilaren 16tik 22ra bitartean** > 14

**EUSKARA** > JOKIN ZAITEGI

## Kultura eragilea hil zela 30 urte

Arrasateko idazle, itzultzaile eta eragilea gogoan hartu dugu > 03

**HISTORIA** > ARGITALPENA

## Leintz ibarreko historia zabal jaso dute liburu baten

Rosa Aierbe historialariak *El valle de Leniz en su primera historia* liburua idatzi du. Zapatu eguerdian aurkeztu zuten Aretxabaletako Arkupen eta dagoeneko eskuragarri dago. Aierbek Aretxabaleta eta Eskoriatza banatu eta Gipuzkoarekin bat egitea aztertu ditu besteak beste aipatutako liburuan. > 11



PARTE-HARTZEA Zapatuko herri bazkariaren ostean egin zituzten jokoek jende asko erakarri zuten. IRATI AGIRREAZALDEGI

**ANTZUOLA** > FUTBOLA

## Berdez jantzi dute zelaia

Belar artifiziala jarri dute azkenean Antzuolako Eztala futbol zelaian > 24

**JAIAK** > SAN MARTIN

# Barikutik eguenera Bergara jaietan bueltaka

**JENDETSUA** Asteburuko ekitaldiak jendetsuak izan dira, eta jendea gustura ibili da jai giroan

**GEHIAGO** Eguenera bitartean, danborrada, kontzertua, errekortadorak eta beste >12-13

**FUTBOLA** > 3. MAILA

## Lehen garaipena etxera

Aretxabaletak Retuertori 1-2 irabazi zion atzo, domeka > 22

**AURKIBIDEA**

**Debagoiena** > 04-05
**Ekonomia** > 06
**Auzoak** > 07
**Elkarrizketa** > 08
**Iritzia** > 10
**Herriak** > 11-20
**Kirola** > 21-28
**Kultura** > 29-33
**Sailkatuak** > 34-35
**Denbora-pasak** > 36
**Telebista-Irratia** > 37
**Berri-zakua** > 38-39

**ZIKLISMOA** > FITXAKETA

## Elkartzera behartutako bizitzak

Lance Armstrongen Radio Shack taldean arituko da Markel Irizar datozen bi denboraldietan. Halabeharrez bat egingo duten bi txirrindulariren istorioa dirudi. Minbizia gainditu behar izan dute biek, esaterako. > 21



Markel Irizarrek aurten utziko du Euskaltel-Euskadi. GOIENKARIA



**Umeentzako liburuak. Nahi?**
Zoaz 7. orrialdera

# Berriz ere.

**GOIENKARIA da hedabide irakurriena Debagoienean, berriz ere.**
CIESen 2009ko lehen neurketak horixe dio.
Zuk eta beste 36.000 lagunek baino gehiagok irakurtzen dute astero.
Gipuzkoa osoan, 44.000 lagunek.
Eskerrik asko irakurleoi eta publizitatea jartzen duzuen guztioi.




Goienkaria

**LITERATURA** > JOKIN ZAITEGI HIL ZELA 30 URTE

# 'Euskalgintzaren Kixote'- a heriotzaren urtemugan gogoan

**ERLIJIOSOA** Idazle, itzultzaile eta kultura eragilea erlijiosoa izan zela askotan ahaztu arren, beharbada horregatik izan zen gainontzeko guztia

**EZEZAGUN** Garai batean erotzat hartu zuten Arrasaten; gaur egun bere izenarekin kale bat izan ez balitz izena ere ezezaguna izango litzateke

**'EUZKO GOGOA'** Arrasateko idazleak bere irabazi guztiak euskalgintzan inbertitu zituen; garaiko euskal idazle ezagunek idazten zuten 'Euzko Gogoa' aldizkarian

**IRATI AGIRREAZALDEGI** > ARRASATE

Arrasaten Erdiko kaleko etxe baten atarian honako idatzia dago: "Etxe honetan bizi izan zen Jokin Zaitegi (1906-1979) Arrasateko seme kuttun, euskaltzale eta euskal kulturaren bidegilea". Aurten bete dira 30 urte Jokin Zaitegi hil zenetik. Baina nor izan zen Jokin Zaitegi? Idazle, itzultzaile, kultura eragile, erlijioso… arrasatearra. "Askotan ahazten dugu erlijiosoa izan zela, eta erlijiosoa izan zelako izan zen gainontzeko guztia. Auskalo zer gertatuko litzatekeen Jesusen Konpainiara jo ordez Union Cerrajerara jo izan balu", esan digu Josemari Velez de Mendizabalek Jokin Zaitegiren ondoan haren biografia gertatu zuen idazleak.

Asko daki Velez de Mendizabalek Zaitegiren gainean, baina, gaur egun, Arrasaten nor zen galdetuz gero inor gutxik jakingo du. Velez de Mendizabalen esanetan, "Gizarteak berehala galtzen du erreferentea. Jendeak badaki kale bat badela bere izenarekin, baina zergatik ipinitako izena den ez".



**IDAZLEA** Oñatin, bere liburu batean Velez de Mendizabalendako eskaintza idazten. JOSEMARI VELEZ DE MENDIZABAL

**EROTZAT HARTUA**

Orain ezezagun, eta, garai hartan, Velez de Mendizabalek esan digu erotzat zeukatela: "Berak esaten zidan kalean jendeak ihes egiten ziola. Literaturara dedikatzen zen abade bitxia zen. Mezak modu mantsoan ematen zituen, baina era berean jesuitekin hezia izanik harroa zen. Bere izaera horren gainetik, ordea, literaturaren altxorra eta hezkuntzaren enpresari ona zeuden. Bere liburuak saltzen jakin ez zuen arren".

Hezkuntza enpresari bai, Venezuelan kolegio bat erosi eta garatu baitzuen. Arrasatetik irten eta toki asko pasatu zituen, bere bide luzean.

Umetan herritik joan eta pixkanaka sartu zen erlijio munduan Loiolan sentitu zen euskaltzale. Velez de Mendizabalen esanetan, "Zaitegik aipatzen zuen Aita Ibero izan zela bere argia euskalgintzarako bidean". Hala ere, Jesusen Konpainiaren hertsitasunaren eta Espainiako momentu politikoaren eraginez, asko sufritu zuen euskal nortasuna azaltzeko.

**AMERIKETARA**

Orduan hasi zen bere lehen gauzak idazten eta itzultzen. *Kizkiña* izan zen lehendabiziko artikulua, natur zientzietako ikasgai baten itzulpena.

Loiolatik Burgosera joan zen eta handik Venezuelara. Gerora, urte asko eman zituen Euskal Herritik kanpo.

Handik Belgikara, Marneffera, eman zuen pausoa. Hura izan zen Europari begira literatura berri bat prestatzen ziharduten idazleentzat (Lizardi, Lauaxeta, Loramendi, Orixe...) topaleku. Ordurako *Aitzol*-ek antolatuak zituen Euskal Olerti Egunak eta Zarautzen Zaitegik irabazi zuen *Tori nire edontzia* olerkiarekin.

Gerra etorri zenean Ameriketara bidali zuten. Ordukoak dira *Goldaketan* izenpean Mexikon argitaratutako liburuxkak. Gero, Venezuelan jesuiten kolegio batean zegoela, klasikoen eta hizkuntza klasikoen irakaskuntzan jardun zuen eta han jarraitu zuen itzulpenekin: Platon, Sofokles…

Jesuitekin haserretu eta harremana hautsi ondoren, Guatemalara joan zen unibertsitatean eta eskola batean eskolak ematera. Handik gutxira aukera sortu zitzaion euskaldun batzuen Landibar eskola eskuratzeko eta erosi eta garatu egin zuen.



**ERLIJIOSOA** Zaitegi abade lanetan Guatemalan. VELEZ DE MENDIZABALEK UTZIA

**ALDIZKARIA GUATEMALAN**

Orduan bururatu zitzaion beste urrats bat ematea: *Euzko Gogoa* aldizkaria argitaratzea. "Oraingo begiekin begiratuta, ero lana litzateke. Gutxienez bi bider zeharkatzen zuen ozeanoa Euskal Herria iritsi aurretik eta gainera kontrabandoan sartu behar izan zen. Zaitegik lizeotik ateratako diru guztia inbertitu zuen proiektuan eta hori gutxi balitz Guatemalara eraman zituen Orixe eta Andima Ibiñagabeitia idazleak. Han eduki zituen bere ordainpean *Euzko Gogoa*-rako idazten", esan digu Jose Mari Velez de Mendizabalek.

Proiektuak porrot egin eta Landibar lizeoa likidatuta Euskal Herrira itzuli zen. Arrasatetik *Euzko Gogoa*-rekin jarraitu nahi zuen, baina laguntzarik jaso ez eta Miarritzera joan zen. Han ere porrot egin eta Landibar lizeotik lortutako diru guztia euskalgintzan inbertitu zuen.

"Zaitegik ekarritako dirua pertsona batek orduan irabazten zuenarekin 30 urtean lor zitzakeen. Hori inbertitu zuen *Euzko Gogoa*-n eta ez da beste pertsona fisikorik egon euskararen alde horrelakorik egin duenik", dio Velez de Mendizabalek.

Berriz Guatemalara joan zen zin eginda ez zuela euskaraz gehiago idatziko. Baina idatzi zuen Arrasatera itzulita.

Arrasateko seme kuttun izendatu zuten 1976an, baina orduko gaixo zegoen, Velez de Mendizabalen esanetan "miserian bizi zen". Gero 1979an hil zen, oraindik idazle arrasatearrak bere biografia amaitu gabe zuela.

**ZAITEGI GOGOAN**

Zaitegi ameslaria zela esan digu Velez de Mendizabalek: "Guatemalatik Euskal Herrira begira aldizkari bat ateratzea bere poltsikotik ordainduz ameslari izatea da, eta nik horrela maite nuen".

30 urte pasa dira idazle arrasatearra hil zela eta gogora ekarri dugu. Velez de Mendizabalen esanetan, " Zaitegi izan zen gizon erraldoia bere garaian. Gaur egun beharbada ez zen inor izango. Hortaz mito bihurtu gabe gogoratzea eskertzekoa da."

'EUZKO GOGOA'

## Guatemalatik aldizkaria euskaraz

*Euzko Gogoa* izan zen Zaitegik Guatemalan sortutako aldizkaria. Gerra ondorenean Euskal Herriko etxe askotan gogo biziz jasotzen zutena ezkutuan, kontrabandoan, Guatemalatik lehenengo eta Miarritzetik gero.

Jokin Zaitegi berak esana da: "Aspertuta nengoen erdarazko aldizkariak irakurtzeaz". Hortaz, euskarazko aldizkaririk ezean berak sortzea erabaki zuen.

Zaitegik idazten zuen aldizkariaren zati bat eta gainontzekoa garai hartako euskal idazlerik onenek. Hala ere, ez zuen lortu Mitxelenak *Euzko Gogoa*-n idazterik. Zaitegi pentsaera irekiko gizona izanik euskalgintzako espektro zabala hartzen zuen aldizkariak.

*Euzko Gogoa* izan zen bere lorpenik handiena Velez de Mendizabalen iritziz: eta hil zenean "euskalgintzaren Kixote" moduan definitu zuen, *Euzko Gogoa* moduko proiektu bat aurrera ateratzeko ahalegin guztia egin zuelako beste inor gutxik ideia horren truke txakur txiki bat ere emango ez lukeen garai hartan.

Zaitegiren itzulpen, olerki eta prentsako kolaborazioen gainetik *Euzko Gogoa* ezagutuko dute adituek bai gutxienez.


Bergarako UNEDen matrikula epea urriaren 31n amaituko da. GOIENKARIA

**HEZKUNTZA** > 09/10 IKASTURTEKO ESKAINTZA AKADEMIKOA

# Hitzaldi informatiboa du eguenean UNEDek, plan berria azaltzeko

Europako hezkuntza espazio berrira egokitutako hamahiru titulazio eskainiko ditu aurten; guztira, 28 titulazio ditu

**MIRIAN BITERI**> BERGARA

Bergarako UNEDeko goi-hezkuntzako eskaintzaren ia erdia Europako goi-hezkuntzaren espazio berrira egokituko da aurten. Horrela, 28 titulazioetatik 13 plan berriaren irizpideak jarraituz egin ahal izango dira. Eta 10/11 ikasturtean, egokitzapen prozesu hori %100ean ezarriko du, falta diren beste 15 titulazioak txertatuz.

**ESKAINTZA AKADEMIKOA**

Urrutiko Unibertsitateak jakinarazi du eskaintza akademikoa eta ikasketa plan berriaren gaineko aspektuak ezagutzeko hitzaldi informatiboa antolatu duela eguenean, irailak 17, Donostiako Koldo Mitxelenan, 19:00etan. Hitzaldiaren ostean, interesatuek ikasketa eta sail desberdinetako arduradunekin biltzeko aukera izango dute, zalantzak argitzeko. Horrekin batera, azaldu dute matrikula egiteko epea urriaren 31n amaituko dela.

Aurten, esan bezala, 13 titulazio berri (orain gradu izena dutenak) emango ditu: Ingeniaritza Tekniko Industriala, Ingeniaritza Mekanikoa, Ingeniaritza Elektrikoa, Ekonomia, Zientzia Politikoa eta Administraziokoa, Soziologia, Gizarte Hezkuntza, Hizkuntza eta Literatura espainiarra, Ingeles Ikasketak, Filosofia, Geografia eta Historia, Psikologia eta Artearen Historia. Azken titulu hori lehen aldiz emango du.

Ikasketa horiek guztiak, Bolonia Planak markatzen duen moduan, lau urteko luzapena izango dute, aurreko urteetan hiru edo bostekoak ziren kontuan hartu gabe.

**MU** > JARDUNALDIAK

## Software eta datu baseetaz jardungo dute Donostian

Nazioarteko 250 aditu bilduko dira egubakoitzera arte Miramar jauregian

**M.B.** > ARRASATE

Mondragon Unibertsitateak (MU) softwarearen eta datu baseen gaineko nazioarteko jardunaldiak antolatu ditu. Donostiako udako ikastaroen barruan, joan den eguenetik egubakoitzera arte, Donostiako Miramar Jauregian Espainia, Portugal eta Hego Amerikako 250 ikertzaile eta irakasle inguru elkartu dira softwarearen eta datu baseen eremuko beren lorpenak, esperientziak eta iritziak trukatzeko eta eztabaidatzeko. Programazioan hitzaldiak, tutoretzak eta tailerrak egin dituzte.

**LEHEN ALDIA**

MUk lehen aldiz softwarearen eta datu baseen ingeniaritzaren eta programazio-lengoaien eremuko nazioarteko adituen topaketa horiek antolatu ditu, EHUrekin lankidetzan.



Irudian, eguenean egindako jardunaldien inaugurazioa. GOIENKARIA

> HEZKUNTZA

### Hamalau ikasle etorri dira Erasmus programaren bitartez Europako herrialdeetatik Huhezira

Hasi berri den ikasturte honetan atzerriko hainbat ikasle izango dira bailarako fakultateetan ikasketak egiten. Aurten hamalau ikasle –iaz baino bederatzi gehiago– etorri dira Eskoriatzako Huhezira, Erasmus programaren bitartez. Hirugarren aldia da Huhezik Erasmus programan parte hartzen duena.

Eskoriatzara etorri diren ikasleetatik hamarrek irakasle ikasketak egingo dituzte, eta beste lauek ikus-entzunezko komunikazioa. Ikasleak Danimarkatik, Herbeheretatik, Finlandiatik, Suediatik eta Belgikatik etorri dira.

Gabonak arte egongo dira ikasleok Huhezin. Praktikak bailarako eskoletan eta EITBren Bilboko egoitzan egingo dituzte.



Javier Sadaba > Filosofoa

# "Estatuak onartu behar du euskaldunen nahia, eta indarkeria guztia desagertu"

IKER BARANDIARAN > OÑATI

**Javier Sadaba filosofo ezaguna Baketik-en ikasturte hasierako ekitaldian izan da asteburuan. Esperientzia eta izaera kritiko handiko gizona da Sadaba.**



Javier Sadaba Baketik-en (Arantzazu) izan zen zapatu goizean. IKER BARANDIARAN

**Baketik-en gaude. Zein da euskal gatazka konpontzeko oztopo handiena? Eta zer egin dezakegu herritarrok?**

Urrunetik dator eta adar asko ditu, baina busti beharra dago. Espainiako Estatuak onartu behar du euskaldunek izan gura dutena; eta indarkeria mota guztiak desagertu behar dira.

Herritarrok ezinbestekoak gara. Konstzienteak izan behar dugu, ezin dugu beste alde batera begiratu. Herritarron zeregina da argudiatu, protesta egin eta alderdiei exijitzea programa politikoetan konponbidea lantzeko. Horrez gain, giza elkarteak kalera irten behar dira.

**Zer iritzi daukazu alderdien legez kanporatzearen aurrean?**

Guztiz ezmorala da. Teoria majikoa ei da: norbaitek beste batekin kontaktua izan eta haren berdina bilakatzen da. Horren bitartez, adierazpen askatasuna eta ideologia konkretu batzuk *kriminalizatzen* dabiltza indarkeriarekin zerikusirik izan ez arren.

**Botorik ez emateko gonbidapena egiten duzu...**

Bai, botoa emateko eskubidea eta ez ematekoa, biak aldarrikatzen ditut. Nire ustez demokrazia erabat perbertituta dago eta alderdiak karguak eskuratzeko enpresak bihurtu dira. Horren aurrean abstentzio masibo eta eraginkorra egitea proposatzen dut; bakoitzak jakingo du zertan, baina kalera irten eta protestatan esku hartu behar da. Alderdiek gure alde lan egin beharrean, gu gaude euren zerbitzura!!

**"Alderdien Legea ezmorala da, adierazpen askatasun eta ideologia batzuen kontrakoa"**

**"Abstentzio eraginkor eta masiboa proposatzen dut, kalera irten eta protesta egin"**

**Zer da Teologiak eman dizun garrantzitsuena?**

Adimenari diziplina ezartzea eta klasikoak irakurtzea: San Agustin, Santo Tomas... Horrez gain, ohartarazi nau gizakiak lan handia egin duela misterioak argitu nahian.

**Zure biografiak dio Athletic-eko jokalari izan nahi zenuela. Diasporaren erruz?**

(Barre). Zale amorratua naiz, eta jokalari euskaldunak izatea garrantzitsua da niretzat. Ez nuen txarto jokatzen, baina ez nuen jarraitu. Kromo ugari ditut eta Athletic sinboloa da niretzat, are gehiago distantziatik.

etxeko leihotik



Ubane Madera > 'arrasate@goiena.com'

## Errespetu falta edo hezkuntza arazoa

Pentsatzen dut gure gizartean gailentzen dabilela geroago eta gehiago errespetu falta nabarmena. Errespetu falta edo hezkuntza arazoa; edo biak.

Adibide batzuk: azken asteotan behin baino gehiagotan tokatu zait ikustea Arrasate eta Bergara arteko errepidean auto gidaria zigarro mutxikina leihotik botatzen. Hori zikinkeria hutsa izateaz gainera, jakinda suteekin zela ibiltzen garen eta ikusita mendian dagoen gorritasuna, buru arintasuna ere bada.

Bergaran ere izan dute asteon disgustua: ezezagun batzuk gauez igerilekura sartu, bainatu, baina horrekin konforme ez, eta apurketak egin eta kaka ere egin dute, uretan.

Azken adibidea: zenbat asteburutan izan dira Arrasaten apurketak, batez ere, aparkatuta dauden automobiletan…!!!

**"Kezkagarria da biolentzia erabiltzeko dagoen erraztasuna"**

Gu gazte ginenean (orain dela 25-30 bat urte), egiten genituen ganberrokeriak, jakina, baina kezkagarria iruditzen zait gaur egun biolentzia erabiltzeko dagoen erraztasuna; indarkeria barik parrandarik ez dagoela ematen du. Eta gure atzetik datozen gazteendako helduok ere ez gabiltza ba oso eredugarri izaten: lantokietan "eskakeo" ahaleginak, baja faltsuak, ardurak hartzeko nekeak, seme-alaben irakasleekin haserreak, besteen akatsak nabarmentzeko joera norberarenak tapatzeko… Ez da ahaztu behar ereiten denetik datozela fruituak.

**> Musikariekin**
***Goiena.net* atariko blogariek kontatu dutenez geroago eta nabariagoa da, baita ere, errespetu falta musika kontzertuetan; errespetu falta kontzertua eskaintzen dabilen musikari horrekiko, alegia**

**> Errespetua**
**Gizakien arteko eta inguratzen gaituenarekiko errespetua da gizarte garatu baten ezaugarri nabarmenetako bat; aurrerapen handia izan arren, errespetu eza baldin bada, gizarte hori hankamotz geratzen da**

## Agurtu dira uda gure artean pasa duten Tindoufeko ume eta gaztetxoak

Eguenean irten ziren Euskal Herritik uda gure artean pasa duten Saharako ume eta gaztetxoak. Bi hilabeteko egonaldia egin dute, Nubi eta Iesbaa elkartearen bitartez.

Hala, Oporrak Bakean proiektuari esker Lasturren ibili dira eta mota askotako irteerak eta ekintzak egin dituzte.

Nubik eta Iesbaak eskerrak eman gura dizkiete umeak etxean hartu dituzten familiei, proiektua aurrera ateratzeko laguntza eskaini dieten guztiei eta boluntarioki modu baten edo bestean lagundu duten guztiei.




GOIENKARIA

> AISIALDIA

## Aisialdiko begirale izateko ikastaroa deitu dute

Aurreko ikasturte batzuetan moduan, Txatxilipurdi eta Jardun elkarteek aisialdiko begirale izateko ikastaroa antolatu dute. 200 orduko ikastaroa izango da eta titulua Eusko Jaurlaritzak homologatuta izango da.

Urrian hasteko asmoa dute eta maiztasun eta iraupena ikasleen artean adostuko dute. Prezioa zehazteko dago, baina Udalek diruz lagundutakoa izango dela jakinarazi dute. Horrez gain, praktikak egiteko aukera izango da bi elkarteotan. Interesatuek Jardun edo Txatxilipurdira jo dezakete.

**ENPRESA** > STADLER

# Stadlerreko langileek kontzentrazioa egingo dute herriko plazan

ELA eta ESK sindikatuek biharko, martitzena, deitu dute kontzentrazioa, 18:30ean

Zuzendaritzak uztailean egindako 19 kaleratze proposamenari errefusa erakutsiko dute

**LARRAITZ ZEBERIO / LEIRE KORTABARRIA** > OÑATI

Metaleko Stadler enpresako zuzendaritzak 19 langile jakin kaleratzeko ERE proposamena salatzeko kale-bilkura egingo dute langileek bihar, martitzena, Oñatiko plazan, 18:30ean, ELA eta ESK sindikatuekin.

Uztailean, zuzendaritzak batzarra deitu zuen, eta kontratu-bukatze ERE proposamen bat egin zuen, esanaz 19 langile kaleratu ezean, enpresa itxi egin beharko lukeela. Langile horien zerrenda aurkeztu zuen, izen-abizenekin. Batzar hori "lotsagarritzat" jo dute ELA eta ESK sindikatuek, eta "xantaia" eta "enpresa ixteko mehatxua" salatu dute. Sindikatuek akordio bat egin daitekeela uste dute eta negoziazio mahaia exijitu dute. Negoziatzeko epea egubakoitzean bukatuko da eta, enpresa-batzordea eta zuzendaritza ados jartzen ez badira, Lan Ordezkaritzaren esku geratuko da erabakia. "Orain arte, Lan Ordezkaritzak ez du onartu kontratuak bukatzeko ERErik, hortaz, konfiantza dugu", azaldu du ELAko Iñigo Gomez ordezkariak.

Stadler enpresarekin harremanetan jarrita, esan digute ez dutela, momentuz, adierazpenik egingo.

**LANGILEEN PROPOSAMENAK**

Sindikatuek hainbat kritika egiten dizkiote Stadlerren zuzendaritzaren jarrerari eta proposamenari: "Alde batetik, enpresaren industria plan baten agertzen da datozen bi urteotan sei langile kontratatzeko asmoa, orain 19 bota gura dituztenean. Horrez gain, badaude 50 urtetik gorako langileak, aurre-erretiratu daitezkeenak, eta badaude borondatez enpresa utziko luketen langileak. Baina horren aukerarik ez du eman enpresak. "Uste dugu begikoak ez dituen langile jakin batzuk kaleratu gura dituztela", azaltzen dute sindikatuek.

**"AKORDIOA POSIBLE DA"**

Ordezkari sindikalek gogorarazten dute uztailean deitutako batzarrean langile askok ez zutela parte hartu. Gero, sindikatuek beste batzar bat egin zuten langileekin, azaltzeko "sekula" ez zutela sinatuko horrelako akordiorik. ELA eta ESK sindikatuek uste dute akordio bat posible dela, eta zuzendaritzari eskatzen diote "xantaia politika lehenetsi eta negoziazioa alboratu beharrean, benetako negoziazio mahai bat martxan ipintzea".




Biharko, martitzena, kale bilkura deitu dute ESK eta ELAk. JOSETXO ARANZABAL

**FUSIOA** > NATRA

# Natra %10,2 jausi da burtsan, fusioa bertan behera geratuta

Suitzako Barry Callebaut enpresaren txokolate dibisioarekin bategitea lantzen ziharduen, baina negoziazioak apurtu egin dituzte

**L.K.** > OÑATI

Oñatin lantegia duen Natra enpresak eta Suitzako Barry Callebaut enpresak ez dute bat egingo, negoziazioak oraingo astean apurtuta. Espainiako Burtsak segituan erantzun du, eta Natra %10,24 jausi zen eguneko sesioan. Akzioko 3,2 euroko balorearekin bukatu zuen sesioa.

**IRAILEAN EGITEKOA**

Natrak jakinarazi dio Espainiako Merkatu Baloreen Batzordeari "negoziazioak joan diren moduan, bi aldeek ez dute ados jartzea lortu hasieran ezarritako baldintzetan operazioa burutzeko". Hasierako baldintzak ziren, besteak beste, Barry Callebautek Natraren %49 eta %30 artean hartuko zuela, haren Stollwerck txokolate dibisioaren truke. Azken operazio hori irail hasieran egitekoa zen.

Akordio horren harira, Natrak jakinarazi zuen bere taldea negozio-lerroka berregituratuko zuela, bi subholding-etan, alegia: batek kakaoarekin eta txokolatearekin lotutako jarduera hartuko zuen, eta besteak, bestelako jarduerak (Natraceutical eta Torre Oria). Bestetik, Barry Callebaut enpresak aurreikusita zuen bere kontsumo-dibisioa (elkarteek, markek eta bestelako aktiboek osatuta) Natra Chocolates enpresari eskualdatzea.




Natrak Oñatin duen lantegia. JOSETXO ARANZABAL

> '+EUSKADI 09' PLANA

### Debagoieneko udalak zain daude kontratu berriak egiteko 63 milioiko fondoa zelan zehazten den

Debagoieneko udal ordezkariak informazio gehiagoren zain daude, lehendakariak joan den astean iragarritako *+Euskadi 09* plana zelan garatuko den eta udalei zelan eragingo dien. Lopezek jakinarazitako neurri deigarrienen artean daude udalek langileak kontrata ditzaten 63 milioi euroko fondoa izango dela. Udalek langabeak kontratatu ahal izango dituzte, eta langabe horiek ezin izango dute langabezia-saririk eduki; hau da, INEMek ematen duen subsidioa edo Eusko Jaurlaritzak ematen duen berme-errenta izan beharko da euren diru-sarrera bakarra. EAEn, 55.000 lagunek betetzen dute baldintza hori.

Kontratuak sei hilekoak izango dira, eta "eginbehar berriak" egiteko izango dira, Jaurlaritzaren esanetan. Kontratuak 1.200 euro garbi ingurukoak izango dira, eta langile bakoitzaren kostu erreala 1.500 euro ingurukoa izango da.

> INGURUMENA

### Ingurumenarekiko konpromisoa berresten dute Fagor Etxetresnek Sostengarritasun Memorian

Fagor Etxetresna Elektrikoek 2009ko Sostengarritasun Memoria aurkeztu zuten joan den astelehenean, Madrilen, eta horrek "giza-erantzukizunean eta ingurumenarekiko inplikazioan dugun konpromisoa modu garbian erakusten du", arduradunen esanetan. Memorian esaten den moduan, CEDEDekin (Europako Etxetresna Egileen Elkartea) lankidetzan jarraitzen du Taldeak, eta, horren barruan, "ingurumenarekiko errespetuan, korporazio bakoitzaren erantzukizun sozialean eta lan-baldintzen optimizazioan" oinarritutako kodea aplikatzen du bere jardunean.

Giza-erantzukizunaren alorrean, Fagorrek ohitura onak eta enpresa-erantzukizuna bultzatu dituela azpimarratu zuten ordezkariek. Memorian, Fagor Taldearen ingurumen-politikaren oinarriak jakinarazten dira: ingurumenaren gaineko legea betetzea, hobekuntzaren gaineko ingurumen-helburuak ezartzea, produktuen bizitza-zikloak ingurumenean duen eragina aztertzea edo teknologia berriak bultzatzea, beste batzuen artean.

auzorik auzo

**GANTZAGA** > Inunziaga askotan izan da Gantzagako auzo-alkate. Iraganean lanak egiteko Aldundira askotan jotzen zutela gogoratzen du; eta orain, berriz, Udalarekin hartu-eman handia izaten dutela.



Inunziaga Gantzagako elizaren aurrean, Canovas Del Castillorendako izan behar zuen bainuontzi gainean. IKER BARANDIARAN

**Migel Inunziaga** > Gantzagako auzo-alkatea

# "Auzo-lokala edukitzea oso garrantzitsua da bertakoon harremanak estutzeko"

IKER BARANDIARAN > ARAMAIO

**Gantzaga auzo lasaia da, baina aldi berean ekimentsua. Ekitaldiz jositako jaiak izaten dituzte, eta lanak egiteko orduan ere ondo antolatzen dira euren artean.**

**Auzo-alkate zaren lehenengo aldia da hau? Zelan egiten duzue aukeraketa?**

Ez, ez da lehenengo aldia, dezentetan jardun dut zeregin horretan. Gogoan daukat aspaldi Aldundira buelta asko ematen genituela gauzak eskatzeko. Orain Udalarekin izaten dugu hartu-emana. Auzo-alkateak aukeratzeko modua aldatu egin da; azken aldian auzotar guztion izenak zerrenda baten gaude eta hortik aukeratzen ditugu.

**Zenbat jende bizi da auzoan gaur egun?**

30 bat biziko gara hemen egunero. Hala ere, asteburuetan jende askoz gehiago egoten da. Bataz besteko adina altu samarra da, eta badira 90 urtetik gorako hainbat auzotar ere.

**Zeintzuk dira Gantzagaren premia nagusienak?**

Asko. Garrantzitsuenetako bat Gantzaga eta Ibarra arteko bidean brea ematea. Horrez gain, aspaldian plastiko, paper eta bestelakoetarako edukiontziak ipini guran gabiltza eta horretarako lurzorua auzotarrok utzi dugu, baina Aldundiak ez digu laguntzarik eman gura. Sinestezina da! Bestela, Internet konexiorik ez daukagu, eta azken aldian Udala dabil elektrizitatearen eta bestelako kable guztiak lurpean sartzen, zintzilik egon ez daitezen.

**Auzo-lokala lortzeak lan handia eman zizuen...**

Bai. Aspaldi abadetxearen azpikaldean txoko bat jarri genuen, baina txiki gelditu zitzaigun. Gerora, hutsik zegoen abadetxeko teilatua ia jaustear zegoela aurrekontua egin eta Aldundian aurkeztu genuen; azkenean konpontzea onartu zuten. Hala, Gotzaindegira jo genuen eta borroka franko egin ostean, 25 urtetarako utzi ziguten. Hala, beste solairu bat hartu eta auzolokala handitu genuen. Halako txokoarekin auzotarron harremanak estutu egiten dira.

**Noiz ospatzen dituzue jaiak?**

San Millan jaiak ospatzen ditugu; aurten azaroaren 13 eta 15 bitarteko asteburuan. Kantuafaria, mus eta tute txapelketak, erromeria, txistu kontzertua, txirrindulari lasterketa eta beste izaten dira. Azken horretan, askotan, Lejarreta anaiek esku hartzen zuten.

**Zer dauka auzoak ikusteko?**

Hemendik Urkiolara joateko bidea dago. Horrez gain, Orixol tontorrera igo ezkero, Aramaioko baserri guztiak ikus daitezke. Oso inguru politak dauzkagu.

Ezin da ahaztu ere, Gantzagan Muru nekazal turismoko etxea ere badagoela. Kataluniar, madrildar eta beste leku askotako jendea etortzen da egonaldiak egitera. Auzoko eliza XVII. mendekoa da eta nahiko egoera onean dago; eta 500 urte inguru daukan baserri bat ere bada auzoan: Liñatza, ikusteko egokiak.

BITXIKERIAK

## "Canovas del Castillorendako ei zen bainuontzia da"

Gantzagako elizak ez dauka kanpandorperik; kanpaia, ordea, badauka. Dirudienez, eliza egin zutenean ez zituzten lan guztiak bukatu.

Bestalde, orain dela 30 bat urte-edo auzotarrek erdi lurperatuta zegoen bainuontzi zahar bat hartu, hondeatzaile batekin eliza aurrera ekarri eta konpondu ostean han jarri zuten.

Auzotarrek diotenez, bainuontzi hori Canovas Del Castillorendako enkargua zen, baina Espainiako orduko ministroa Angiolillok Gesalibarren erail eta gero, bertan behera gelditu zen eskaera. Hala, auzoan daukate.

ASTELEHENEKO
Goienkaria
astelehenean, aste bukaera osoa

Harpidedunen txokoa
Iraileko zozketa

Sariak irabazteko
HARPIDETU!
Tel.: 943 08 10 50
harpidetza@goiena.com
Kuota: 20 euro

ZIRA
Bidali AG ZIRA
[Harpidedunaren izena]
5533 zkra.



AQUARIUM-ERAKO BI SARRERA
Bidali AG AQUARIUM
[Harpidedunaren izena]
5533 zkra.



UMEENTZAKO LIBURUAK
PAMIELA
Bidali AG LIBURUAK
[Harpidedunaren izena]
5533 zkra.



PENDRIVE BAT
Goiena
Bidali AG PENDRIVE
[Harpidedunaren izena]
5533 zkra.



SARI NAGUSIA
PARTE-HARTZAILE GUZTIEN ARTEAN ZOZKETATUKO DA
ORDENAGAILU ERAMANGARRIA



AHTEC NETBOOK LUG N011
Sistema eragilea: Ubuntu Linux.
Prozesadorea: 1.6Ghz Intel® Atom N270 Diamondville (533Mhz/512Kb).
Memoria: 1024MB DDR2 533Mhz (1x1GB).
Disko gogorra: 120GB 5400RPM SATA.
Pantaila: 10" pantaila TFT WSVGA LED.
Bermea: Hiru hilabeteko Standard3 Netbook bermea.
Backlight, Webcam, Wireless, Bluetooth.

Laskar Informatikaren eskutik
- Partikular eta enpresei laguntza teknikoa
- Harreman eta ikerketa pertsonalizatua.
- Informatika eta teknologia berrien produktuak.

Etorri eta ikusi gure eskaintza eta promozio guztiak!

SMSaren kostua: 0,60 euro + BEZa dei bakoitzeko.
Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Zerbitzuaren fitxategi automatizatu baten sartuko direla. Datu-bilketa honen helburu bakarra da indarrean dagoen sustapena gestionatzea. Eskubidea izango duzu datuotan sartzeko, haiek zuzentzeko edo ezeztatzeko, helbide honetara idatzita: harpidetza@goiena.com

Astean Kultura eta Euskara diputatu Maria Jesus Aranbururengana jo dugu. Aldundiak ibarrean dauzkan ekimenetaz berba egin digu Aranburuk: Bergarako seminarioa, Arantzazu, Intxortako lubakiak eta beste. Berbagai izan ditu, baita ere, euskararen alorrean dituzten lehentasunak; eta baita Donostiatik herrietara ekimenak ekartzeko ahalegina ere.

**Maria Jesus Aranburu** > Kultura eta Euskara diputatua

# "Gure asmoa da Arrizuriagarekin eta seminarioarekin permuta egitea"

**E.AZKARATE/I.B.** > BERGARA

**Maria Jesus Aranburu 1991n hasi zen Aldundiko Kultura eta Euskara sailean lanean. Gaur egun bizi dugun krisiak gastuak neurtzera behartzen dituela onartu du, baina irudimenez ekimenak bultzatu behar direla esan digu.**



Aldundiko Kultura eta Euskara diputatu Maria Jesus Aranburuk esperientzia handia dauka alor horietan. ARGAZKI PRESS

**Zein da Gipuzkoako ondarean dagoen harribitxia? Eta Debagoienekoa?**

Zaila da bat hautatzea. Gipuzkoako urrezko aroa XVI. mendea da, itsasogintzan garapen izugarria, eliza gehienak ordukoak dira, jauregiak, herrien diseinuak... Baita ere, ezin dugu ahaztu aztarnategietan gaur egun aurkitzen gabiltzana. Eta bailara honetan bertan aurkitutakoak Axtrokiko ontziak, Eskoriatza inguruko eliz-atariak... Asko dira.

**Debagoienean zertara bideratu dituzue ondareari dagozkion dirulaguntza gehienak?**

2009rako bukatuta genituen hainbat gai: Oñatiko San Migel eliza, Unibertsitateko erretaula, Bergarako Oxirondo eliza... Eta 2009ko aurrekontuekin, bi egitasmo nagusi ditugu: Intxortako lubakiak berreskuratzea Elgetan; hor historiari dagokion irakurketa oso interesgarria egin dezakegu. Eta Arantzazuko atarian dauden Oteizaren eskulturak oraintxe berritzen hasi gara.

**Bergarako seminarioan indusketak egiten zabiltzate...**

Bai. Jakinekoa da eraikin horren garrantzia eta historian zenbat okupazio izan dituen. Azterketa honetan garrantzitsuena da jakitea jesuitak egon ziren garaian zer gertakizun izan ziren, eta Madariaga jaunaren bizitzarekin lotzea. Horrez gain, horma handi bat aurkitu dugu, eta gure susmoa da Bergarako harresiena dela. Horrek lagunduko luke jakiten zer eremu hartzen zuen Bergarak.

**Errege Seminarioaz gain, eliza konpontzeko asmoa ere badaukazue, ezta?**

Aurreko legealdian Udalak proiektua eginda zeukan, baina udal berriak birplanteamendua egin zuen eta hitzarmena geldi dago. Indusketak egin ostean, erabakiko dugu zer egin.

**Bergarako Udalaren nahia da permuta egitea: UNEDi Arrizuriaga jauregia ematea unibertsitate berria egiteko, eta Erredge Seminarioa Udalaren esku uztea han liburutegia eta museoa jartzeko. Hori beteko da?**

Bai, patronatuaren esku gelditurko da seminarioa, eta horretarako Madrili erosi zaio milioi bat euroren truke. Baina prozesuak jarraitu behar du: lanak hasi bitartean UNEDek zer premia dituen aztertu, Arrizuriagako inbertsioak zehaztu... 2010era arte ez gara lanean hasiko.

**Ibarrean Gatz museoa eta Ibarraundi daude. Nahikoak dira?**

Une honetan Gipuzkoan 60 erakusketa gune ditugu, eta azkeneko sei urteotan bisitariak ikaragarri jaitsi dira. Aztertu behar dugu formatua egokia den edo ez. Debagoienak badu edukia, baina zelan erakutsi asmatu behar da.

**Hortaz, Bergarako seminarioan museoa egiteko asmoa alde batera utziko da?**

Ez dakigu, aztertzear dago. Gipuzkoan ibilbide bat zehaztu daiteke gure historia azalduz; eta, adibidez, Bergara oso gune egokia izan daiteke ilustrazioa eta XVIII. mendea irudikatzeko.

**Gaur egun Donostian batzen da kultura ekipamendu gehiena. Bazabiltzate hori zabaltzen?**

Gipuzkoarrok harro egoten gara lurralde orekatua dela esaten dugunean; eta hala da. Gipuzkoako hiru ekitaldietatik Donostian bakarra egiten da, baina Gipuzkoako herrietan kultura bizitza indartsua da, eta Aldundia saiatzen da hala izan dadin. Uste dut herri gehienetan liburutegiak, aretoak, antzokiak... daudela. Arazo handiena da horietara jendea erakartzea. Bestalde, ekitaldiak deslokalizatzeko joera zabaltzen dabil; horra hor, Musika Hamabostaldia eta Donostiako Zinemaldia.

**Aldundia Arantzazu Gaur Fundazioko kide da. Zer eskaini dezake fundazioak?**

Arantzazu euskal herritar guztiondako sinboloa da, eta hiru ezaugarri nagusi ditu: espiritualtasuna, artearen eta eskulturaren erakustokia izatea eta natura. Hiru eremu horiek bereak ditu, eta horiek garatzen eta lantzen saiatu behar gara.

**Euskararekin lotuta, zeintzuk dira helburu nagusiak?**

Bat, gure lan hizkuntza izatea; horretarako, horren aldeko jarrera izan behar da. Adibidez, ordenagailua piztu eta euskaraz egon dadila. Bi, udalekin eta beste erakunde batzuekin guk eskaintza euskaraz egitea. Hirugarrena, udaletako teknikariekin daukagun sarea.

Baina gizarteari begira gure nahi nagusia da euskara iristea edukiaren bitartez eremu askotara: ikus-entzunezkoak egitera, euskarazko herri zein eskualde aldizkariak eta tokiko telebistak bultzatzera, gizartean normaltasunez euskaraz jardutera... Gainera, Aldundiko Euskara Sailaren dirulaguntzen %27 euskarazko hedabideei dagokie.

AURKIKUNTZA

**"Bergarako seminarioan horma handi bat aurkitu dugu; harresia izango den susmoa daukagu"**

ONDAREA

**"Ibarrean harribitxi asko daude: Axtrokiko ontziak, Eskoriatza inguruko eliz-atariak..."**

DESLOKALIZAZIOA

**"Ekitaldiak Donostiatik herrietara deslokalizatzeko joera zabaltzen dabil"**


ZABALIK
75 dendatik eta 200 produktutik gora.
merkatua.net Debagoieneko denda handiena. Etxetik bertatik eskura.
MERKATUA.net
Debagoieneko denda

**kale inkesta**

# Zer iruditzen zaizu San Mames berria egiteko Eusko Jaurlaritzak dirua jartzea?



**Julian Elexpuru**
Langilea
Bergara



**Mariano Agirre**
Langilea
Bergara



**Maria Luisa Sarabia**
Erretiratua
Bergara



**Natalia Murillo**
Ikaslea
Bergara

Gaizki iruditzen zait San Mames berriko lanak Jaurlaritzaren aurrekontuetan sartzea. Kluba bera konpondu behar da daukan diruarekin, eta dirua eskatu behar badu Bizkaiko erakundeei eskatu diezaiela.

Horren kontra nago erabat. Futbolak zenbat diru mugitzen duen jakin eta gainera guk ipini behar dugu dirua? Badira diru faltan daudenak eta zergatik ez diete horiei ematen futbolari eman beharrean?

Txarto iruditzen zait. Realzalea naiz baina zelaia Realarena izanik ere ez nuke ondo ikusiko. Klubak Udalaren edo Diputazioaren laguntzaz ordain dezala. kasu honetan Bizkaikoaren dirulaguntzarekin.

Sekulako aurpegia dute eta oso gaizki iruditzen zait. Besteok ere baditugu gauzak ordaintzeko eta dirurik ez digute ematen. Dirua ipintzekotan bizkaitarrek eta Bizkaiko erakundeek ipini beharko lukete, ez guk.

**irakurlearen txokoa**

# 943 25 05 05

goienkaria@goiena.com

BERGARA
**> Autobusen ordutegia dela-eta**

Bergarako autobus geltokitik Donostiarako autobusa ordua baino lehen atera zela-eta kexu da herritar bat: "Bergarako geltokiko ordutegiari begiratu arren, Donostiarako autobusa bere ordua baino lehen atera zen eta ezin izan nuen hartu". Pesa konpainian esan digute ibilbideko lehen herritik ordutegian zehaztutako orduan ateratzen direla autobusak, baina gainontzeko herrietako orduak gutxi gorabeherakoak direla".

ARRASATE
**> Birzikleta Azoka, ideia ona**

Irakurle batek deitu digu esanez, txirrindularitzarekin lotutako bigarren eskuko materialaren azoka egitea oso ondo iruditu zaiola: "Elkartrukerako modu egokia izateaz gain, kontsumo iraunkorra ere bultzatzen du. Gainera, bizikletazaleondako aukera polita izan daiteke materiala eskuratzeko".

ARRASATE
**> Abuztuan denda gehienak itxita**

Abuztuan herriko denda gehienak itxita egon direlako haserrea azaldu du arrasatear batek. "Ulertzekoa da merkatariek oporrak behar izatea eta herrian jende gutxi geratzen garenez dendak ixtea. Baina geratzen garenok erosketak egin beharko ditugu ba?". Horren harira, Oñatiko Udalak dendariei laguntzak emateko ekimena beste herrietara zabaltzea proposatu du.

**usteak uste**

**Jon Berezibar**

# Plastikozko poltsei agur?

Plastikozko poltsez ahaztea gura dute supermerkatuek, ekologia eta sustengarritasunaren mesedetan. Ondo, hasiera baten. Gainera erruberadun orgatxoak xarma gehiago du plastikozko poltsa gardenak baino. Polita. Supermerkatuetako arduradunek diote xemeiko gutxi aurreztuko dituztela, ez dutela diruarengatik egin, baina bitxia da hori azaldu eta barazki-fardelak plastikoz josita ikustea edota fruta pisatzeko plastikozko poltsetan egin behar izatea. Xemeikoak kontsumitzaileok xahutu beharko ditugu orain zabor-poltsetan. Plastikozkoak horiek. Kultura aldaketa dela diote azken finean. Paisaia ere aldatuko da gainera. Orain nola babestuko dituzte *permanente* egin berriak Garagartzara pasioan doazen amamek euriak bide erdian harrapatzen dituenean. Aldaketa bai, baina alternatiba gutxi.

**zorroztailea**



**Markos Balentziaga**

# Zirkua

"PSOEko Antolakuntza Idazkaritzako arduradun Leire Pajinen ama den Maite Iraolak alderdia utzi beharko du alabak berau PSOEtik kanporatu aurretik. Horren arrazoia? Benidormko PPko alkate Manuel Perez Fellonen kontrako zentsura mozioan alde bozkatu izana."

El Diario Vasco > 2009-09-11




Gauza serixuak dira alderdi politikuak. Alderdi politikuak aztertzen doskue errealidadia eta esaten zer komeni jakun pentsatzia eta erabakitzia bizi-biharrak egunian-egunian ostikopian ipintzen doskun traba eta kosketan..

Alderdixen oinarrixak pulpittotik esandako egixen antza izaten dabe askotan: bakia, bardinttasuna, alkartasuna eta holako, aho beteko berbak izaten dira eta.

Politt-politta da alderdixen alde teoriko hori, edozein bihotz koittau pikumelaututa lagatzeko modukua.

Baiña ez da interes makalagokua oñarri horretxen aplikaziño praktikuak sortzen dabena. Aplikaziño horren ondorio zuzenak dira alderdi-apurketak, esaterako: ANV, 1930an, edota EA, 1986xan, PNVtik; Aralar HBtik; H1 EAtik; Alternatiba EBtik eta abar eta abar.

Oñarri berberak balio dabe alderdi batek ulerberatasuna deitzen dotsanari bestiak agintekerixa hutsa irizteko; batak irtenbide aproposa ikusten daben lekuan, bestiak aldrebeskerixia baño ez dala esateko. Adibiderik? Krisi dontsu hau dala-eta PSOEren eta PPren arteko demanda akabera baria. Txakurra eta katua? Bai, zera! Rodriguez eta Rajoy!

Baña joko horretan xelebrekeixiaren gaña harrapau dabena egubakoitzeko hedabidietan zetorrena da: PSOE moduko alderdi serixo batian,(González, Barrionuevo, Rafael Vera... lehen, Patxi López, Rodolfo Ares... gaur) ama-alabak alkarri pikuka jardun dabe; Benidorm-en pasau da pasau be.

**"Politt-politta da alderdixen alde teorikue, baina makala praktikie"**

**"Oñarri berberak balio dau gauza bat ondo edo txarto dauela esateko"**

Benidorm-en PP-tik, ondrautasunaren alderdittik, ihesi zetorren zinegotzi baten botuari esker PSOEk agintia eskuratzeko aukeria izan dau; herriko zinegotzixen artian Maite Iraola andria dago, eta Madrillen partiduko aginte gorenian Iraolaren alaba dan Leire Pajin. Pajinek ez dau ontzat emon Iraolaren (eta beste kontzejalen) erabagixa eta Benidorm-eko PSOEko zinegotzi danak –bota ez dagixien– alderdixa lagatzia erabagi dabe.

Ikusteko dago hemendik aurrerakua.

ASTELEHENEKO
**Goienkaria**

**Argitaratzailea** Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba Elkartea • Nafarroa etorbidea 2 • 20500 ARRASATE
**Lehendakaria** Estepan Plazaola **Zuzendari nagusia** Inazio Arregi

**Zuzendaria** Eneko Azkarate **Erredaktore burua** Iker Barandiaran **Erredakzioa** Irati Agirreazaldegi, Jon Berezibar, Julen Iriondo **Oinarrizko diseinua** Goio Arana **Diseinu arduraduna** Iñaki Iturbe **Maketazioa** Kepa Martelo, Imanol Soriano **Publizitate arduraduna** Mireia Larrañaga **Harpidetza eta banaketa** Marta Leturia **Administrazio arduraduna** Agurtzane Gaintzarain

**EGOITZA NAGUSIA**
**BERGARA** 20570 Barrenkalea 33 • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 12
Posta-e: goienkaria@goiena.com

**ORDEZKARITZAK**
**ARRASATE** 20500 Otalora Lizentziaduna 31 • 132 posta-kutxa • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 00
Posta-e: arrasate@goiena.com
**ARETXABALETA** 20550 Durana 11 • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54
Posta-e: aretxabaleta@goiena.com

**Publizitatea** Aretxabaleta 20550 E05 Basabe Poligonoa • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 09
Posta-e: publi@goiena.com

**Harpidetza** Aretxabaleta 20550 E05 Basabe Poligonoa • Tel.: 943 08 10 50 • Posta-e: harpidetza@goiena.com

**Lege Gordailua:** SS-0088/04 • **ISSN:** 1697 3542 • **Tirada:** 5.000 ale • **Difusioa:** 4.383 ale

Goiena Komunikazio Zerbitzuak

ASTELEHENEKO GOIENKARIAk ez du bere gain hartzen IRITZIA orrialdean edo kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

Gipuzkoako Foru Aldundiak diruz lagundutako aldizkaria

Gipuzkoako Foru Aldundia

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria

# Herriak

**Arrasate** > 14 **Bergara** > 16 **Oñati**> 18 **Aretxabaleta** > 19 **Eskoriatza** > 19
**Antzuola** > 20 **Aramaio** > 20 **Elgeta** > 20 **Leintz Gatzaga** ><Ninguno>> 20



**> ARRASATE**
Badator beste modu batera mugitzen irakatsiko digun Mugikortasun Astea, hilaren 16tik hasita. **> 14**



**> OÑATI**
Aparkalekuko plazak alokairuan emango ditu Udalak eta ordenantzak aldatu ditu. **> 18**



**> LEINTZ GATZAGA**
Santa Kolunbako ermitaren teilatua berriztatu dute, Estatuko dirulaguntzarekin. **> 20**

**LEINTZ BAILARA** > IBARREKO HISTORIA AZTERTZEN DUEN LIBURUA

# Eskoriatzarrak eta aretxabaletarrak 'batuko' dituen lana aurkeztu dute

**IKERKETA** 'El valle de Leniz en su primera historia (1260-1750)' liburua aurkeztu du Rosa Aierbek

**ZATITZEA** Bi herriak banatu eta Gipuzkoarekin bategitea aztertu ditu historialariak

**AGIRI BERRIAK** Simancasetik eta Valladolidetik ekarritako ordenantzetan arakatu du Aierbek

**JON BEREZIBAR** > ARETXABALETA

"Leintzatarrak atzera begira jarriko dituen" liburua aurkeztu zuten zapatuan Aretxabaletan. Hala esan zuen Inaxio Garro alkateak Arkupen eginiko ekitaldian eta Rosa Aierbe historialariak (Hernani, 1954) idatzitako liburu mardula lagungarri izango dela "gaur egungo egoera" ezin daitekeelako ulertu "mendeetan atzera egin barik". Aretxabaleta, Eskoriatza eta elizateen historia jaso dituen liburua, *El valle de Leniz en su primera historia (1260-1750)*, dagoeneko salgai ipini dute, 25 euroko prezioan eta Kutxa eta Aldundiaren laguntzarekin.

#### HISTORIA ULERTZEKO "MUGARRI"

Hain justu, Maria Jesus Aranburu Euskara eta Kultura diputatua egon zen aurkezpenean eta Aierbe bera Gipuzkoako aditu sutsuenetakoa bezala aurkeztu zuen haren ahalegina goraipatuz. Gaia, gainera, ez zitzaion batere arrotza Aierberi, unibertsitateko tesina ere bailara horretan oinarritu baitzuen eta zenbait lan kaleratu ditu Oñatiko kontearen inguruan. Gertutik ezagutzen du, hortaz, historialariak leintztarren eta ibarraren bilakaera. Horren harira eta egungo biztanleei begira ere, Kutxako ordezkari Mikel Irizarrek autoestimurako pizgarri moduan ere aurkeztu zuen "mugarritzat" jotako Aierberen liburua.

#### HERRITARRAK BATZEKO

Aierbek Txartyn de Basterbero kultura taldeko Aitor Antxiarekin Oñatiko artxibategia tril egin zuenean hasi zen liburuaren istorioa. Antxia eskoriatzarrak eta aretxabaletarrak batuko lituzkeen elementu edota agiriren baten bila ziharduen eta Aierbek 1495 urteko udal-ordenantza batzuk erakutsi zizkion. Espainian, Simancasen eta Valladoliden, daude ibarreko agiri historiko asko eta asko eta handik ekarri zituen historialariak. Artxibategi horietan egindako araketak sortu du ekarpenik handiena, egilearen beraren berbetan. Paper horien artean mendeetan eskoriatzarrek eta aretxabaletarrek elkarren artean izandako liskarrak ere jasota daude, Leintz bailara (Arrasate eta Gatzaga hiri ala *villa* ziren aspalditik ordurako) bitan zatitu zutenetik.

#### GIPUZKOARA BATU ARTE

Bilakaera horren inguruan osatu du liburua Aierbek Eskoriatza eta Aretxabaleta Gipuzkoara batu eta gerora artekoa. XV. mendearen amaiera hartan soilik bi bailara geratzen ziren, antolakuntza modu bezala, Gipuzkoan, Oiartzungoa eta Leintz. Antxiak kontatu zion bazebiltzala Aretxabaleta eta Eskoriatza banatu zireneko 375 urtemuga ospatzekotan . Orduan proposatu zion Aierbek benetako asmoa bizilagunak batzea izatekotan hobe zela leintztarrak Gebararren jaurerritik banatu zirenekoa ospatzea, hau da, arabar izatetik Gipuzkoako Batzarrekin bat egin zutenekoa. Hortik ikerketa sakonagoa egitea proposatu zioten adituari zapatuan aurkeztutako 400 orri pasatxoko liburu mardula bilakatzeraino. Aurkezpenean esan zuen "bailarako auzi benetan politak aurkitu" dituela, ikerketa horretan.




Aierbek eskuetan duen liburua dagoeneko eskuragarri dago. JOSETXO ARANTZABAL

### HISTORIAKO PASARTEAK

**> XIV. MENDEA** Enrique II.ak Beltran de Gebarari eman zion bailara, haren anaia Petri I.a Bihozgabearen aurkako borrokan laguntzeagatik. Gebarako jaurerriaren mende geratu ziren lurrak. Oñatiko kontearen senide ziren Gebaratarrak. Ibarra Arabaren barruan legoke.

**> 1406** Aramaioko jaurerriak eta Leintz bailarak konkordia sinatzen zuten bazkarako. Hala ere, liskarrek XIX. mendera arte iraun zuten.

**> 1556** Gebarako jaurerritik, Arabatik, atera zen bailara. Gaztelako Koroaren mende geratu ziren lurrak, erresumaren barruan hain zuzen ere.

**> XV. MENDEA** Gipuzkoako Ermandadearekin bategitea. Eskoriatzak izan zuen ekimena, Galartza sendiarekin Arrasate erreferente hartuta.

**> 1630** Eskoriatza eta Aretxabaleta (bakoitza dagozkion elizateekin) batu ziren eta udalerri izan dira aurrerantzean. Eskoriatzak hiri ala *villa* izendapena lortu zuen baina Aretxabaletak "leku" izaten segiko du. Banaketak ibarra batu zuen baina bi herrien arteko liskarrak piztu zituen hurrengo mendeetan; Aretxabaletak Gipuzkoako Batzar Nagusietan lehentasuna lortu zuen arte. Gatazka konpondu zuten bi udalerriak sortuaz eta Gipuzkoan sortutako azkenetakoak izan ziren gainera.


Azokako saltokietan aukera zabalari begira batzuk eta beste batzuk erosketan. JOSETXO ARANTZABAL


Umeak jaietarako dotore, aurpegian ere mila kolore IRATI AGIRREAZALDEGI


Zezenaren aurrean ausarta, baina gerturatzean baietz egin hanka. I.A.


Lord Wichen metala gogor ate joka. J.A.


Irala kalean lurrean bueltaka, bazkal osteko jolasetan bazen algara eta zarata. I.A.


Txomingeroak bazkaria gertatzen ari dira; batzuk lanean eta besteak begira. I.A.



Erromerian korroan dantzan San Martin plazan. J.A.

**BERGARA** > SAN MARTIN JAIAK

# Asteburuaren ostean, San Martin jai giro gehiagoren eskean

Zapatuko azokarekin hasi ziren San Martinak eta asteburuaren ostean jai girorik ez da faltako aste barruan ere

**IRATI AGIRREAZALDEGI** > BERGARA

Esaerak dio San Martinetan hasten dela negua, baina Bergaran, aste bukaeran, neguko eguraldirik ezean jaiak gozatu dituzte.

Zapatu goizean jende mordoa ibili zen batik bat San Martin plazan eta Seminarioko patioan. Izan ere, han zeuden azokako postuak. Barazki, fruitu, gazta, pastel, ogi, kontserba... denetarik erosteko aukera zen.

Saltzaileen esanetan ohiko bezeroak izaten dira fidelenak eta beste asko begiratzera joaten dira. Baina begira geratze hutsarekin ez da sabela betetzen eta, odoloste zein talo, izan zen zer jan. Baserritarrek generoa ekarri bakarrik ez, lehiaketetan ere hartu zuten parte eta ibarrean ere geratu zen saririk. Barazkietan Antzuolako Lapatza baserriko Tomas Larrañagak bigarren saria irabazi zuen; fruituetan Antzuolako Bidaurrekoek lehen saria; eta gaztetan lehen hiru sariak kanpora joan baziren ere Pikunietakoak laugarren geratu ziren.

**AZOKAKO GENEROA ETA JANA**

Erosketak eginda bazkaritarako gertu joango ziren etxera batzuk; beste batzuk, ordea, Irala kalean txomingeroen pare bazkaldu zuten: eguzkitarakoak, parrillak, hozkailuak eta batik bat lagun giroan jateko gogoa eraman zituzten. Giroa lagun arteak ez ezik Ustekabe txarangak ere ipini zuen. Eta zapatuan nahikoa jan ez zutenek domekan Tostoi eta



Azokako saltokien bueltan trikiti eta panderoa, bildutako jendearengan piztuz jaietako giro beroa. I.A.



Sarituak fruta, barazki eta gazta lehiaketetan; hauek egindako lanak meritua du benetan. J.A.



Laskurain, Bernaerts, Lazkano eta Muruamendiaraz, ohorezko kofradeak, janez Bergarako erreilenoak, inon baino hobeak. J.A.

Erreilenoen kofradiak beste herrietatik etorritako kofradiekin egindako martxan izan zuten gustuko jakia aukeratzeko modua: gazta, bakailaoa, izokina, piperrak… Baita orkestra sinfonikoko soka taldearen doinuen ostean, erreilenoak jatekoa ere.

Kofradiaren hamargarren kapituluan Mikel Laskurain, Anne Bernaerts belgiarra, Jesus Mari Lazkano margolaria eta Edu Muruamendiaraz dantzaria egin zituzten ohorezko kofrade. Laurek hunkituta Bergararen izen ona eta erreilenoak eta tostoiak nonahi zabalduko dituztela zin egin zuten eta herriko gozoen zale direla aitortu ere.

**JOLASAK NAHI BESTE**

Jai giroak janetik ez ezik jolasetik ere badu. Txikienak eskulanak egiten, aurpegia margotzen makilekin jolasean… Bitartean makilari bueltaka ibili ziren nagusiagoak, baita lurrean bueltaka zein lurreko patata batetik bestera eraman nahian dantza itxurak egiten ere. Patatarekin batzuk eta zezen aurrean besteak. Seminarioan zezen aurrean kapote eta guzti ibili zenik izan zen. Domeka goizean zezen handiagoen aurrean baten batek susto galanta hartu zuen, zezenak Kutxako kristala apurtu eta harrapatu zuenean. Gaur ez da dantzarako gogoz egongo gaztea, ez

Dantza nahikoa egindakoak zapatu gauean plazako erromerian, rock kontzertuan edo tabernetan ibilitakoak izango ziren.

Txaranga, erromeria, biolin, txistu, dultzaina, oihu, kristal… askotariko musika eta hotsak entzun dira San Martin jaietako lehen asteburuan, baina Bergaran jaietan bueltaka ibili eta aspertu ez direnek edo oraindik jairako gogoa dutenek aste barruan ere izango dute gozatzeko aukera: pilota partiduak, danborradak, dantzaldiak, zezenak, bandaren kontzertua, dantza solte txapelketa, motokrosa, txirrindularitza, xakea… gustu guztietarako eskaintza zabala.



Txikienak bizikletan azkar ibili ziren helmugara zein ailegatu lehian. J.A.

**OÑATI** > ATZEKO KALEKO JAIAK

# Gauak aurrera egin ahala parrandan Atzeko kalean

## Kontzertuan eta erromerietan izan zen jai giroa eta baita egunez ondo pasatzeko aukera ere

**I.A.** > OÑATI

Atzeko kalean jaiak ospatu dituzte pasa berri den aste bukaeran. Egubakoitzean hasi eta domekara bitartean jai giroa izan da nagusi Oñatiko kale ezagunean.

Oñatiko taldeak izan ziren egubakoitzeko kontzertuan lehenak eta Black Riverren ostean, berriz bueltan etorri diren Argi Ibili taldekoek interesa piztu zuten oñatiarren artean. Haiek amaitu eta jendeak alde egin bazuen ere, Skasti taldeak dantzan ipini zituen geratu zirenak eta amaierako doinuak Vomito taldeak ekarri zituen.

**SUZKO ZEZENA**

Zapatuan sokamuturrarekin hasi eta jan eta edanaz gain, Triki ta Ke taldearekin dantzarako aukerarik ere izan zen. Goizeko zezenaren aurrean korrika egin ez zutenek, Atzeko Kaleko jaietako berrikuntza moduan suzko zezena ikusi ahal izan zuten.

Domekan, txikienenak gogotsu ibili ziren bizikletan eurendako antolatutako txirrindulari proban. Jai giroko asteburuaren ostean, txikiek eskolarako motorrak berotzeko txorimaloen aurrean egin zuten korrika eta Kaixo taldearekin dantzan ere jardun zen jendea.



La Madriguera taldeak egubakoitzean emandako kontzertua. JOSETXO ARANTZABAL

**ARRASATE** > ERGUIN AUZOKO JAIAK

# Musika, dantza, kirolak eta jolasak jai giroan gozatzeko

## Aurten Usaetxe plazara aldatu dituzte hainbat kontzertu obrak direla-eta

**I.A.** > ARRASATE

Egubakoitzean hasi ziren jaiakk Erguin auzoan eta zapatuan eta domekan ere ekitaldi ugari izan da.

Fight to life, Muskaria eta La Madriguera taldeen rock doinuek hartu zuten egubakoitz gauean Munar.

**JOTAK ETA ERROMERIA**

Baina izan da Erguineko jaien aitzakian bestelako musika entzuteko aukerarik. Zapatuan Usaetxe plazan Nafarroako jotak eta Kaixo taldearen erromeria doinuak izan ziren. Aurten Usaetxe plazara aldatu dituzte hainbat ekitaldi obrak direla-eta.

Dena ez da musika eta herri kirolak, bertsolariak, umeendako jolasak, buruhandiak, rokodromoa ,tirolina, tangoak, poteoa… eta amaitzeko suzko erroberak. Horrelako ekitaldiekin zeinek ez ondo pasa Erguinen.

**INGURUMENA** > EUROPAKO MUGIKORTASUN IRAUNKORRAREN ASTEA

# Badator beste era batera mugitzen irakatsiko digun Mugikortasun Astea

Irailaren 16tik 22ra bitartean hamaika ekintza izango dira herriko txoko ezberdinetan

**JOKIN BEREZIARTUA** > ARRASATE
Urtero moduan, Arrasateko Udalak Europako Mugikortasun Iraunkorraren Astea antolatu du, Eusko Jaurlaritzaren laguntzaz. Herritarren artean Mugikortasun Astea moduan ezaguna den ekimena 2002an jaiotako Udalsarea 21 proiektuaren barruan kokatzen da. Garapen iraunkorra bultzatzea du helburu Udalsarea 21 proiektuak, eta Arrasate izan zen bat egin zuen lehen herrietako bat.

Aurten Arrasateri irailaren 16tik 22rako astea egokitu zaio, eta, ohi moduan, ekintzaz jositako egitaraua prestatu dute. Ekimenaren helburu nagusia hiri barruan norbanako autoen kopurua gutxitzea da. Finean, herritarrak beste era batera mugitzen ikastea gura dute ekimenaren bultzatzaileek.

**URBANOA DOAN ASTE OSOAN**
Garraio publikoaren alde egiten den apustuaren adierazle, aste osoan –irailaren 16tik 22ra– herriko autobusa doakoa izango da. Hori bai, adin txikikoek urbanoa erabili gura badute, adin nagusiko batek lagunduta bidaiatu beharko dute. Gainera, aurreko urteetan sortu izan diren arazoak gerta ez daitezen, adin txikikoek ohiko eskolako bidaiak egin ahalko dituzte.

**EGITARAU ZABALA**
Egitarau interesgarria izango da bost egunetan zehar. Ekintzak hilaren 17an hasiko dira. Egun horretan Bide Hezkuntza zirkuitua izango da. Haur eta gaztetxoei zuzendutako ekitaldia izango da batez ere, errepidera bizikletaz irtetean jakin beharrekoak irakastea helburu duena. Laubide plazan izango da, 17:00etatik 19:00etara. Bizikletak egongo direla aurreratu dute, baina norberarena eroatea gomendatzen dute.

Egubakoitzean Iñaki Mataren *Barreras* ikuskizunaz gozatzeko aukera izango da kaleetan zehar. Irisgarritasun arazoak era komikoan azaleratuko ditu Matak.

Zapatua izango da Mugikortasun Asteko egun handia. Hasteko, Birzikleta Azoka jarriko dute Seber Altube plazan. Hala, 11:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 19:30era bigarren eskuko bizikletak eta bizikletaren inguruko denetariko materialak egongo dira salgai. Ordu berean hasita eta 20:00ak arte, segway ibilgailua erabiltzeko aukera izango da Biteri plazan. Gainera, emisio txikiko ibilgailuen gaineko erakusketa jarriko dute leku eta ordu berean.

Domekan, bestalde, bizikleta bira antolatu dute. Arrasatetik Eskoriatzara joango dira, bidegorritik; irteera 11:00etan izango da Seber Altube plazan.

Azkenik, hilaren 22an mugikortasuna eta irisgarritasuna lantzeko jarduerak egingo dituzte, Seber Altube plazan (17:00).

BIRZIKLETA AZOKA

## Materiala batzeko, irailaren 15a eta 17a

Irailaren 19an egingo da azken urteetan arrakastatsua izan den Birzikleta Azoka. Azokan materiala salgai jarri gura duenak egun bi izango ditu, lehena joan den zapatuan igaro baitzen: irailaren 15a eta irailaren 17a, 11:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 19:00etara, Udal Azokan.

Antolatzaileek jakinarazi dutenez, egoera onean dagoen edozein material onartuko dute azokan salgai jartzeko. Hortaz, denetariko bizikleta eta materiala eroan ahalko da. Salneurria jabeak berak jarriko dio eta saltzen ez den material guztia jabeari itzuliko zaio. Noiz? Irailaren 24an Udal Azokan, 17:00etatik 19:00etara.


Irailaren 19an izango da bigarren eskuko bizikleten azoka. GOIENKARIA


Irudian, Ouzud (Maroko), iazko Arrasateko argazki irabazleetako bat. MAIDER ARREGI

**OPORRAK** > 'GOMENDATZEN DIZUT!' SARIKETA

# Opor gomendioak eman, eta saria lortu

Urriaren 15ean amaituko da *Gomendatzen dizut!* lehiaketara opor gomendioa bidaltzeko epea

**J.B.** > ARRASATE
Martxan da Gipuzkoako gazte bulegoek urtez urte antolatzen duten *Gomendatzen dizut!* sariketa. Sariketaren helburua da oporretako gomendioak jasotzea; hau da, aisialdi edo oporraldian ezagututako lekuren baten berri izatea, hain zuzen. Gero, informazio hori oso erabilgarria izango da gazte bulegoetara informazio eske joango diren bidaiarientzat.

Sariketaren antolatzaileek diotenez, "gomendio xumeen bila gabiltza, lagun bati oporretatik bueltan kontatzen diozun hori jakin gura dugu". Hala, edozein ostatu merke, leku zoragarri, mendi ikusgarri edo ibilbide interesgarriren argazkia eta informazioa izanez gero, gonbidatuta zaude *Gomendatzen dizut!* lehiaketan parte hartzera.

**SARIKETAREN OINARRIAK**
Parte hartzeko hiru modu daude: fitxa bete eta bulegora joanda, posta elektronikoz edo *www.aizue.com* webgunean *Gehitu zure gomendioa* estekan klikatuz. Gomendioa idatzi behar da, zergatik, eta argazki bat erantsi. Bi maila ditu sariketak: 12 eta 17 urte artekoak –300 euroko saria bidaia edo ikus-entzunezko materialean gastatzeko– eta 18 eta 34 urte arteko gazteak –500 euroko saria ikus-entzunezko materialerako edo gustuko bidaia egiteko.

> KULTURA

### Iñurritegi anaien mural sorkuntza 'Sua' pelikularen filmazioan

Arrasateko Haritz eta Andoni Iñurritegi anaiek *Sua* filmaren azken filmazio-jaian mural mitologiko bat margotuko dute. 1609. urtean girotutako pelikularen azken filmaziorako edonor dago gonbidatuta: irailaren 19an izango da, Ozetan (Araba).

> POLITIKA

### Alkartasun Egunera joateko autobusa Arrasatetik

Irailaren 20an Eusko Alkartasunak Alkartasun Eguna ospatuko du Iruñeko Labrit pilotalekuan. Pello Urizar alderdiko idazkari nagusiak egingo du berba. Bertara joateko autobusa jarri dute; Iturbide egoitzatik irtengo da (09:45). Interesatua joan dadila Alkartetxera edo deitu 943 71 27 88 telefonora.

**INGURUMENA** > MENDI-BIDEEN GARBIKETA

# Ehun kilometro mendi-bide garbitu ditu dagoeneko Arrasateko Udalak

Baserrietarako bideak eta baso-bideak (paseorakoak) garbitu dituzte aurten

Momentuz, Udalatx eta Besaide arteko bidea ezingo dute garbitu, AHTren lanengatik

**UBANE MADERA** > ARRASATE

Abuztua aprobetxatu du azken urteotan Arrasateko Udalak udalerria inguratzen duten mendi edo baso-bideak garbitzeko. Aurtengo abuztuan ere halaxe egin dute, "jende gutxiago dabilelako eta behin abuztuan garbituta, bideak urte beterako garbi mantentzen direlako. Auzo alkateekin adostuta erabaki genuen urtean behin egitea garbiketa, abuztuan", kontatu du Peio Garaik, Udaleko Ingurumen Saileko teknikariak.

**40 BAT KILOMETRO GARBITUTA**

Bi bide mota garbitu dituzte oraingoan. Batzuk dira baserrietara doazenak: "Errutina bezala garbitzen ditugu horiek; aurten garbitu ditugu 15-16 bat kilometro" dio udal teknikariak.

Garbitu duten bestelako bideak baso-bideak dira. "Kasu horretan 25 bat kilometro garbitu ditugu. Baso-bideak dira geroago eta gutxiago garbitzen diren bideak, baina aldiz guk, herritarrok, asko erabiltzen ditugunak paseatzeko. Gure mendietan bada bide-saretxo bat eta saiatzen gara bide-sare hori garbitzen eta garbi mantentzen".

Emandako xehetasunen arabera, Bedoñan, Udala aldean, Gesalibarren eta Garagartzan jardun dute, batez ere, aurten baso-langileek.

**INBENTARIOA BUKATU GURAN**

Beraz, 40 bat kilometro garbitu dituzte aurten guztira. Iaz, berriz, 65 kilometro garbitu zituzten. Hori horrela, dagoeneko badira 100 kilometro baino gehiago garbituta gurean.

Hala ere, oraindik egiteko lan handia dagoela azpimarratu gura izan du udal teknikariak: "Bide asko daude, asko eta asko oraindik ere galduta. Orain gabiltza mendi-bideen gaineko inbentarioa egiten. Aurrekaria gertu dago, falta zaiguna da auzoetan eta herritarrei aurkeztu, euren ekarpenak jasotzeko eta horren ondoren osoko bilkuran onartu beharko dute politikariek".

**BIDE SAREA ANTOLATUTA**

Hori horrela, inguruko mendiak garbi mantentzeaz gainera, Peio Garaik azpimarratu gura izan du halako ekimenekin, Arrasateko Udalaren asmo orokorra dela inguruko mendian bide sarea antolatu. Eta dagoeneko, gutxieneko sare bat antolatuta dagoela ere gogora ekarri gura izan du: "Adibidez, orain urte batzuk atera zen planotxo bat sei mendi-ibilbiderekin. Urtetik urtera horiek garbi mantentzen ahalegintzen gara. Eta Besaide Mendi Elkartekoek erabiltzen dituzten bideak ere garbi mantentzeko ahalegina egiten dugu".

**AHTK GARBIKETA BALDINTZATU**

Hori bai, Arrasateko Udalak garbitu gura dituen mendi-bideetatik kanpo geratuko da, adibidez, Udalatx eta Besaide artekoa. Udalak iragarrita zuen hura garbitu eta egokituko zuela, baina, lan hori bere horretan utzi egin behar izan dute, momentuz. "Uztailaren azkeneko egunetan jakin genuen Abiadura Handiko Trenaren obrak direla-eta, beste tramu berri bat abiaraziko dutela, eta horrek baldintzatu egin du Udalatx eta Besaide arteko bidearen garbiketa. AHTren arduradunek azaldu beharko dizkigute euren asmoak eta horren arabera jakingo dugu zela antolatu", azaldu du.

**LANDARE INBADITZAILEAK**

Bestalde, mendi bideak narrez eta beste garbitzeaz gainera, landare inbaditzaileak kentzen ere jardun dute abuztuan baso-langileek. "Lanik potoloenak" eginda utzi dituztela azpimarratu du Peio Garaik, eta falta direnak bukatzear daudela. "Landare inbaditzaileak daude, batez ere, Aramaio eta Deba erreka baztertetan; Arrasateko saihesbidean eta haren gainen dagoen beste baso-bide batean. Horiek abuztuan garbitu ditugu eta falta diren zatiak orain gabiltza garbitzen".

Landare inbaditzaileen harira, herritarrei deialdia egin gura die udal teknikariak halako landareak ikusiz gero, Udalari abisatzeko, udal langileek ken ditzaten, herbizidak erabiltzen dituzte-eta, horretarako.

Gurean barreiatu diren landare inbaditzaileak hiru dira: *plumero* izena ematen zaiona; beste bat lore more koloreduna da eta hirugarrena erreka bazterrean dagoen Japoniako landarea.

**ITURRIAK GARBITU**

Mendia ez ezik, mendiko elementuak ere garbituko ditu aurrerantzean Arrasateko Udalak, besteak beste, iturriak.

**UDAL PLANOAREN BIDE SAREA**

**> ERREGEBIDE-BEDOÑA**
Musakolatik abiatuta-Bedoñara jo-Anbulatoriotik irten-Zubillagara iritsi-buelta osoa eman-Bedoñara arte-eta San Andrestik jaitsi kalera.

**> MUSAKOLA**
Institutu atzetik atera-Anporreta mendira jo-eta *Loo* baserritik behera egin behar da; bide berak du beste adar bat Meatzerrekara eta handik Udalara

**> UDALATXEN AZPIKO ALDEA (PR)**
Udalan irteten da-Besaidera doa (goiko bidetik)-buelta beheko bidetik egiten du-eta Udalan bukatzen da.

**> GARAGARTZA**
Garagartzan irten-Lisuetako kobara iristen da-Leze Txiki ingurutik jarraitzen du-bidez bide iristen da Gesalibarreraino.

**> URIBARRI**
*Lauaxeta* etxean irten (Muru bidea)-*Naparrena* baserrira igo-buelta-*Bastergain Azpiko*- handik *Bastergain Gaineko*ra-eta gero *Telleria* ingurura.

**> URIBARRI-MEATZERREKA**
Larragain-Meatzerrekatik irten eta *Malvinas*era jo-*Salturri* baserritik pasa eta Meatzerrekara jaitsi behar da-handik Anporretara egiteko-Hidalgo basora gero-Monterronen bukatzeko.

**argazki zaharra**

## Fraideen komentua XX. mendean

Frantziskotarrek urrian Arrasateko komentua utzi egingo dutela-eta, haiek agurtzeko argazkia ekarri du irakurle batek. Komentua da argazkiak lehen planoan erakusten duena, klaustroak ere ikus daitezke. Deigarria da, baita ere, Aramaio erreka ikusten dela, gaur egun Otalora kalearen azpitik pasatzen dena. Ikusten direnen eraikinen artean, Monterron jauregiko morroien etxea dago (eskuman, erreka ondoan eta Monterron aurrean). Etxe hori 50eko hamarkadan bota zuten.

**Argazkia:** Arantzazu Urtzelai.
**Testua:** Jose Mari Balantzategi.
**Urtea:** Joan den mende hasiera.





Usondo parkeko komunak apurtuta. GOIENKARIA



Martoko eskolako jostailuak lurrean. GOIENKARIA



Kiroldegiko trenari makina lapurtu diote. GOIENKARIA




Goiko kartela jarri zuten Agorrosinen. GOIENKARIA

**JENDARTEA** > GERTAKARIAK

# Oporraldian gertatu diren hondatzeak salatu ditu Udalak

Usondoko komunak erabat txikitu zituzten abuztuan, eta itxita daude; Udalak ez ditu konponduko, berriak egin baizik, ahalik eta epe laburrenean

**MONIKA BELASTEGI** > BERGARA

Agorrosingo kanpoko igerilekuan asteon gertatu direnez gain –zaborra eta aulkiak bota dituzte uretara, besteak beste–, opor garaian ere egon dira hondatzeak hainbat lekutan.

Hori horrela, uztail bukaeran Labegaraietako kiroldegi ondoko ziburuak apurtu zituzten ezezagun batzuek. Trentxoaren makina eroan egin zuten, esaterako.

San Martin Agirre ikastetxearen kanpoko aldean dauden ziburuetan ere kalteak eragin dituzte; trena apurtu zuten, hor ere, eta Udaletik aurreratu dutenez, ia urteroko kontua da hori.

Martoko auzoko eskolan ere sartu ziren ezezagun batzuk, abuztuaren 10ean: leiho bat apurtu eta barruko aulkiak, mahaiak eta jostailuak kanpora aterata aurkitu zituzten udaltzainek; baita barruko aldea hankaz gora ere.

**USONDO PARKEA**

Txikiziorik handiena Usondo parkeko komunetan egin dute. Udaltzaingoaren arabera, abuztuaren 12an guztiz txikituta azaldu ziren komunak eta handik hiru egunera, abuztuaren 15ean, gauza gehiago apurtu zituzten.

Ondorioz, itxita daude Usondoko komunak, eta, udal iturrien arabera, ez dituzte konponduko, bota eta berria egin baizik.

Udalaren nahia da ahalik eta azkarren egitea berria, herritarrak zerbitzu barik ez egoteko. Asmoa da komun bat egitea, gizon zein emakumeendako bakarra eta elbarrituendako egokitua. Gainera, sarrera orain arte bezala erreka aldera izan beharrean, parke aldera izango du.

Udaletik, bestalde, salatu egin dituzte gertakari horiek guztiak, "eragiten duten kostu ekonomikoez gain, herritarrak zerbitzu gabe geratzen direlako".

**KULTURA** > MUSIKA KORALA

# Taldera batzeko dei egiten die Bergarako Orfeoiak herritarrei

Adin guztietako lau talde dituzte eta, hala, parte hartzeko dei egiten diete abestea gustuko duten herritarrei



Bergarako Orfeoia kontzertu baten. GOIENKARIA

**M.B.** > BERGARA

Bergarako Orfeoia osatzen duten lau taldeek hasi dute dagoeneko ikasturtea. Orfeoi Txikitxoak –5 eta 8 urte artekoak– irailaren 17an hasiko ditu entseguak. Eguenetan izango dira, 18:30-19:30 ordutegian. Orfeoi Txikiak –9 eta 13 urte artekoak– hasita ditu entseguak eta izango dira eguenetan 19:30-20:00 ordutegian eta egubakoitzetan 19:00-20:00 ordutegian. Gabero abesbatzak –14tik 20 urtera– ere hasi ditu entseguak, eta egubakoitzetan batzen dira, 20:00-22:30 ordutegian. Nagusien taldeari dagokionez, haiek ere hasi dituzte entseguak, eta elkartzen dira martitzen eta eguenetan 20:30-22:30 ordutegian.

**150 KIDE ORFEOIAN**

Gaur egun 110 haur eta gaztek dihardu orfeoian, eta 40 bat helduk. Edozelan ere, gehiago izan nahi dute. Hala, abestea gustuko duen edozein herritarri gonbita egin nahi diote orfeoian parte hartzeko. Horrekin batera gogora ekarri dute umeek matrikulatzeko aukera izango dutela irail osoan.

Informazio gehiagorako edo izena emateko idatzi mezua *bergarakoorfeoia@gmail.com* helbidera.

**EUSKARA** > JARDUN ELKARTEA

# Jolasleku ibiltaria egingo du Jardunek irail eta urrian

**M.B.** > BERGARA

Ikasturte hasierarekin batera, umeendako aisialdia borobiltzeko jolasleku ibiltaria antolatu du Jardun euskara elkarteak. Irail eta urriko egubakoitzetan izango da eta 6 eta 12 urte bitarteko gaztetxoendako aisialdi programa da.

**IZENEMATEA**

Herriko geroago eta leku gehiagotara eramaten du Jardunek jolaslekua –umeak batzen diren guneak–. Oraingoan, Labegaraietaraino iritsiko dira.

Hain justu ere, herriko lau leku hauetan egingo dute jolaslekua: irailaren 18an, Espoloian (17:00); irailaren 25ean, Simon Arrietan (17:00); urriaren 2an, Martinez de Irala kalean (17:00) eta urriaren 23an, Labegaraietan (17:30).

Bertaratzen diren umeek askotariko jolas eta tailerrak egingo dituzte, lau begiralek dinamizatuta, eta musika oso alaiarekin lagunduta.

> JENDARTEA

## San Joxepeko hirugarren hiruhileko informatika ikastaroetarako izenematea zabalik dago

San Joxepe elkarteko hirugarren hiruhileko informatika ikastaroak abian dira. Informatika hastapena, Internet eta Powerpoint ikastaroak egongo dira. Informatika hastapeneko ikastaroa izango da urriaren 5etik azaroaren 16ra, astelehen eta eguaztenetan, 16:30-18:30 ordutegian; Internet ikastaroa izango da urriaren 6tik azaroaren 13ra, martitzen eta egubakoitzetan, 10:30-12:30 ordutegian; eta Powerpoint ikastaroa izango da urriaren 6tik azaroaren 13ra, astelehen eta eguaztenetan, 10:30-12:30 ordutegian.

**JAIAK** > SANMARTINAK

# Inoizko danborrada jendetsuena, bihar

234 lagunek jardungo dute nagusien danborradan eta bederatzi konpainia egongo dira; horietako bat, Talde Gaztea, aurten aterako da lehenengoz

**MONIKA BELASTEGI** > BERGARA

Sasoi betean dago nagusien danborrada. Batik bat azkeneko bi urteetan parte-hartzea handitu egin da: duela bi urte Barrika Joleak emakume konpainia sortu zen; iaz, Herriko Danbor-joleak; eta aurten, Talde Gaztea.

Guztira 234 lagunek hartuko dute parte eta bederatzi konpainia egongo dira: Zuloa, Barrikaoleak, Urdiñak, San Joxepe, Aritzeta, Herriko Danbor-joleak, Artatse, Sustar Berri eta Talde Gaztea.

Parte-hartzaile berriak egongo diren arren, hutsuneak ere nabarituko dira; izan ere, aurten ez da sukaldaririk egongo. Lasai Toki elkartekoek izan dute orain arte ardura hori, eta aurten ez dute lortu boluntario nahikorik.

**OHIKO BIDETIK**

Bihar, martitzena, abiatuko da danborrada, 22:30ean kultura etxe ondotik eta, ohi bezala, bi banderadun joango dira buruan. Bi banderadunak zaldi gainean joango dira eta Ikurrina eta Bergarako bandera eramango dituzte. Atzean Zuloa eta Barrikajoleak konpainiak joango dira, hurrenez hurren, eta horien atzean, Udal Musika Banda. Danborradako piezak musika bandak joko ditu San Martingo martxa eta Pertxa eta Lasai Toki elkarteetako martxak.

Musika Bandaren atzetik joango dira gainerako konpainiak, oinezko bi edo hiru banderadun aurrean dituztela, eta formazioa ixten, San Martinen heriotzaren irudikapeneko karroza joango da. Irudikapenaz arduratuko dira Gabero abesbatzako kideak.

Honako ibilbidea egingo du danborradak: Arrizuriaga, Masterreka, Bideberri, Fraiskozuri, Herrilagunak, Domingo Irala, Irizar, Barrenkalea, San Martin plaza, Bidekurutzeta, San Pedro, Artekalea, Arruriaga, Barrenkalea eta San Martin plaza.

San Martin plazara iristean, banderadunek kulunkatu egingo dituzte banderak udaletxeko balkoian, konpainiek formatu egingo dute eta bandak *Nagasaki* obra jotzen duen bitartean San Martin hil egingo dute gurutzean.

**EGUAZTENEAN, UMEENA**

Umeen danborrada eguaztenean abiatuko da, 18:30ean, eta 220 bat haurrek hartuko dute parte. Aurten herriko danbor-jolez osatutako hiru talde osatu dituzte. Horrez gain, ohi bezala, herriko ikastetxeetako haurrek ere hartuko dute parte. Amaieran parte-hartzaileendako txokolatea egongo da, plazan.



Zuloa elkarteko konpainia izango da aurten lehenengoa. GOIENKARIA



MONIKA BELASTEGI

## Iraegik badihardu grafitiarekin

Asteon hasi da Jon Iraegi azokako paretan bertan salgai egoten diren produktuetan oinarritzen den grafitia margotzen, eta gutxienez bi asterako lana baduela azaldu du. Irudian ikusten denez, Bergarako gazteak garabi bat behar izan du lan egiteko, azokako paretak altuera handia hartzen du-eta.

### oharrak

HEZKUNTZA

**> Ikastola Eguneko bazkarirako txartelak salgai, Aranzadin**

II. Ikastola Eguna ospatuko du Aranzadik irailaren 26an. Ibilaldia, eskulan tailerrak, herri bazkaria, erromeria, puzgarriak… izango dira. Bazkarirako txartelak dagoeneko eskuragarri daude hilaren 18ra arte (17:00-18:30) idazkaritzan.

BEDELKAR

**> Bedelkar txartelarekin %5eko deskontuak azarora arte**

Irail, urri eta azaroko eguba-koitz eta zapatuetan egingo dute.

KINTADA

**> 1942an jaiotako gizon-emakumeek bazkaria egingo dute**

Irailaren 26an egingo dute bazkaria, Azpeitxi jatetxean (14:30). Izena emateko azken eguna da irailaren 22a, Edel ohial-dendan eta Azpeitxi jatetxean. Izena ematean 20 euro aurreratu behar dira.

SAN JOXEPE

**> Leongo bidaiarako plaza hutsak daude oraindik**

San Joxepetik jakinarazi dutenez, Leonera irailaren 20tik 26ra egingo duten bidaiarako plaza libreak daude. Interesa dutenek egoitzako bulegoan eman dezakete izena.

KINTADA

**> 1948an jaiotakoek Bilbora irtera egingo dute**

Hilaren 26an egingo dute eta, besteak beste, bisita gidatua izango dute Zazpi Kaleetatik. Izena emateko sartu behar dira 65 euro Euskadiko Kutxan irekitako kontuan.

> ZERBITZUAK

### Martitzenetik aurrera Ibargarai kalera eroango dute taxi geltokia

Udaletik jakinarazi dutenez, bihartik aurrera (irailak 15) Ibargarai kalean egongo da taxi geltokia. Hain justu ere, Ibargarai kaleko 3. zenbaki parean dagoen aparkalekura eroango dute.

Taxi geltokiak Irizar kalean libre lagako duen lekuan aparkalekuak egokitzeko asmoa du Udalak.

> KIROLA

### Bergara Hiriko errebantxa jokatuko dute gaur, 19:30ean

Hiru hilabete eskas pasa dira Bergara Hiria txapelketako finala jokatu zutenetik, eta gaur, orduko protagonistak errebantxa hartzeko gogoz azalduko dira. Gaztetan, Ezkurdiak eta Peñasek Apezetxearen eta Arzelusen aurka jokatuko dute. Nagusitan, Idoaten eta Larrinagak Yoldiren eta Merinoren kontra jokatuko dute.



**APARKALEKUAK** > PLAZAK, ERRENTAN

# Lur azpiko aparkalekuetako plazak alokairuan emango ditu Udalak

Eguneko edo gaueko orduetarako eta egun osorako alokairuak har daitezke

Hainbat aldaketa egin ditu Udalak lur azpiko aparkalekuetako ordenantzan



Kiroldegiko aparkalekuan alokairuan har daitezke marradun plazak. MIREIA BIKUÑA

**MIREIA BIKUÑA** > OÑATI

2009ko uztailaren 2an egindako osoko bilkuran aho batez onartu zuen udalbatzak lur azpiko aparkalekuetan aparkatzeko zerbitzua arautzen duen ordenantza aldatzea. Hala, hainbat herritarrek egindako eskaera aintzat hartu zuten udal arduradunek.

Uztaileko osoko bilkuran onartu zuten aldaketaren helburu nagusia Kalegoieneko eta kiroldegiko lur azpiko aparkalekuetan plazak alokatzeko aukera ematea.

Udalak errentan emango dituen aparkalekuak marradun plazak dira, eta Udalak berak zehaztuko ditu abonatuek erabili ahalko dituzten tokiak. Kalegoieneko edo kiroldegiko lur azpiko aparkalekuetan plaza alokatzeko interesa dutenek Udaleko Hirigintza Departamentuan eska dezakete informazioa edo eman dezakete izena.

**HIRU AUKERA**

Marradun plaza alokatzen dutenek hiru aukera izango dituzte: alde batetik, eguneko orduetarako –09:00etatik 21:00etara– alokatu gura dutenek 52 euro ordainduko dituzte hilero. Beste alde batetik, gaueko orduetarako –21:00etatik 09:00etara – alokairua egiten dutenek 52 euro ordainduko dituzte. Azkenik, egun osorako alokairua hartzen duten pertsonek 90 euro ordainduko dituzte hilero.

Aparkalekua alokatzen duten herritarrek txartel berezi bat jasoko dute, aparkalekuetako sarrera eta irteera errazteko. Txartela irakurgailura hurbilduz gero, hesia altxatu egingo da.

**BESTE ALDAKETA BATZUK**

Lur azpiko aparkalekuen ordenantzan beste hainbat aldaketa egitea onartu zuen udalbatzak.

Txandakako izaera bermatzearren, 300 minutu baino gehieago egoten diren autoei aparkatzeko tasa igo egingo diete.

Bestalde, gaueko edo eguneko aparkatze sistema erabiltzen dutenei eta dagokien orduetatik kanpo autoa aparkalekuan uzten dutenei, ohiko tarifa garestiagoa aplikatuko diete.

**ARAU-HAUSTEAK**

Ordenantza berrian, aparkalekuak gaizki erabiltzearren zigorrak jarriko dituztela zehazten dute. Hauek dira arau-hausteak: dagokion tasa ordaindu barik aparkalekutik irtetea; aparkatzeko eskubidea ematen duen txartela eduki barik aparkatzea, eta garajeen jabeek errotazioko plazetan aparkatzeko.

---

**LANAK** > KIROLDEGIAN

# Kantxa urdina erabilgarri dago

Intsonorizazio lanak bukatzeko plaka akustikoak jartzea falta da; irail bukaeran egingo dituzte lanok

**MIREIA BIKUÑA** > OÑATI

Kiroldegiko kantxa urdina intsonorizatzeko lanak bukatu barik dauden arren, eguena ezkero kantxa urdina erabilgarri dago. Hortaz, entrenamenduak egiteko edo partiduak jokatzeko aukera izango dute bazkideek eta Aloñako jokalariek.

Kantxako intsonorizazioa egiteko falta den lana plaka akustikoak jartzea da. Baina banatzailea atzeratu egingo da. "Banatzaileak esan digu oraingoz ezin dituela plakak ekarri. Hortaz, kantxa zabaltzea erabaki dugu", esan digu Kirol teknikari Oskar Carrascalek.

Falta diren lanak irail bukaeran egingo dituzte. "Jaietako bi egun hartuko ditugu lanok egiteko", dio Carrascalek.

**240 PLAKA**

Uztaileko azken astean hasi zituzten Zubikoa kiroldegiko kantxa urdina intsonorizatzeko lanak. Lehen pausoa neurketa akustiko-teknikoa egitea izan zen. Ondoren, sabaiko metakrilatoa kendu zuten. Argiak aldatu eta ondoren sarea jarri zuten.

Azken lana kantxa intsonorizatzea izango da. Horretarako, 30 zentimetroko diametroa eta metro eta erdiko luzera duten 240 plaka jarriko dituzte. Plaka horiek bereziak dira, larruazalaren moduko materialaz jantziak daude-eta.

---

**oharrak**

HITZALDIA

**> Bakardadeari aurre egiteko teknikak erakutsiko dituzte**

Pake Lekuk antolatuta, bakardadean bizi diren pertsonendako hitzaldia egingo dute hilaren 15ean, 17:00etan. Bakardadeari aurre egiteko teknikei buruz egingo du berba Rakel Muñozek.

KINTADA

**> 1980an jaiotakoek kintada egingo dute hilaren 19an**

Bazkaria Arantzazuko Sindika jatetxean egingo dute. Kintadan parte hartzeko 50 euro sartu beharko dira Euskadiko Kutxako ondorengo kontuan: 3035 0005 30 0050045392, izena emanda.

MATRIKULAZIOA

**> Euskaltegiko izenematea zabalik hilaren 18ra arte**

Udal Euskaltegiak ikasturte berrirako matrikulazioa zabaldu du. Izenematea bulegoan, 09:00etatik 13:00etara eta 16:30etik 18:30era, *euskaltegia@oinati.net* helbidean edo 943 78 24 96 telefonoan egin daiteke hilaren 18ra arte.

---


GOIENKARIA

## Dozenaka amuarrain hilda abuztuan

Abuztuko lehen astean dozenaka amuarrain hilda agertu ziren Arrueneko tunela eta Kurtzetxoko presa artean. Ikerketaren arabera, Berezao-Lezesarri industrialdeko lantegi batean gertatutako isurketa baten ondorioz gertatu zen. Ur Agentziako teknikariek laginak jaso zituzten, eta badirudi enpresaren kontrako espedientea martxan jarriko dutela.



Ikasteaz gain, ikasleek eta irakasleek urtero sagardotegira joateko ohitura dute. GOIENKARIA

**ARETXABALETA-ESKORIATZA** > EUSKARA

# Dagoeneko izena eman daiteke euskaltegian

Eskaintza zabala du aurtengo ikasturteari begira: urte osoko kurtsoez gain, ikastaro bereziak eta talde jakinei zuzendutakoak ere gertu dituzte

**MIRIAN BITERI** > ARETXABALETA
Euskara ikasi gura duten aretxabaletarrek eta eskoriatzarrek jakin behar dute Leintz udal euskaltegian matrikula egiteko epea dagoeneko zabalik dagoela. Irailaren 1a ezkero eman daiteke izena bertan. Oraindik zehazteke badago ere, eskolak irailaren amaieran edo urriaren lehen astean hasiko direla jakinarazi dute.

Eskaintza zabala prestatu dute hastear dagoen ikasturteari begira: euskalduntze maila guztiak, alfabetatze eta titulu ofizialak; esaterako, EGA.

**IKASTARO BEREZIAK**
Ikastaro bereziak ere badituzte, hala nola Eguneratuz, Itzulpengintza, Euskalkia, Ahozkotasuna eta Hizkuntza Eskakizunak. Azken horretan Administrazio Orokorreko (HAEE) lau hizkuntza eskakizun eta irakaskuntzako (IRALE) bi hizkuntza eskakizun eta bi lanpostuetan eskatzen den hizkuntzaren gaineko azterketak prestatzen laguntzen dute.

Talde jakin batzuei zuzendutako kurtsoak ere badaude; esaterako, dendariendako, gurasoendako edo Interneteko erabiltzeendako. Azken urteotan bezala, etorkinei begira Aisa izeneko egitasmoa ere eskainiko dute; iaz, talde bat izan zuten.

**ORDUTEGI MALGUA**
Bestalde, Leintz euskaltegiak ordutegi eta egutegi malgua prestatu du. Eskolak astelehenetik egubakoitzera bitartean izango dira, goizean, arratsaldean eta gauean. Urte osoko ikastaroetan normalena da astero hamar ordu ematea eskoletan.

**AURREIKUSPENAK**
Leintz euskaltegikoek espero dute joan den urteko ikasle kopurua mantentzea eta, ahal izanez gero, igotzea. Horren harira, aipatu dute gaur egun bizi dugun krisi ekonomikoak eragina izan dezakeela matrikulazioan. Iaz, 126 ikasle izan zituzten guztira.

Edozein zalantza izan edo matrikulazioa egin nahi izanez gero, Aretxabaletan eta Eskoriatzan Leintz udal euskaltegiak dituen egoitzetara joan edo 943 79 21 68 telefono zenbakira deitzea baino ez dago.

DATUA

**126**

IKASLE

Aretxabaleta eta Eskoriatza batuta, Leintz udal euskaltegiak 126 ikasle izan zituen guztira joan den urtean, hamahiru taldetan banatuta.

> ESKORIATZA

### 65 urtetik gorako erretiratuendako hilaren 27an egingo den omenaldirako izenematea zabalik dago

Irailaren 27an, 65 urtetik gorako erretiratuei omenaldia egingo die Eskoriatzako Udalak. Ekimen horretarako izena eman gura dutenek irailaren 18ra arte izango dute aukera, 11:00etatik 12:30era, erretiratuen bulegoan. Prezioa sei euro da.

Egun horretan, besteak beste, meza nagusia, bazkaria eta dantzaldia izango dituzte herriko erretiratuek.

**ARETXABALETA** > LANAK

## Kirol etxe berriko lanetarako prestakuntzekin hasi dira

Asteon emango diote lanei hasiera ofiziala, akten sinatzearekin hain justu

**M.B.** > ARETXABALETA
Kirol etxe berrirako lanak hastear daude. Hirigintza teknikari Jose Mari Segoviak azaldu digu asteon aktak sinatuko dituztela. Kirol etxeko proiektuaren dimentsioak eta lurzoruak bat datozela baieztatzen duen dokumentua sinatzean datza hori. Modu horretan, eraikitze lanei hasiera ofiziala emango diete. Obraren zuzendaritzak, Udalak eta eraikuntza enpresak parte hartuko dute ekimen horretan.

**PASA DEN ASTELEHENETIK**
Hasiera ofiziala eman ez bazaie ere, dagoeneko lanean dabiltza han. Astelehenean ekin zioten langileek obrako etxetxoak jartzeari, oinezkoendako pasoak egokitzeari eta ingurunean dauden zuhaixkak mozteari, besteak beste.



Kirol etxea eraikiko den tokian lanean dihardute astelehena ezkero. MIRARI ALTUBE

IRIARTE
Umeen denda
•
Helduen lentzeria
Durana 8
Tel.: 943 79 10 96
ARETXABALETA

Hirusta
Jatetxea
Ilargi plaza 4
943 79 06 57
ARETXABALETA

LENIZ
ESKORIATZA
SUZUKI
Konponketak: Txapa, Margoa, Mekanika
Bigarren eskuko autoen salerosketa, inyektoreen konponketa eta I.A.T aurreko azterketa
Aingeru ibiltokia 31 • ESKORIATZA • Tel.: 943 71 50 61 • Faxa: 943 71 31 45



Pasa den urtean Antonio Gartziaren *Hayedo* izeneko lanak irabazi zuen Aramaioko saria. ZUIAKO KOADRILA

**ARAMAIO** > LEHIAKETA

# Zuiako Koadrilaren irudi lehiaketa gertu dago

Lanak urriaren 21a baino lehen aurkeztu beharko dira Zuiako Koadrilak Murgian duen egoitzan; lehiakide bakoitzak hiru lan aurkeztu ahalko ditu

**MIRIAN BITERI** > ARAMAIO

Dagoeneko iritsi da Zuiako Koadrilak urtero antolatzen duen klasikoetako bat: *Zuiako Koadrilari begirada bat* argazki lehiaketa. Horretan lanak aurkezteko azkeneko eguna urriaren 21a izango da.

Esandako ekimenean parte hartu gura dutenek *www.cuadrillazuia.com* webgunean aurkituko dituzte horren gaineko baldintzak; besteak beste, jakinarazten da nahi duten guztiek parte har dezaketela eta gaia librea dela. Horren harira, Koadrila osatzen duten sei udalerrietan ateratako irudiak eta arauak betetzen dituzten argazkiak aurkez daitezke; esaterako, ingurumen naturala, soziala eta artistikoa, eraikinak, ohiturak, ekitaldi kulturalak, jaiak, pertsonak eta bisita gidatuekin lotutako obrak.

**HIRU ARGAZKI GEHIENEZ**

Gehienez hiru argazki aurkeztu ahal izango ditu lehiakide bakoitzak, zuri-beltzean edo koloretan. Kalitateari dagokionez, argazkia digitala bada, tamainan gutxienez 300 puntu hazbeteko bereizmena izan behar du eta 20x15 zentimetroko gutxieneko neurria. Bestela, 18x24 zentimetroko tamainakoak izan behar dute eta 30x40 zentimetroko kartoi mehe baten gainean jarrita aurkeztu beharko dira.

Hiru sari egongo dira: irabazleak 400 euro eta Zuiako Koadrilako ostatu batean aste bukaera irabaziko du; bigarrenak, 300 euro; eta hirugarrenak, 200 euro. Sari horietaz gain, argazki bat aukeratuko da udalerri bakoitzeko eta 75 euroko saria emango zaio bakoitzari. Guztiek garaikurra jasoko dute.

Lanak astelehenetik egubakoitzera, 08:30etik 14:30etara Zuiako Koadrilaren egoitzan aurkez daitezke; posta bidez ere bidal daitezke. Zalantzaren bat izanez gero, 945 43 01 67 telefonora dei dezakete interesatuek.

**ANTZUOLA** > NEKAZARITZA EKOLOGIKOA

## Pikunieta Elkartea finalista izan da Ordiziako azokako gazta lehiaketa ezagunean

Iaz bigarren postua lortu zuten Ordiziako lehiaketan eta, ondorioz, bezeroek euren gazta erosteko ohiturari eutsi diote

**IRATI AGIRREAZALDEGI** > ANTZUOLA

Antzuola, Bergara, Azkoitia eta Zumarraga arteko mugan dagoen Pikunieta baserria egiten duten gaztarengatik da ezaguna. Gazta horiek lehiaketetara aurkeztu dituzten arren, gehienetan ez da zorterik izan.

Joan den eguaztenean, ordea, Ordiziako azoka entzutetsuko gazta lehiaketara aurkeztu zuten gazta eta 58 gaztaren artean finalerako sailkatu ziren eta seigarren postua eskuratu zuten. “Ordiziakoa lehiaketa garrantzitsua da eta oso pozik gaude”, esan digu Pikunieta Elkarteko Idoia Azkaratek. Bestalde, Bergarako San Martinetako azokan, gazta lehiaketan, laugarren izan dira aurten.

Pozik daude, bai, baina iazko bigarren postua hobea izan zen, noski. Idoia Azkarateren esanetan: “Gure gazta betiko bezeroek erosten dute, baina sumatu dugu iaz Ordizian bigarren postua lortu ostean, bezeroek gure gazta erosteko ohiturari eutsi egin diotela. Hortaz, aurten oso salmenta onak izan ditugu”.

**GAZTA EKOLOGIKOA**

Pikunietako gaztak badu berezitasun bat: ekologikoa da. Baina horrek ez dio eragozpenik sortzen beste gaztekin lehiatzeko. “Gazta bera ez da ezberdina, artaldea gobernatzeko modua baizik. Zelaietan ez dugu belar-pozoirik erabiltzen eta pentsu eta alpapa ekologikoa ematen diegu ardiei”, esan digu Idoia Azkaratek.

Pikunietako gazta probatu nahi dutenek Antzuolan Kalebarrengo dendan eros dezakete, edo baserrira deituta bestela.

**LEINTZ GATZAGA** > LANAK

# Santa Kolunbako ermitaren teilatua berrituta dago

Estatu fondoko dirulaguntzarekin egin dituzte lehen faseko lanok, hau da, teilatua konpontzea; ermita guztiz berritzeko beste fase bat behar du

**MIRARI ALTUBE** > LEINTZ GATZAGA

Bukatuta daude Santa Kolunba ermitako lanak. Teilatua konpontzea zen asmoa eta guztiz berritu diote ermitari.

Apirileko azken astean hasi zituzten lanok eta zortzi astetan bukatuta egongo zirela uste arren, atzeratu egin ziren. Teilatuari egitura berria egin diote eta horretarako behar zuten egurraren zain egon ziren hainbat astetan Eskoriatzako Razkin eraikuntza enpresako langileak. Behin egurra iritsita lanok laster bukatu zituzten, opor inguruan.

**BIGARREN FASEA EZIN**

Espainiako gobernuaren Estatu Fondoko dirulaguntzari esker egin dituzte lanok egoera eskasean zegoen ermitan. Dirulaguntza, baina, 44.000 eurokoa izan da, teilatua berritzeko adina. Ermita guztiz berritzeko bigarren fase bat egin beharko du Udalak. Eta hori egindakoan Santa Kolunba gatz museoaren harrera izatea da asmoa. Hala ere, horrek itxaron egin beharko du, Udalak zaila ikusten duelako agintaldi honetan dirua lortzea asmo horrekin aurrera egiteko.



Santa Kolunbako ermitaren teilatua guztiz berrituta. M.A.

**ELGETA** > KIROL FOROA

## Hilero elkartuko dira kirol eztabaida foroko kideak

Foroa irekia dela eta, herritar guztiei zabalik dagoela azpimarratu zuen Kirol zinegotziak

**LARRAITZ ZEBERIO**> ELGETA

Elgetako Udalak "denon artean" erabaki nahi du herriak zelakoa izan behar duen 10 urte barru. Hala, *Elgeta danon artian* egitasmoaren barruan hainbat eztabaida foro zabaldu-ko ditu. Herri partaidetza sustatzeko eztabaida foroak izango dira eta kirol foroa izan da martxan ipintzen lehenengoa.

**ZALANTZAK ARGITZEKO**

Zortzi lagun elkartu ziren eguaztenean kultura etxean egindako aurkezpen batzarrean, tartean Kirol teknikari Xabier Gabiña, pilota eskolako arduradun Juan Luis Ubera eta Elgetako zinegotzi eta Gipuzkoako Foru Aldundiko kiroletako zuzendari Iñaki Ugarteburu. Patxi Basauri eta Leire Basauri ere bertan izan ziren.

"Herritarren iritzia ezagutu eta elkarrekin etorkizuna eraikitzeko asmoa dugu", adierazi du Kirol zinegotzi Rebeka Uberak. "Honakoa lehenengo bilera bat izan da eta denborak esango du zer egingo dugun, nola eta noraino iritsiko garen".

Metodologia eta bilera dinamika finkatu dituzte, oraingoz. Hala, lantalde finkoa osatzea eta hilero bilera bat egitea erabaki dute. Herritarren parte-hartzea garrantzitsua dela azpimarratu zuen zinegotziak. "Kirolaren inguruko eztabaida foroa irekia da. Partaide berriak ongietorriak izango dira", esan zuen Uberak.



> **UDA**
Retuertoren zelaian irabazi du 3. Mailako lehenengo partidua > **22**



> **EZTALA**
Antzuolaren porrota Elgoibarrekin, zelai berriko estreinekoan > **24**



> **SAN MIGEL SARIA**
Caja Ruraleko Ioritz Urdangarin nagusi Oñatiko helmugan > **25**

# Markel Irizar eta Lance Armstrong: patuak batu ditu

Gutun bidez hasitako harremana, noizean behin elkar ikustetik ezkontzeraino

Talde berean egingo dute bat, bien bizitzak urteekin gerturatzen joan eta gero

Bi urterako hitzartu du oñatiarrak Radio Shackekin, Euskaltelen sei egin eta gero



Markel Irizar eta Lance Armstrong, urtarrilean Australiako Down Under itzulian, ihesaldi berean. GOIENKARIA

**JULEN IRIONDO** > BERGARA

"Bai, nahi dut". Horrela erantzun dio Markel Irizarrek Radio Shack-ek, Lance Armstrongen talde berria izango denak, eurengana batzeko egindako eskaintzari; bizimodu berri bila gurasoen etxea uzten duenak bezala: "Pozik nago, baina pena ere eman dit. Sei urte izan dira hemen eta lagun asko utziko ditut. Euskaltelek eman zidan profesional izateko aukera, eta esker on hitzak ditut eurendako". Halabeharrez elkarren ondoan amaitzera kondenaturik zeuden bi txirrindulariren bideen bat-egitea dirudi ondorengoak.

**URRUN HASI, HURBIL BUKATU**

Markel Irizarrek (Oñati, 1980) 13 urte besterik ez zituen eta oraindik ez zen bizikleta gainean lehiatzen 1993an Lance Armstrongek (AEB, 1971) Munduko txapelketa irabazi zuenean. Nork esan, orduan elkarrengandik hain urrun zeudenek horren gertu bukatu behar zutenik?

1996an hasi zen dena. Kadete mailan Lizarralde Kirolak taldearekin korritzen hasi zen Markel, hasiberri batek ohi duen ilusioarekin. Urte hartan zortzi garaipen lortu zituen Lance Armstrongek, baina urtean zehar batutako pozak kezka bihurtu ziren denboraldi amaieran. Barrabiletako minbizia antzeman zioten urrian. Bere kirol ibilbidea etengo zuen gisa horretako kolpea hartuta, amerikarrak dozenaka babes mezu jaso zituen. Oñatitik bidalitakoa zen bat, Markelena. Armstrongek eskertu egin zion gutuna, ziur aski mezua bidali zioten gainerakoekin egin zuen bezala. Ez zekien, baina, beste kasuetan ez bezala mutiko harenarekin hainbesteraino gurutzatu behar zuenik bere bizitzak.

ESANAK

**"Armstrongen kasua desberdina da: Munduko txapeldun zen gaixotu zenean; nirekin inork ez du konfiantzarik izango"**

**Markel Irizar** > 2002/11/18

Bakoitzak bere bidea jarraitu zuen, hala ere: Markelek kadeteetatik gazte mailara, eta gazte mailatik amateurretara; minbizia gainditu zuen Armstrongek, eta gaitzaren aurretik txirrindulari ona zena txapeldun handia bilakatu zen.

Jarraian irabazten zuen laugarren Tourra ospatzen ari zen Armstrong, urte batzuk lehenago hura gaixotu zuen gaitzak Markel hartu zuenean. 2002ko azaroa zen; GOITBri hauxe adierazi zion oñatiarrak: "Armstrongen kasua desberdina da: Munduko txapeldun zen gaixotu zenean. Nik askoz zailago izango ditut gauzak; nahiz eta gauzak ondo atera eta txirrindularitzara bueltatu, ez dut uste inork konfiantzarik edukiko duenik nigan". Ba bai. Armstrongek berak, eta aurretik Euskaltel-Euskadiko arduradunek ere bai.

ESANAK

**"Radio Shackera joatea erabaki dut bi urte direlako, den taldeagatik eta minbiziaren aurkako borrokan laguntzeko"**

**Markel Irizar** > 2009/09/11

Markelen gaitzaren berri izanda, Armstrongek eskuz idatzitako gutuna bidali zion, sendatuko zela esanez; horrela izan zen. 2004an, Oñatikoak Euskaltelekin debuta egin zuen urtean, lasterketa batean topo egin zuten biek, eta bere osasunagatik galdetu zion Armstrongek. Aurten izan dute elkar ikusteko beste aukera bat, urtarrilean, Australian korritzen ari zirela. Markelek eskerrak eman zizkion bere garaian emandako babesagatik.

Eta orain estatubatuarraren taldera joateko aukera sortu zaio. Baietz esan du: "Bi urte direlako; den taldeagatik eta beste txirrindularitza bat ezagutzeko aukera emango didalako; eta minbiziaren kontrako borrokan nire aletxoa jartzeko".

**3. MAILA** > HIRUGARREN JARDUNALDIA

# Partidua dominatu eta 3. Mailako lehen garaipena etxera

Lehenengo zatian sartu zituzten Aretxabaletakoen golak Imanol Rodriguezek eta Iban Vilak, eta bigarrenean ez zuten estutasun askorik izan

RETUERTO
**1-2**
ARETXABALETA

**JULEN IRIONDO** > BERGARA

Ligako hirugarren jardunaldian iritsi da Aretxabaletaren 3. Mailako aurreneko garaipena. Eurak moduan kategoria berrira aurten igotakoak diren Retuertoren zelaian izan zen. Domekako garaipenarekin denboraldi hasiera txukuna ari da egiten Igor Gorrdobilen eta Igor Arenatzaren taldea, eta are politagoa izango da datorren jardunaldian etxean aurreneko garaipena lortzen badu.

**HASIERA BIKAINA**

Antzerako egoeran zeuden bi talde lehiatu ziren domeka eguerdian. Retuertok eta Aretxabaletak, biek zuten puntu bana, lehenengo bi partiduetan bat berdindu eta bestea galduta.

Norgehiagoka oso ondo hasi zen debagoiendarrendako: 6. minutuan penaltia egin zioten Borja Luisi. Imanol Rodriguezek hartu zuen jaurtitzeko ardura, eta sareetara bidali zuen baloia.

Aretxabaletakoak nagusi ziren zelaian eta, nagusitasun horren ondorioz, 20. minutuan egin zuten bigarren gola. Arean solte geratu zen baloi bat aprobetxatu zuen Iban Vila eibartarrak.

Bigarren zatian saiatu zen Retuerto markagailuko aldea gutxitzen; apur bat estutu zuten Aretxabaleta, baina Gordobilen mutilek ere izan zuten aukera kontraerasoan partidua erabakita uzteko. Aretxabaletak ez zuen beste golik egin; Retuertok, ordea, bai berea. Baina orduarako berandu zen. Partidua luzapenean sartuta zegoen, eta ez zen gehiagorako astirik izan. Honenbestez, Aretxabaletak 3. Mailako ibilbideko aurreneko garaipena lortu zuen, etxetik kanpo gainera eta merezimendu osoz.

**ORAIN AMOREBIETA**

Debagoiendarrak datorren astebururan etxean irabazteko gai izango balira hasiera polita gauzatuko lukete. Baina ez da erraza izango, denboraldia bikain hasi duen taldeetako bat izango baita Ibarran: Amorebieta.

Bizkaitarrek nagusitasun handiz irabazi zioten (5-2) Portugaleteri etxean ligako aurrenekoan; bigarren jardunaldian hutsean berdindu zuten Amurrion, eta aste honetan ere erraz irabazi diote Aguraini (3-0).

ESANAK

**"Saiatu gara baloi denetara gogor joaten; 3. maila borroka da"**

**Igor Arenatza** > 2. entrenatzailea

**OHOREZKO MAILA** > LEHENENGO JARDUNALDIA

# Goiz hartutako aldeari eusten ez zuten asmatu oñatiarrek

Luze egin zitzaien partidua etxekoei; zazpigarren minutuan aurreratu ziren, baina bigarren zatian Ordiziak sortu zuen arrisku gehiago



Ordiziarren falta jaurtiketa lehenengo zatian; bigarrenean arrisku gehiago sortu zuten Goierrikoek. JOSETXO ARANTZABAL

ALOÑA MENDI
**1-1**
ORDIZIA

**Aloña Mendi** > Oier Zabaleta, Gorka Bernal, Endika Ruiz, Jon Igartua, Roberto Idigoras (Josu Juaristi), Aritz Garmendia (Mikel Sanchez), Mikel Palacios, Unai Arregi (Jon Astigarraga), Iñigo Arregi (Unai Moiua), Mikel Ibabe (Axibar Larrea) eta Iker Olalde.

**Ordizia** > Arsuaga, Ibet, Iker, Agirre, Luluaga, Luzarraga (Mujika), Sarasola (Ekain), Urreta, Sergio, Crespo eta Gisasola (Iruin).

**Golak** > 1-0, Roberto, 7. minutuan; 1-1, Mujika, 93. minutuan.

**JULEN IRIONDO** > OÑATI

Ekainean hildako Jose Luis Agirreren omenezko minutu bateko isilunearekin hasi zen Aloñaren eta Ordiziaren arteko partidua. Jose Luisi ligako lehenengo partiduko garaipena eskaintzea izango zen jokalarien gogoa, baina ez zen posible izan. Eta hori partiduak berehala hartu zuela oso itxura ona etxekoendako.

**ORDU ERDIZ NAGUSI**

Lehenengo ordu erdia oñatiarrena izan zen erabat. Baloia polito erabili zuten, ondo iritsi ziren gora eta zazpigarren minuturako egina zuten gola. Unai Arregiren erdiraketa bikaina ezker hegaletik eta Roberto Idigorasen burukada aparta. Baina, minutuak pasa ahala, nagusigoa galtzen joan zen etxeko taldea. Atsedenaldirako gutxi falta zela Jon Igartuak penaltia egin zuen, baina jaurtiketa hankekin atera zuen Oier Zabaleta atezainak. Lehen zatia amaitu baino lehen, aukera on bat izan zuen oraindik Aloñak; baina Palacios behartuta iritsi zen areako baloi solte batetara, eta atezainak kornerrera bota zuen.

Bigarren zatian ere berdinketaren bila saiatu zen Ordizia. Aukera gehiegi eta garbiegiak eduki gabe, baina Aloñak baino denbora gehiago egin zuen kontrarioaren area inguruan. Zenbait faltatan arriskua sortu ostean, izan ez zen baten ondorioz iritsi zen berdinketa, luzapenean.

Giza-hesian jo zuen baloiak eta, Aloña areatik ateratzen ari zela, ordiziarrek berriro jarri zuten lapikoan. Mujikak buruz egin zuen banakoa. Azkoagainen jokoz kanpo eskatu zuten askok. Pena, gol horren aurretik Unai Arregik etxekoen bigarrena egiteko aukera izan zuen-eta.

## emaitzak eta sailkapenak

### 3. MAILA

**Sailkapena**

| | Punt. | J. |
|---|---|---|
| 1. **Amorebieta** | **7** | 3 |
| 2. **Leioa** | **7** | 3 |
| 3. **Beasain** | **7** | 3 |
| 4. **Real Sociedad B** | **6** | 3 |
| 5. **Zalla** | **6** | 3 |
| 6. **Zamudio** | **5** | 3 |
| 7. **Amurrio** | **5** | 3 |
| **8. Durango** | **4** | 3 |
| 9. **Baskonia** | **4** | 3 |
| 10. **Aretxabaleta** | **4** | 3 |
| 11. **Arenas** | **4** | 3 |
| **12. Gernika** | **4** | 3 |
| 13. **Laudio** | **3** | 3 |
| 14. **Portugalete** | **3** | 3 |
| 15. **Elgoibar** | **3** | 3 |
| 16. **Agurain** | **3** | 3 |
| 17. **Lagun Onak** | **2** | 3 |
| 18. **Santurtzi** | **2** | 3 |
| 19. **Retuerto** | **1** | 3 |
| **20. Eibar B** | **1** | 3 |

**Emaitzak**

| | |
|---|---|
| Amorebieta-Agurain | 3-0 |
| Eibar B-Portugalete | 1-2 |
| Laudio-Baskonia | 2-0 |
| Lagun Onak-Leioa | 1-1 |
| Arenas-Elgoibar | 1-0 |
| Santurtzi-Zamudio | 1-3 |
| Retuerto-**Aretxabaleta** | 1-2 |
| R.Sociedad B-Amurrio | 0-2 |
| Zalla-Durango | 3-0 |
| Gernika-Beasain | 1-1 |

**Hurrengoak**

Beasain-Lagun Onak
Durango-Gernika
Baskonia-Zalla
Zamudio-Laudio
Elgoibar-Santurtzi
Portugalete-Arenas
Amurrio-Eibar
Agurain-R.Sociedad B
**Aretxabaleta**-Amorebieta
Leioa-Retuerto

### OHOREZKO MAILA

**Sailkapena**

| | Punt. | J. |
|---|---|---|
| 1. **Trintxerpe** | **3** | 1 |
| 2. **Pasaia** | **3** | 1 |
| 3. **Hondarribia** | **3** | 1 |
| 4. **Berio** | **3** | 1 |
| 5. **Ondarroa** | **3** | 1 |
| 6. **EHU** | **1** | 1 |
| **7. Tolosa** | **1** | 1 |
| 8. **Euskalduna** | **1** | 1 |
| 9. **Oiartzun** | **1** | 1 |
| 10. **Hernani** | **1** | 1 |
| **11. Bergara** | **1** | 1 |
| 12. **Ordizia** | **1** | 1 |
| 13. **Aloña Mendi** | **1** | 1 |
| 14. **Idiazabal** | **0** | 1 |
| 15. **Real Union** | **0** | 1 |
| 16. **Mondra** | **0** | 1 |
| 17. **Zarautz** | **0** | 1 |
| 18. **Beti Gazte** | **0** | 1 |

**Emaitzak**

| | |
|---|---|
| Pasaia-Real Union | 3-1 |
| Beti Gazte-Trintxerpe | 1-4 |
| Euskalduna-EHU | 2-2 |
| Ondarroa-Idiazabal | 1-0 |
| Berio-Zarautz | 2-0 |
| Aloña Mendi-Ordizia | 1-1 |
| Bergara-Hernani | 1-1 |
| Tolosa-Oiartzun | 2-2 |
| Hondarribia-Mondra | 2-0 |

**Hurrengoak**

Trintxerpe-Euskalduna
EHU-Ondarroa
Idiazabal-Berio
Zarautz-Aloña Mendi
Ordizia-Bergara
Hernani-Tolosa
Oiartzun-Hondarribia
Mondra-Pasaia
Real Union-Beti Gazte



Ateetan arriskua eragin zuten jokaldi gutxi gertatu ziren.

JOSETXO ARANTZABAL

**OHOREZKO MAILA** > LEHEN JARDUNALDIA

# Luzapeneko gol mingarri batek berdindu zuen partidu lasaia

Martin Ibañezek bigarren zati hasieran sartutako gola garaipenerako bermea izan zitekeen

Mahoneroentzat lasaia izan zitekeen partidua luzapeneko denboran okertu zen berdinketako golarekin

BERGARA
**1-1**
ALOÑA MENDI

**JON BEREZIBAR** > BERGARA

Epaileak piztutako ika-mikez salbu, gatzik eta piperrik gabeko partidua izan zena berdinketan amaitu zen azken unean, atzo arratsaldean, Agorrosinen. Emozio gutxiko neurketan, mahoneroentzat bigarren zatiko lehen minutuetan sartutako gola amaierara arteko berme nahikoa izango zela ematen zuen baina azken uneko susto batek, luzapeneko minutuetan, doi-doi, berdinketa ekarri zuen Agorrosingo zelaira. Korner baten bitartez egin zuten azken jokaldia hernaniarrek eta Bergarako atezainak ate barruan geratu zuen baloia. Berdinketarako gola, hain zuzen ere.

**AURKARIA EZIN PIZTU**

Emozio gutxi, baretasuna ez esatearren, gutxienez lehen zati osoari dagokionean. Bisitariak aurreko txapelketan bigarren geratuta etorri baziren ere, oporraldiko nagiak ezin aterata ibili ziren partiduan. Etxekoek askoz ere biziago ez zuten jardun baina erasora indar gehiagorekin atera ziren gehienetan eta atea defendatzen ere lan txukuna egin zuten gehienetan atzelariek. Emaitza makala, beraz, talde bakoitzak jokoan ipinitakoa kontuan hartuta. Bigarren zati horretan, gainera, bisitariak urduriago ibili ziren: bi txartel hori atera zizkieten ia bata bestearen ostean 20. minututik aurrera. Urduritasun horrek baina ez zituen oldarrarazi hernaniarrak. Azkeneko kornerrarengatik izan ez balitz erraz eskuratu ahal izango zuten etxekoek partidua atzokoan zalantza barik. Defentsa lanean ere txukun jardun zuten bergararrek, denboraldi hasiera izateko, baleko lana.

Aurkaria izan zen espero baino ahulago ibili zena. Zorte txar horrengatik – Bergarako atezainak bestela lan txukuna egin zuen – eta epaileek egindako lan eztabaidagarriarengatik mutur okerrak ikus zitezkeen bergarako jarraitzaileen artean harmailetan partidua amaitzerakoan eta epaileak txistuka agurtu zituzten. Kategorian berriak izanda ere, talderik sendoenaren aurrean ez kokiltzeko moduko lana egin zuten mahoneroek atzo baina zori makurra izan zuten luzapeneko denbora. Gol mingarria baina hasiera besterik ez da.

**OHOREZKO MAILA** > LEHEN JARDUNALDIA

# Kontrola Mondrak izanda ere hutsak garesti ordaindu zituzten

Zati bakoitzean sartutako gol banarekin irabazi zieten Hondarrabikoek Mondrakoei

"Kontzentrazioa eta taktiketan sakontzea" falta zaiela dio Azkargorta entrenatzaileak

HONDARRIBI
**2-0**
MONDRA

**JON BEREZIBAR** > ARRASATE

Partidu berdindua baina emaitza Arrasatekoen oso kontrara. Horixe atzo Mondrak Hondarribin jokatutako partidutik ateratakoa. Galdu arren, halere, Andoni Azkargorta entrenatzaileak "partiduaren kontrola" Arrasateko taldearena izan zela dio, bi momentu zehatzetan egin zituztela hutsegiteak eta horietan joan zitzaiela eskuetatik partidua.

Momentu zehatz horiek lehen eta bigarren zatietako lehen hamar minutuetan izan ziren. Zati bakoitzean gol bana sartu zieten etxekoek. "Jokaldi isolatuak izan ziren ze aukera asko ez zuten sortu baina asmatu egin zuten" eta horrela eskuratu zuen Hondarribiak partidua.

**TAKTIKAK LANTZEA**

Azkargortak argi dio taldeak ondo jardun zuela atzo arratsaldekoan. Denboraldiko lehen partidua izanda, taldea neurtzeko aukera ezin hobea da eta entrenatzaileak "lan asko" falta zaiela aitortu du: "Partidutik kanpo ibili gara zenbait unetan eta taktikoki falta batzuk egin ditugu". Horregatik dio aurretik lan sakona geratzen zaiela. "Taktikak garbi dauzkagu, hori ez da falta dena, baina horiek lantzeko lana egin behar dugu".

**KONTZENTRAZIOA**

Eta baita ere "Kontzentrazioa". Horiek Azkargortaren esanetan atzoko hutsegiteen gakoak: "kontzentrazio falta horrek partidua galtzea ekarri du". 2-0koa baina bada kontuan hartzeko moduko emaitza eta baita lanean sakontzeko arrazoi ere. Aurrez esandako guztia laburbiltzen du Azkargortak aurrera begira: "guk taktikak zeintzuk izan behar diren argi izatea da garrantzitsuena baina garbi izan behar dugu askoz ere gehiago kontzentratu beharra daukagula partiduetan".

## emaitzak

MAILAZ MAILA

| | |
|---|---|
| **PREFERENTE MAILA** | |
| Antzuola-Elgoibar | 0-2 |
| Lazkao-Aretxabaleta | 3-2 |
| **GAZTE MAILAKO LIGA NAZIONALA** | |
| Aretxabaleta-Athletic | 3-1 |
| **GAZTE MAILAKO EUSKADIKO LIGA** | |
| Antiguoko-Bergara | 1-0 |
| **GAZTEEN OHOREZKO MAILA** | |
| Mondra-Aloña Mendi | 1-6 |
| **KADETEEN OHOREZKO MAILA** | |
| Aretxabaleta Arizm.-Zarautz | 2-2 |
| Bergara-Lazkao | 8-1 |
| Ondarroa-Aloña Mendi | 2-1 |

Harmailatik

**Debagoieneko kirola GOITBn**

Astelehenero 22:15ean.

Goitb Goiena Telebista
Ikustekoa!




Antzuolako eta Elgoibarko jokalariak eta entrenatzaileak, Gipuzkoako Futbol Federazioko eta Udaleko ordezkariekin eta orain arteko AKEko futbol saileko hainbat presidenterekin. JOSETXO ARANTZABAL

**FUTBOLA** > BELAR ARTIFIZIALEZKO ANTZUOLAKO ZELAIA

# Ligako belar gaineko lehen partidua galdu egin dute etxekoek

Orain arte Antzuola Kirol Elkarteko futbol saileko presidente izan direnek eta Gipuzkoako Futbol Federazioko presidenteak oroigarri bana jaso zuten



Ormaetxea, Fernandez, Larrea, Madariaga, Iturbe eta Garmendia. JOSETXO ARANTZABAL

IRATI AGIRREAZALDEGI > ANTZUOLA

Antzuolako futbol zelaia berdez jantzi dute eta zapatuan berdez ez ezik galaz ere jantzi zen ligari ongietorria emateaz gain, belar artifizialezko Eztalako zelai berritua inauguratzeko.

Eguerdian hasi ziren ospakizunak, inaugurazio ofizialaren aurretik. Izan ere, jokalariek ez ezik zaleek ere zeresan handia dute futbol taldeetan. Hortaz, herritar talde batek bazkaria egin zuen Eztalan. "Ni partidu guztietara etortzen naiz, baina gaurkoa berezia da eta giro polita sortu da gure artean", esan zigun Begoña Egaña taldearen jarraitzaileak.

**PRESIDENTEEI ESKER ONA**

Elgoibarren aurkako ligako lehen partiduaren aurretik, ekitaldi berezia egin zuten zelai erdian. Futbol sailaren sorreratik presidente izan direnek oroigarri bana jaso zuten. Lau izan dira guztira: Imanol Garmendia, Tomas Ormaetxea, Koldo Madariaga (kanpoan zenez Gurutz anaiak jaso zuen oroigarria eta baita ohorezko sakea egin ere) eta Felix Alonso, ekitaldian egoterik izan ez zuena.

Gurutz Madariaga pozik zen zapatuan: "Orain dela 22 urte sortu genuen anaia Koldok eta biok futbol saila eta gaurko ekitaldia eta ohorezko sakea egitea berezia izan da niretzat".

Gaur egungo presidente Jose Angel Fernandezen esanetan, "zelaiaren inaugurazioa aitzakia polita izan da taldearen alde lanean jardun dutenei merezitako errekonozimendua emateko".

**FEDERAZIOAREN LAGUNTZA**

Presidente ohiek ez ezik Juan Luis Larrea Gipuzkoako Futbol Federazioko presidenteak ere jaso zuen oroigarria Pedro Iturbe alkatearen eskutik eta honek AKEren eta Udalaren partetik Federazioari zelaia berritzeko eman duten laguntza eta egindako ahalegina eskertu zituen.

Juan Luis Larrea ere pozik zen zelaiarekin: "Laguntza eman dugu zelaia berritzeko eta herriak bazuen beharra. Gainera oso ondo geratu da. Taldea ere ondo ikusten dut eta orain belarrik eza ez da behintzat aitzakia izango".

Larreak ez ezik gainontzekoek ere begi onez ikusten dute taldea. "Ilusioz beteta gaude. Orain arte aurre denboraldian ondo jardun dugu eta gogoz gaude ligan buru-belarri sartzeko. Lan ona egiten saiatuko gara", esan zigun Iban Unanue entrenatzaileak.

Begoña Egaña Antzuolako taldearen zaleak ere oso ondo ikusten du taldea. "Aurten behar baino jende gehiago daukagu eta oso onak gainera. Aurreko denboraldia uste baino hobeto amaitu genuen eta aurten ere gure taldeko mutilek ondo jardungo duten esperantza dugu".

**BI GOL ELGOIBARTARREK**

Zelai berriaren inaugurazioko partidua irabazteko gogoz atera ziren zelaira antzuolarrak, baina ez zuten lortu Eztalako zaleei poz hori ematerik. 0 eta 2ko emaitzarekin galdu zuten partidua.

Lehenengo zatian antzuolarrei jaurtiketa bat langara joan zitzaien eta beste bat zutoinera. Ez zuten aukerak aprobetxatzen asmatu eta atsedenaldira husnako berdinketarekin ailegatu ziren. Bigarren zatiaren hasieran elgoibartarrek lehen gola sartu zuten eta etxekoek hainbat aukera ez zituzten aprobetxatu.

Jose Angel Fernandezek partidu amaieran esan zigunez, "gure ustez sartu den gola arbitroak badirudi ez duela ikusi eta ez du ontzat eman".

Elgoibartarrek bigarren gola sartu zuten partidua amaitzeko hamar minutu inguru falta zirenean eta nagusi izan ziren.

Hurrengo bi partiduak etxetik kanpora izan arren, zelaiari ez diote atsedenik emango.

Zapore gazi-gozoa utzi zien antzuolarrei ligako lehen partiduak. Zelai berria inauguratzearen pozak eta galtzearen penak bat egin zuten amaieran.

## ZER MODUZ IKUSTEN DUZUE FUTBOL ZELAIA BERRITUTA?



**Begoña Egaña**
Zalea

"Futbol zelai berria zoragarria da, baina zaleok ikusi diogu zerbait faltan. Aterpetxo bat falta zaiola uste dugu. Ez ditugu harmailak eskatzen, baina zaleendako aterpe bat ez legoke gaizki".



**Gurutz Madariaga**
Futbol sailaren sortzailea

"Zelai berria Camp Nouren parekoa da niretzat. Honek emango digu gaztetxoekin eskola sortzeko eta lehen futbolean ibilitakook ere ea zelai berrian jokatzeko aukerarik dugun".



**Iban Unanue**
Entrenatzailea

"Hartxintxarrezkoarekin alderatuta oso ezberdina da. Entrenatzeko aldaketa handia da, baina gustura eta erosoago gaude. Ohitu beharko gara zelai honetara, baloia gehiago dominatzea eskatzen du-eta".



**Jose Angel Fernandez**
Futbol saileko presidentea

"Zelaiarena ia ezin sinetsita gaude. Denbora luzez egon gara zain eta orain gozatzea dagokigu. Gainera zelai berriak izan du zeresanik kanpoko taldeetan zebiltzan antzuolarrak bueltatzeko".



**Juan Luis Larrea**
Federazioko presidentea

"Denbora asko itxoiten egon arren, zelaia oso ondo geratu da eta merezi izan du. Aurrekoa ezagutzen nuen eta oraindik bada egoera okerragoan dagoenik. Horiek berritzen ere lagunduko dugu".

**GAZTE MAILA** > SAN MIGEL SARIA

# Caja Rural taldeko Ioritz Urdangarin garaile, azken txanpan erasoa jota

Aurten 50. edizioa betetzen zuen proba Zubillagatik helmugara bitartean erabaki zen; irabazleak ez zituen segundo asko hartu, baina eutsi egin zion


Caja Ruraleko Ioritz Urdangarin bakarrik sartu zen Olakuako helmugan. JOSETXO ARANTZABAL

**JULEN IRIONDO** > OÑATI

Zapatuan jokatu zen Oñatin L. San Migel sariketa, gazte mailako txirrindulariendako lasterketa. Ibilbidea 76 kilometrokoa izan zen: Olakua auzoan hasi, Osintxutik joan-etorria egin, Udana eta Deskarga mendateak igo eta Bergaratik bueltan Olakuako helmugara.

Oñatiko lasterketan agerian geratu zen denboraldia azken zatian sartuta dela. Txirrindulari gutxik eman zuten izena –64k besterik ez–, eta amaitu are gutxiagok egin zuten –28k–, urte osoan pilatutako nekea nabaritu egiten da eta denboraldi amaiera honetan.

Garaipena jokoan izan zuen taldetxoa sortu aurretik, beste ihesaldi bat egon zen lasterketa buruan. Dozena bat lagun ziren, eta minutu pasako aldea izan zuten. Baina Udanan gora tropelak bat egin zuen aurrekoekin. Deskarga igota, Zubillagatik pasatu ondoren erabaki zen lasterketa. Caja Ruraleko Ioritz Urdangarinek erasoa jo zuen eta inork ez zion jarraitu.

### sailkapena

| L. SAN MIGEL SARIA | |
|---|---|
| 1. Ioritz Urdangarin (C.Rural) | 1:56:31 |
| 2. Mikel Eguren (Oriako) | 8ra |
| 3. Jon Odriozola (Bruesa) | d.b.* |

| MENDIKO SARIA |
|---|
| 1. Ibai Daboz (Bruesa) |

| TALDEKAKO SARIA |
|---|
| 1. Azetxe |

* Denbora berdina

Segundo gutxi batzuk baino ez zituen hartu Urdangarinek. Atzetik zuen taldetxoak begi-bistan izan zuen denbora gehienean, baina eutsi egin zion errentari, Olakuako helmugan bakarrik sartuaz.

Datorren asteburuan, berriz, amateur mailako lasterketak izango ditugu Debagoienean. Zapatu goizean jokatuko da Oñati sariaren 22. edizioa, Lehendakari txapelketarako baliagarria. 115 kilometroko ibilbidea egin beharko dute txirrindulariek. Domekan, berriz, Bergaran izango da hitzordua.



**ESKUBALOIA** > JESUS MARIA HERRERO 'PITXI'-REN OROIMENEZKOA

# Lehenengo mailako Arrateri irabazteko puntuan egon da Ford Mugarri finalean

Arrasatearrak txapeldunorde izan ziren azkenean, gol bakarragatik galduta

Oso partidu parekatua izan zen, eta azken unean berdintzeko aukera ere izan zuten




Ford Mugarri Arrasatek Barakaldori irabazita lortu zuen finalerako txartela. J.A.

**JULEN IRIONDO** > ARRASATE

Ford Mugarri Arrasatek eta Eibarko Arratek jokatu zuten domekan Jesus Maria Herrero *Pitxi*ren oroimenezko txapelketaren bosgarren edizioko finala. Denboraldi honetan kategoria desberdinetan jokatuko dute bi taldeek –arrasatearrek 2. mailan eta eibartarrek maila bat gorago–, baina kantxan ez zen alde hori nabaritu, eta azken unean eta gol bakarreko aldearekin irabazi zion Arratek Ford Mugarriri.

Oso partidu parekatua izan zen, eta ikusteko oso polita, jokoagatik eta emozioagatik. Oso erritmo altuan jokatu zuten bi taldeek. Arrasatekoek gustuko dute kontraerasoan jokatzea, eta era horretan batere gaizki ez direla moldatzen erakutsi zuten Eibarkoek ere.

Defentsan egitura desberdinak erabili zituzten bi taldeek. 6-0arekin jokatu zuen etxeko taldeak, eta 3-2-1 defentsa zabalarekin kanpokoek; baina bien helburua bera, baloia lapurtu eta azkar irtetea kontrarioaren atearen bila.

#### LEHENENGO ZATIAN AURRETIK

Lehenengo zatian hiruzpalau goleko aldea ere izan zuen Ford Mugarrik eta, bi minutuko kaleratzeek kalte apur bat egin arren, errenta txiki batekin iritsi ziren arrasatearrak atsedenaldira.

Bigarren zatian are alde txikiagoak izan ziren markagailuan. Partidua berdinduta iritsi zen amaierara: bi minutu pasatxo falta zirela erasoan ari zen Arrate, eta defentsan Arrasate. Epaileek bi minuturako egotzi zuten etxeko jokalari bat, eta baloi jabetza horretan bertan berdinketa hausteko gola egin zuten kanpokoek.

Partidua amaitu bitartekoak jokalari bat gutxiagorekin egin behar izan zituen Ford Mugarrik, eta hala ere eskura izan zuen berdinketa. Partiduko azkeneko jokaldian baloia atera jaurtitzea lortu zuten arrasatearrek, baina Eibarko atezainak geratu zuen. 30 eta 31 amaitu zen.

Txapelketa Barakaldok amaitu zuen hirugarren, Anaitasunari 28 eta 24 irabazita. Finalerdietan Arratek 42 eta 23 irabazi zion Anaitasunari, eta Ford Mugarrik 28 eta 21 hartu zuen mendean Barakaldo.

### Lehenengo bostetan egoteko moduan

Edu Orgaz Ford Mugarri Arrasateko entrenatzailea gustura da bere taldea aurredenboraldian egiten ari den lanarekin. "Fisikoki ondo" ikusten du taldea, izan ere abuztuko hirugarren asterako hasi zituzten entrenamenduak. Dio asteburuko partiduetan taldeak igarri duela lan karga, baina orain egindako lana oso baliagarria izango da denboraldirako.

Iaztik, ona taldea indartu egin dela uste du Orgazek: Kepa Isasmendi eta Ekaitz Aranburuzabala taldera itzuli dira, eta gazte mailako bi jokalari eta bigarren taldeko bat ere nagusiekin ari dira entrenatzen.

Denboraldia aurrera joan ahal ikusiko da azkenean non egoteko gai den Ford Mugarri Arrasate, baina Edu Orgazek "iazkoa hobetzea" nahi du behintzat. Lehenengo bostetan egotea polita litzatekeela dio entrenatzaileak.

**MENDIKO BIZIKLETA** > XX. OÑATI-OÑATI ZEHARKALDIA

# Samalbideko pagadiko jaitsierak liluratu zituen parte hartzaileak

265 lagunek eman zuten izena proban parte hartzeko, bertakoez gain kanpoko askok

Inork ez zuen minik hartu, eta ibilbidearen edertasuna azpimarratu zuten txirrindulariek



Paraje ederrak zeharkatu zituzten zeharkaldian. J.A.



Araotz inguruan ibili ziren denbora dezentean. J.A.

**JULEN IRIONDO** > OÑATI

Tradizio askoko zeharkaldia da Oñatikoa, inguruko zaharrenetakoa, eta handia da mendiko bizikleta zaleen artean duen sona ere. Domekako edizioa hogeigarrena izan zen, eta 265 lagunek eman zuten izena bertan parte hartzeko. Hala ere, antolakuntzako kideen arabera, dezente gehiago izan ziren parte hartu zutenak, ondo egon ez arren, hainbatek izena eman gabe korritzen ei du-eta.

Aurtengorako, bi ibilbide prestatu zituzten: 45 kilometrokoa luzea, eta 30ekoa motza. Gehienek luzea egin zuten, baina hainbat gaztetxo ere baziren irteeran, eta hauetako askok motzaren aldeko hautua egin zuten.

Ibilbidea hau izan zen: Zubikoa, Urrutxu, Bakue, Urrexola, Araotz, Samalbide, Lurgorrita, Mikeletetxe, Arrikrutz, Urtiagain, Lamiategi eta Zubikoa. Ibilbidea bidezidor zabalek osatzen zuten batez ere. Jendea oso gustura geratu zen ibilbidearekin; gehien Samalbideko jaitsiera gustatu zitzaien: pagadi batean behera, jauzi txiki eta guzti.

Eguraldia lagun izan zuten parte-hartzaileek, eta lokatzik ia ez zuten izan bidean. Eroriko larririk ere ez zen izan, eta inork ez zuen minik hartu. Proba egin ostean hamarretako ederra zuten zain txirrindulariek, patata tortilla eta txorizo egosi eta guzti.

**Iker Elorza** > AMPO Ordizia Errugbi elkarteko jokalaria

# "Behin joanda, zenbat eta urrutirago, hobeto... Zeelanda Berrira!"

JOKIN BEREZIARTUA > ARRASATE

**12 urte luze pasa dira egun Debagoieneko errugbi jokalari entzutetsuena den Iker Elorzak (Arrasate, 1984) Arrasate Rugbi taldean lehen partidua jokatu zuenetik. Ordutik etengabe joan da hazten, eta iaz denboraldi bikaina egin zuen AMPO Ordiziarekin. Horrek Basque Korsarioak selekzioan sartzeko aukera eman zion, eta hor ere bere maila erakutsi zuen. Horretaz guztiaz, eta batez ere neskalagunarekin Zeelanda Berrian pasako duen denboraldiaz egin dugu berba berarekin.**

**Zertara zoaz, bada, Zeelanda Berriraino? Zein da bidaiaren helburua?**

Helburu nagusia bestelako esperientzia bat bizitzea da. Neskalagunak aspaldi gura zuen bidaia bat egitea. Baita nik ere, baina ahal bazen behintzat ez nuen errugbia utzi nahi.

**Ezin errugbia alde batera utzi... Nola lortu duzu Zeelanda Berriko talde baten sartzea?**

Bidaia egiteko baldintza garrantzitsua zen errugbia, eta beraz, Interneten hasi nintzen begira. Errugbi jokalariei zuzendutako webgune baten sartu [*www.opportunityrugby.com*] eta Zeelanda Berriko Marton taldearekin jarri nintzen harremanetan. Bertan nire ibilbidea eta azken denboraldietan egin ditudan datuak –entseguak, batez ere– jarri nituen. Badakit beste jokalari batzuk euren bideoak eta bestelako materiala bidaltzen dutela, baina nik ez dakit hori egiten [barreak]...

Bestalde, Eskozia edo Irlandara joateko aukera zegoen, baina behin joanda, gero eta urrutirago joan, hobeto. Eskozia eta Irlanda hor daude eta bertara joatea ere esperientzia polita izango zen arren, joan naiteke aurrerago.

Marton taldekoak, gainera, jokalari bila zeuden eta nire ibilbidea ezagutu ostean oso interesatuta agertu ziren proposamenarekin. Hala, neskalagunari galdetu eta baiezkoa eman zidan.

**Hala ere, Marton ez omen da aukera bakarra...**

Ez, Ordiziako entrenatzailea Zeelanda Berrikoa da [orain urte bi iritsi zen Ordiziara] eta oso ideia polita iruditu zitzaion ni Zeelanda Berrira joatea. Horrez gain, Marton baino hobea den talde bat lortzen saiatuko dela esan zidan. Hala balitz, eurekin egon beharko nintzateke lehenago. Aukera horrek huts egingo balu Marton taldean jokatuko nuke.

**Noiz zoaz? Eta, noiz arte?**

Bidaiaren hainbat kontu zehazteke daude... Zeelanda Berrira joan aurretik oporraldia egingo dugu Asia ekialdean.

**"Errugbi jokalariei zuzendutako webgune batean sartu eta Marton taldearekin jarri nintzen harremanetan; interes handia erakutsi zuten"**




Iker Elorza errugbi jokalari arrasatearra, joan den eguen arratsaldean. JOKIN BEREZIARTUA

## Oraingoz, Zeelanda Berriko Marton Errugbi taldera doa

Zeelanda Berriko bigarren mailan dago Marton errugbi taldea. Bigarren mailaren gainetik daude: Lehen maila, Konderrien liga –hemen Espainia barruko selekzioen arteko liga-edo litzateke– eta Super 14a –Zeelanda Berria, Australia eta Hegoafrikako talde onenek osatua–. Baina Elorzak dioenez, "maila altuagoa dago han, eta asko ikasiko dut bertan".

Hala ere, Ordiziako entrenatzailea Zeelanda Berrikoa da eta bere oniritzia emateaz gain, maila altuagoa duen talde bat lortzen saiatuko da Elorzarendako.




Aldaketarik ezean, Zeelanda Berriko bigarren mailan jokatuko du Iker Elorzak. J.B.

Arrasatetik urtarrilean irten behar dugunez, Zeelanda Berrira otsail amaieran-edo helduko ginateke. Noiz arte goazen ez dakigu, baina gutxienez abuztu amaiera arte Zeelanda Berrian egongo gara, errugbi denboraldia han amaituko dut. Gero ikusiko da...

**Zeelanda Berrira joan aurretik, baina, Ordizian jarraituko duzu. Egin dezagun atzera begiradatxoa. Nola joan zen pasa den denboraldia?**

Emaitzei dagokienez, ondo joan ziren gauzak. Helburua bete genuen, hots, maila mantendu genuen.

Hala ere, Ordizian gero eta atzerritar gehiago dabil sartzen etxeko jendearen kalterako. Atzerritarrei lehentasuna ematen ari zaie, eta hori, nire ustez, ez da ona. Gazteei aukera eman behar zaie, taldearen oinarriak urte gutxi batzuk barru aldaketa behar duelako.

**Eta denboraldia amaitzean Basque Korsarioak selekziorako deitu zizuten. Nolako esperientzia izan zen hura?**

Oso ona. Aukera izanez gero, berriro joango nintzateke. Oso denboraldi luzea izan zen iazkoa, abuztutik uztail hasiera arte lehiatu nintzen. Edozelan ere, liga izan zen luzea egin zitzaidana, eta ez korsarioen txapelketa.

Txapelketa hartan, diru dezente kobratzeaz gain, hegazkinez bidaiatzen genuen. Eta oso ezberdina da psikologikoki autobusean edo hegazkinean bidaiatu behar duzula jakitea. Batean zortzi orduko bidaia dena ordubetekoa da bestean, eta horrek ez du zerikusirik.

Gainera, aurrez hainbat jokalari bistaz ezagutzen nituen arren, horiek ezagutzeko aukera izan nuen. Eta baita hainbat jokalari berri ezagutzeko ere.

**Behin atzera eginda, goazen atzeraino. 12 urte inguruko ibilbidea da zurea. Zein izan zen ibilbide luze horretako unerik gogoangarriena?**

Ordiziara heldu nintzen denboraldian Lehen mailara igo ginen. Herriaren erantzuna izugarria izan zen, 2.000 pertsona inguru gerturatu ziren partidu erabakigarria ikustera. Egun hartan Ordizia Errugbi elkarteak historia egin zuen, eta asko gogobetetzen du Ordiziako taldearen historian parte hartu izanak.

**Eta unerik gogorrena, noiz?**

Ordiziara joan aurretik, lesio batengatik hiru hilabetez geldi egon nintzenean. Errugbiak sakrifizioa eskatzen du, gogorra da, baina niretzako alde on gehiago ditu txarrak baino. Noski, bestela ez nuen jarraituko.

**"Ordiziako taldean etxeko gazteek aukera gehiago behar dituzte, oinarriak urte gutxi batzuk barru aldaketa beharko duelako"**

**Rafael Cristobal** > Ume psikiatrian aditua

# "Umearen lehen bi urteak garrantzitsuak dira nortasunerako"




Rafael Cristobal doktorea Arizmendiko ferixalekuko eraikinean. O.E.

OIHANA ELORTZA > ARRASATE

**_Guraso izatea gaur_ mintegia antolatu du Arizmendi ikastolak. Helburua da gurasoei aditzera ematea pertsonaren nortasun emozional eta kognitiboaren oinarri eta funtsak bizitzaren lehen bi urteetan eraikitzen direla. Rafael Cristobal doktorea da mintegiaren zuzendaria.**

**Hain garrantzitsuak dira umearen lehen bi urteak?**

Bai. Bost urte dituenerako, pertsonaren egitura finkatuta du umeak, eta lehen bi urteak bereziki zaindu behar dira. Horregatik, haurdun dauden eta 18 hilabete bitarteko umeak dituzten gurasoendako da mintegia.

**Gurasoek laguntza behar dutelako antolatu duzue mintegia?**

Normalean guraso biek egiten dute etxetik kanpo lana eta denborak hautsi egin dira. Bestalde, mundua ere aldatu egin da, ohiturak aldatu egin dira, eta gainera, bukatzeko, orain lehen baino gehiago dakigu umearen heziketaz.

**Lehengoak ez du balio?**

Orain arte jarrera bertikala aplikatu da: gurasoek agindu eta umeak obeditu. Gainera, umea beti egon da susmopean: hau eginez gero horrelakoa izango da umea, bestea eginez, berriz, bestelakoa... Eta gaur egun Europa guztian dagoen gazteriaren iraultzan ikusten ditugu horren ondorioak.

**Hemendik aurrera, beraz...**

Lehengo ohitura onak hartu eta gauza berriak sartu. Mintegi honetan saiatuko gara gurasoek dituzten galderei erantzuten. Adibidez, ona da besoetan hartzea edo ez, negar eginez ikasiko du lo egiten edo ohetik altxatu behar naiz umeak gauean negar egiten duen aldiro, kapritxo guztiak eman behar zaizkie edo ez, gura dituzun programak sartzen diozun ordenagailu bat da haurra edo badu egitura bat eta hori landu behar da?

**Umeak dioena ulertzen lagunduko du mintegiak?**

Saiatuko gara haurraren seinaleak interpretatzen, ulertzen. Bere negarrak zer esan gura duen, adibidez. Ikastetxearen hezkuntza sistemarekin bat egin eta guztia nola koordinatu ere landuko dugu.

**Gurasoek laguntza behar dute, bai, baina etxera nekatuta helduz gero, ez dugu pazientziarik ez umearen seinale horiek entzuteko ezta entzun eta irakurri duguna aplikatzeko ere. Berehalako irtenbideak behar ditugu, errazak.**

Irizpideak izatea da garrantzitsua. Azkenean ahal duguna egingo dugu guztiok, baina oso garrantzitsua da ideiak argi izatea eta irizpideak jarraitzea.

**Askotan denbora ere falta zaigu umeekin egoteko.**

Denboraren arazoa denok dugu, bai, eta gizarte politikak bultzatu behar dira, duda barik.

Gaur egun, familia ez dago batere ondo. Nerabezaroan, gazte askok apurtu egiten dituzte harremanak gurasoekin, nahiz eta etxe beran bizi. Ikastetxeetan ere irakasleen aurka egiten dute. Berriro diot: umeak txikitatik zaindu behar dira, landareak bezala. Bestalde, garrantzitsua da ikastetxea ere ona izatea, prestatuta egotea, gurasoak lasai joan daitezen lanera, umea esku onetan uzten dutenaz ziur.

**Bikotearen harremana ere aldatu egiten da sarri ume bat heltzean.**

Gurasoak nekatuta daude, abiadura handian bizi garelako. Elkar ulertzea ezinbestekoa da. Hala ere, ez ahaztu haurra zaintzea zaintzaileak zaintzea ere badela.

***Duermete niño* edo *Besame mucho*. Teoria bi horien artean eztabaidatzen dugu guraso berri askok. Nori kasu egin?**

Uste dut *Duermete niño* teoria arriskutsua dela. Gurasoei komeni zaie umeak gauean lo egitea, eta *Duermete niño* aplikatuz posible da gura den emaitza lortzea epe motzera. Baina epe luzera pertsona hori hotza izango da, distantzia jarriko du bere harremanetan eta gurasoekiko jarreran. Gogoratuko da gurasoen beharra izan zuenean ez zuela euren laguntzarik jaso. Hala ere teoria hori ondo erabili daiteke. Esaterako, sehaskako kantuekin lo hartzeko ohitura hartzea umeak, hori *Duermete niño* korrontea ondo aplikatzea da.

Bestalde, munduko kultura askotan, eta urte luzez, haurra amaren gainean egon da beti, beste ume bat etorri arte, Ekuadorren bezala. Han inork ez ei zuen lo egiteko arazorik. Umea kontaktuan egoteko jaio da, beharrezkoa zaio kontaktua.

**Jarraipena izango du mintegi honek?**

Bai. Adinaren araberako esparru gehiago finkatuko ditugu, beste hiruzpalau esparru, gutxi gorabehera, eta mintegi honekin batera berriak emango ditugu datozen urteetan.

**"Arriskutsua iruditzen zait 'duermete niño' teoria; epe luzeko emaitzak ez dira onak"**

**"Mintegian saiatuko gara umearen seinaleak interpretatzen ikasten, umeak dioena ulertzen"**

**"Kultura askotan umea amaren gainean egon da beti, umea kontaktuan egoteko jaio da-eta"**



Bi ume elkarrekin jolasten kalean. ELENA GIMENO

**PSIKOLOGIA** > IKASTURTE BERRIA

## Umeen agenda ere beteta egoten da

Ingelesa, dantza, musika ... Zerk bultzatzen du gurasoa haurra horrenbeste gauzetan sartzea?

O.E. > ARRASATE

Ikasturte berriarekin batera, eskolako orduaz gain, eskolaz kanpoko ekintzak ere izaten dituzte haurrek euren agendetan: informatika, musika, hizkuntzaren bat... Itziar Bartolome psikologoaren iritziz, bi arrazoi nagusi hauengatik apuntatzen dituzte haurrak gurasoek horrenbeste ekintzetara: "Gurasoek haurraren zaintzaz arduratzeko gero eta denbora gutxiago dutela eta haurra kalean uztea baino nahiago dutela ekintza formatibo baten txertatzea, etorkizunerako armak har ditzan". Hala ere, haurraren askatasuna beti ez dela errespetatzen dio Bartolomek. "Ikasturteko ajenda egiterakoan, gure beharrei erreparatzeaz gain, haurraren beharrak zeintzuk diren kontutan hartzea komeni da. Haurraren agenda betetzeak, ez du inolaz ere suposatzen gehiago ikasiko duenik, eta are gutxiago, zoriontsua izango denik", dio psikologoak.

Testu hauek osorik irakurtzeko eta erantzuteko,
**zatoz gure webgunera**
guraso.com



**> PUNK-ROCK**
Bouncing Souls eta Secret Army taldeek kontzertu bizia egin zuten > 32



**> AKUSTIKOA**
Kulturate akustikoa izenpean, bi kontzertu borobil, Arrasaten > 33



**> RUPER ORDORIKA**
Oñatiarrak 'Haizea garizumakoa' diskoa kaleratuko du azaroan > 33

# Fanfarre sinfonikoa, kolpatzeko eta zanpatzeko

**'LUZ INTERNA'**
Lan berria aurkeztu zuen zapatuan Tirri-Tarra fanfarreak

**SINFONIKOA**
Orkestra gehi abesbatza: emaitza uzkurtzekoa da

**ORFEOIA**
Bergarako orfeoia batu zitzaion Aritzeta abesbatzari. Bikain



Guztiak batera, emaitza ikusgarria. JOSETXO ARANTZABAL

**NON:** Bergarako pilotalekuan.
**EGUNA:** Zapatua, irailak 12.
**ZENBAT JENDE:** 200 lagun inguru.
**IRAUPENA:** Bi ordu.

JON BEREZIBAR > BERGARA

Ikus-entzulea uzkurtuta uzteko osagai guztiak ditu Tirri-Tarra fanfanfarreak: metal talde indartsua, 45 ahots ikaragarri (Bergarako orfeoia eta Aritzeta abesbatza) eta orkestra (Soto Vocce). Emaitza, espero zitekeen moduan, sinfonikoa izan zen, handia, kokiltzekoa eta elementu horiek guztia uztarteko ahalegina, txalogarria.

Horrenbeste osagairekin ikuskizuna efektiboa ez izatea ia ezinezkoa da, baina entsaladetan moduan, konbinazioan dago gakoa eta baita ere gustuetan. Abesbatza, fanfarrea eta orkestra batzeak ere badu beste abantaila bat eta da ikuslea ere edozein motatakoa izan daitekeela. Klasikoenek abesbatza eta orkestrarekin goza dezakete, musika arinagoaren zaleak fanfarrearen erritmo itsaskorrarekin geratuko dira eta *Luz interna*-k hainbeste pasarte eta horren ezberdinak aurkezten ditu, ezen edozein musikazale bi orduz aulkian egon daitekeela, kexatzeke. Frontoia, noski, bete egin zen zapatuan eta amaieran ikusleak ere pozik eta ikuskizunaren pasarterik indartsuenak komentatuz. Ahotsek, orkestrak eta fanfarreak bat egiten zutenean belarriak ireki eta ahoak automatikoki zabaltzen ziren. Amaierako txalo zaparrada ere harridura horren tamainakoak izan zen.



Sergio Zurututza. J.A.



Fanfarreko kide bi. J.A.



Bergarako orfeoia. J.A.

**IKUSKIZUNA**

Kronikan entzundakoari ikusitakoa batu behar zaio, ezinbestean. Eszenaratzea eta argiztapena ere benetan aipatzekoak dira Tirri-Tarraren ikuskizun berrian. Argien joko polita eta ehun bat lagunen bategiteak zanpatuta uzteko moduko efektua sortzen zuten, opera garaikideek egin ohi duten moduan.

Hainbeste musikari, efektu eta jolasen artean, baina pisua benetan hartu zuena eta ikuskizunaren gidari izan zena, gitarra elektrikoa zen. Hori ez da, baina, harritzekoa, obraren egileari begiratuz gero. Sergio Zurututza da pieza gehienen egilea eta bera da, hain zuzen, fanfarreko gitarra-jotzailea.

**GAILUR LARREGI**

Azaldutako elementu horiek guztiak kontutan hartuta ez da arraroa burura datorren lehen izena Mike Oldfield izatea: zenbait pasartek ezinbestean haren lanetara jotzen dute. Pasarte lasaiagoak ere jo zituzten eta orduan Sotto Voccekoek erakutsi zuten zein xamur, gozo eta eder jotzeko gai diren. Aitzakiarik ez partaide guztien lan bikaina azaltzerako orduan.

Osagaiak aurkeztuta, arestian aipatutako konbinazioa ere aztertzekoa da baina. Intentsitatearen gora-behera jolasa eskaintzen du *Luz interna*-k, dramatikoenetik gozora eta alderantziz. Efektu-kolpez baliatzen den obra da eta gailurrak, ezinbestean, abesbatza eta musikariek bat egiten zuten uneak izan ziren. Horixe litzateke *Luz Interna*-ren indargune nagusia eta ikusleak zur eta lur uzteko arrazoia. Tontor horiek, baina, larregitan igo zituzten bi ordutan eta bi igoeraren ostean hirugarren klimaxak grazia galtzen du. Balitekeplanteamendu horretaz abusatzea ikuskizunak. Fanfarrearen zuzendariaren histrionismoa ere ez zen oso lagungarri izan. Zalantzarik ez dago halako ikuskizunek antzerki apur bat eskatzen dutela, baina zuzendariak keinu, mugimendu eta dantzekin arreta bereganatu eta interesa desbideratzea besterik ez zuen lortu. Interesa abesbatzaren indarrean, orkestraren eztitasunean eta fanfarrearen giharrean zetzan. Horientzat, aitzakiarik ez.



# UDAKO ARGAZKIEN ASTELEHE

**Argazki guztiak fotoblog honetan:**



**HONDARTZARA JOATEKO ERABILITAKO MATERIALA.** Biharrezkoa krema, toaila, liburu bat, eta eguzki apur bat poltsan sartzea. /Argazkia: Ion Ander Gantxegi /Bergara



**ARDO KOPA.** Argazkia Cadizeko abuztu egun bero batean aterata dago aurten. Zerbeza kaña txiki gelditzen da ardo "kopatxoren" ondoan. Ilusio optikoa edo erreala?. /Argazkia: Enara Merino /Elgeta



**BILBO ILUNTZIXAN.** Gabez Bilbo ikustiak benetan merezi dau, argi joku politxak eskeintzen ditxu ta. /Argazkia: Alaitz Jauregi /Antzuola



**ETXAFUEGOAK.** Parisetik etxafuego ikusgarri eta koloretsuak atera genituen. /Argazkia: Maider Retolaza /Bergara



**MAROKOKO ILEAPAINDEGIA.** Erratza pasatzen ez duten ileapaindegia, Marokon, azoka baten, orain dela 20 urte inguru. /Argazkia: Juanjo Etxezarreta Agirre /Antzuola



**ILUNABARRA KROAZIA.** Ilunabarra Kroaziako ur gardenetan, Sibenik herrian. /Argazkia: Beñat Amozarrain /Arrasate



**ETXEAN.** Etxean ateratako argakia. Udako gaua abuztuan. /Argazkia: Juan Ramon Vilchez /Aretxabaleta



**UDALATX ANBOTOTIK IKUSITA.** 2009ko udan Anboton ateratako argazkia da. Atzean Udalatx ikusten da. /Argazkia: Lorea Zurutuza Alberdi /Bergara



**INDIEAKO EMAKUMEAK.** Taj-mahal (India) inguruan ateratako argazkia. Irudian bertako emakumeak agertzen dira. /Argazkia: Itziar Egiruren /Oñati

# NEKO GOIENKARIA V. LEHIAKETA

www.goiena.net/blogak/argazkiak





**ITSASOKO LASAITASUNA.** Almeriako Roquetas herrian ateratako argazki honek lasaitasun kutsua banatzen du. 2009ko abuztuak 12a. /Argazkia: Iker Aizkorbe /Antzuola



**SURFLARIA.** 2006ko udan Sri Lankara egindako bidaian ateratako argazkia, Arugam Bay izeneko herrian. Goizeko 6rak dira, olatuetan ibiltzeko ordurik onena haizea arrotu baino lehenago. /Argazkia: Brian Fagan /Arrasate



**EGUNSENTIA GALIZIAN.** Galiziako Baiona herrian mendittik ateratako egusentia. /Argazkia: Aitor Intza /Bergara



**AMASEME.** Greziako Kos irlako kafetegi batean aterata aurtengo abuztuan, goizean goiz. Badirudi amak egunsentia erakutsi nahi ziola bere umetxoari.... /Mikel Maidagan /Arrasate



**ATETIK BEGIRA.** Udan ateratakoa da Alpujarrasen. Nora joan da katua? /Argazkia: Martín Uriarte Askasibar /Arrasate



**LASAITASUNA.** Lanzaroten ateratako argazkia. Jameos del Aguan, itxi aurretik ateratako argazkia da, gu bakarrik ginen bertan eta lasaitasuna nabari zen kobazuloan… /Argazkia: Ekaitz Filarmendi /Aretxabaleta



**SILVER CAVE.** Gui Lin herrian, Txinako Guangxi probintzian, uraren ispilu lanak eta argien jokoak apaindutako galeria. /Argazkia: Gorka Bikuña /Oñati



**JAUZIA.** Aurtengo udaran Trogir-en (Kroazia) ateratako argazkia, inguruan zegoen aireportuaz ondamu ginen. /Argazkia: Julen Elorza Zubizarreta /Arrasate



**WILLIS DORRE.** 442 metroko altuera eta 108 pisu ditu. 103. pisuan edifiziotik irteten diren kristalezko hiru balkoi. Balkoira irtetean inguruko beste edifizio altuak zapaltzen ari zarela ematen du. /Argazkia: Aintzane Eceolaza /Oñati

## Oinarriak:

- **Parte-hartzaile bakoitzeko, gehienez, 5 argazki.**
- **Argazkiarekin batera adierazi beharko dira:**
  - **Egilearen izen-abizenak eta herria.**
  - **Harremanetarako telefonoa.**
  - **Argazkia noiz eta nongoa den.**
  - **Argazkian zer eta nortzuk agertzen diren.**
- **Argazkiak jasotzeko epea: uztailaren 3a - irailaren 17a.**
- **Argazkiak aurkeztu ahal izango dira paperean edo digitalizatuta (paperean ondo erreproduzitzeko adinako bereizmenarekin).**
- Bidali argazkiak eta aipatutako datu GUZTIAK e-postaz *argazkiak@goiena.com* helbidera, edo Goienara ekarri: ARRASATE: Otalora Lizentziaduna 31. BERGARA: Irizar jauregia, Barrenkalea 33. ARETXABALETA: Durana 11, 2. solairua, edo Basabe poligonoa E-O-5.
- Egoitzara ekartzekotan, kartazal batean sartuta (egilearen izen-abizenekin), CD batean edo argazki digitalak gordetzeko beste edozein euskarritan eta JPEG formatuan.
- Udako argazkiak izango dira: berdin da aurtengo udan ateratakoak izatea edo beste uda batekoak.

## Sariak:

- **1. saria: Olympus E-420 reflex** argazki kamera digitala Bergarako Kiñu argazki dendaren eskutik.
- **2. saria:** Cantabriako Treceño herriko Hotel Palacio de Guevara-n Astebukaera bateko egonaldia bi lagunendako. Gosaria eta larunbateko afari berezia barne Arrasate Bidaiak-en eskutik.
- **3. saria:** bi pertsonarendako afari/bazkaria Leintz Gatzagako Gure Ametsa jatetxean.




**Babeslea:**
kutxa

**Laguntzaileak:**
Arrasate Bidaiak
BIDAIA-AGENTZIA ELKARTUA
GURE AMETSA
JATETXEA
kiñu
argazkilariak
OLYMPUS
Your Vision, Our Future

**MUSIKA** > THE LAST REBELS, SECRET ARMY ETA BOUNCING SOULS

# Punk-rockaren dibertimendua eta melodia

**NON:** Arrasateko Hiru aretoan.
**EGUNA:** Egubakoitza, hilaren 11.
**ZENBAT JENDE:** 200 lagun inguru.
**IRAUPENA:** Hiru ordu.

**IKER BARANDIARAN** > ARRASATE

Uste baino jende gehiago aurkitu nuen egubakoitz gauean Hiru aretoan. Arrasateko Last Rebels taldearen emanaldia bukatu berri zegoen eta jende ugari zegoen kanpoan. Gerora, jakin nuen ikusleen artean Euskal Herriko leku askotako jendeaz gain, zaragozarrak, ingelesak eta frantsesak ere bazeudela. Horren arrazoia? AEBetako Bouncing Souls taldeak Estatuan bi kontzertu bakarrik egin izana (Bartzelonan eta Arrasaten).

**BARTZELONAKO EZUSTEA**

Bartzelonako Secret Army taldearen gainean gauza onak entzunda nituen eta, egia esanda, emanaldiak aurreikuspen guztiak gainditu zituen.

Hirukotea da, baina ez dute gehiago behar. Gitarra jotzaileak abesten du kantu gehienetan eta, gainera, gitarrarekin guztia betetzen du. Gustura entzun nituen Ingalaterrako 77ko kutsua zeukaten kantu melodikoak; ahotsa erreztasun handiz heltzen zen tonuetara.

Berarekin batera, bateria eta baxu jotzaile finak. Azken honek abesti *makarra* eta punk-rockeroetan hartzen zuen mikrofonoa. Kantu gitarrero eta azkarragoak ondo menderatzen duten alderdia dela ere erakutsi zuten, eta tarteka NCC edo Señor No gogora ekarri zizkiguten.

Hori guztia gutxi balitz, Patti Smith-en *Rock-and-roll nigger* aldarrikapena eta Cicatrizen *Aprieta el gatillo* oparitu zizkiguten. Jarraitzeko modukoak!

**BETERANOTASUNA AGERIAN**

Bartzelonarrek ahalegin handiak egin zituzten aretoa girotzeko eta ikusleak alde ez zituzten arren, azkenean lortu zuten. Horretarako, baxu jotzailea behin baino gehiagotan jaitsi zen jende artera.

AEBetako taldeak, berriz, ikusleak zain zituen. Hasi ahala, jendea agertokira hurreratu zen eta horiek dantzari eta abestea-ri ez zioten utzi emanaldiak iraun bitartean.

Taldeak Arrasatekoa zuen Europako birako azkeneko kontzertua eta poz-pozik zeuden. Talde indartsu eta beteranoa da, agertokiak bere tamainan hartzen dituena.

Punka eta Oi!a gustuko duten arren, melodia eta abiadura handia uztartzen dituzten kantuak egiten dituzte, hardcore melodikoan koka daitezkeenak. Hala ere, igartzen da New Yorketik hurbil bizi direla duten indarragatik. *El diablo* kantuan hainbat lagun igo ziren abestera, eta bat baino gehiago agertokitik saltoka ibili zen pozarren.

Gazteleraz hitz egiten ahalegindu ziren oso sinpatiko, eta bitxikeri moduan Misfits-en *Cough/cool* akustikoan jo zuten.



Secret Army hirukoteak ondo bete zuen agertokia eta emanaldi bikaina egin zuen. JOSETXO ARANTZABAL



MUSIKA

# Ordorika disko berria nahasten dabil

Brooklynen grabatu zuen eta azaroan kaleratuko du hamabosgarren lana

I.B. > BERGARA

*Hautsi da Anphora* izeneko lan apurtzaile hura kaleratu zuenetik 30 urte inguru pasa direnean, Ruper Ordorika hamabosgarren lana bukatzen dabil egunotan Elkar estudioan.

*Haizea garizumakoa* izenpean, azaroaren 19an aurkeztuko du disko berria. Honako lana, aurreko hainbat ekinalditan egin izan duen moduan, AEBetako musikariekin batera borobildu du; are gehiago, lan berria Brooklynen (New York) grabatu zuen udan.

**AEB-ETAKO MUSIKARIEKIN**

Diskoan aspaldiko lagun batzuk ageri dira: Ben Monder, Kenny Wolles eta Skuli Sverrison musikari bikainak, hain zuzen ere. Egunotan Ordorika Elkar estudioan ari da, Jean Phocasekin batera nahasketak egiten.

Diskoa kaleratu artean Ordorikak ez du Euskal Herrian emanaldirik egingo, bai ordea kanpoan.



Ruper Ordorika. GOIENKARIA

> MUSIKA

## Never Surrender taldeak diskoa prestatzen dihardu

Arrasateko Never Surrender taldea disko berria prestatzen hasia da dagoeneko. Aurreko astean *Atxi* bateria jotzaileari agur jaia egin zioten Arrasateko gaztetxean, hilabete batzuetarako kanpora doalako.

Kontua da *Atxi*-k dagoeneko bateriak grabatuak dituela, eta orain gainontzeko taldekideek erritmo horien gainean lan egingo dute. Taldearen asmoa da urtea bukatu aurretik-edo diskoa bukatuta izatea; bitartean ezingo dute zuzenean jo.



Irlandako musika, umore ona eta tronpetaren protagonismoa Garret Wall Band taldearen eskutik. JOSETXO ARANTZABAL

**MUSIKA** > ELURRETAN ETA GARRET WALL BAND

# Popak eta folkak jantzi dute Kulturate Akustikoaren hasiera

Elurretan taldeko Mikelen istorioak, abestien gertuko sinpletasuna eta beti presente duten umorea dira taldearen puntu indartsuenak

Garret Wall Band taldeak asko dauka euren jatorria den Irlandako musikatik, baina euren ukitu propioa ere ematen diete abestiei

**I.BARANDIARAN/J.BEREZIBAR** > ARRASATE

Udaleko Kultura Sailak Kulturate Akustikoa ekimena asmatu du aurten. Hala, Kulturateko aretoari aspaldi agindutako erabileretako bat eman (kontzertuak egitearena) eta elektrifikatu bariko musika emanaldiak antolatu dituzte.

Arrasate ez da plaza erraza musika ekitaldiendako, estilo salbuespen batzuk alboratuz gero. Hala ere, izan dira ikusleak egubakoitzean eta zapatuan, eta ziur asko poz-pozik irten dira handik lekuko izan direnak.

Are gehiago, batek baino gehiagok aipatu du zein bitxia den 90eko hamarkadan hainbeste kontzertu bizi izan zituen gaztetxeko horma arte ia berean orain ere musika emanaldiekin gozatu ahal izatea.

**TALDE GANBERROA**

Egubakoitzean eta zapatuan, bietan, izan dira kontzertuak; eta biak berezi samarrak.

Egubakoitzean, esaterako, Ordizia aldeko Elurretan taldea igo zen agertokira. 2003an sortu zen talde bitxi horrek ez ditu ia inoiz kontzerturik egiten eta askok ustekabea hartu zuten Arrasatekoa iragarri zutenean. Agian horregatik batutako hainbat ikusle kanpokoak ziren, baina baziren jakin-min handia zuten arrasatearrak ere.

Elurretan taldeko Mikel eta Ritxarrek gitarra, baxua eta turuta erabili zituzten; eta Mikelek, ahotsak, hainbat istorio kontatu zituen. Pop abestiak lantzen dituzte, xumeak eta xelebreak, artifiziorik gabekoak, baina istorioak oso onak dira. Euren azken diskoan ageri den Momo pertsonaia izan zuten berbagai, baita Mikelen aitona ere; dirudienez, oso tipo xelebrea zen eta haren azken urteetan Mikelek eta biek kantuak konposatzen zituzten. Azken kantu horiek interpretatzeko txapela jantzi zuen Mikelek haren omenez.

**IRAGANEKO KANTUAK BILUZIK**

Horren ostean, taldearen iraganari paso egin barik, euren lehenengo lanetako kantu "coolmalenkoniatsuak" (Mikelen esanetan) berreskuratu zituzten eta jende artera jaitsi ziren mikrofono barik horiek abestera. Ez hori bakarrik, Kirmen Uriberen poema batzuei ere musika jarri zieten.

Irribarretsu irten ziren ikusle guztiak bikotearen umore eta ikuskizun sanoaz gozatu ostean. Ez da gutxiagorako!

**TRONPETAREN PROTAGONISMOA**

Zapatukoa ere giro oneko emanaldia izan zen, baina ez hain ganberroa. Irlandako jatorria daukaten baina Espainia aldean bizi diren Garret Wall Band taldeko musikariek hartu zuten protagonismoa. Garret, Howard, Robbie eta Davek Madril aldean egin zuten topo, hainbat arrazoirengatik jatorritik alde egin ostean.

Musikak batu egin zituen, eta bateria barik, kontzertuak egiten dituzte ordutik.

Bezperan baino jende gehiago eta nagusiagoa batu zen bigarren saioan, eta oraingoan ere arrakasta erdietsi zuten. Ez al da ba arrakasta 70 bat lagun ordu eta erdi jarlekuetan adi eustea lortzea? Baietz uste dut.

Gitarra, baxu, tronpeta eta kaxaz lagunduta, Irlandako oihartzuna duten pop kantu goxoak eskaini zituzten, alaitasuna transmititzen zutenak. Kaxa bat ere erabili zuten erritmoa markatzeko, eta tronpetak protagonismo handia hartu zuen jo zituzten piezetan.

Ingelesez abesten dute eta abeslaria Irlandakoa bada ere, umorea erabilita ondo entretenitu zituen batutakoak.

Jardunaldiak ondo hasi dira; ea ba datorren astean ere ondo bidean joaten diren.



Elurretan taldeko Mikel, txapela jantzi aurretik. JOSETXO ARANTZABAL

# iragarkilaburrak.com

## 1/ ETXEBIZITZAK

### 101. SALDU

**Antzuola.** Sagasti auzoan 89 metro koadroko etxebizitza salgai edo alokagai. Sukaldea, hiru gela, egongela, bi bainugela, bi balkoi eta despentsa. Jantzita utziko genuke, garaje itxiarekin. 687 11 07 21

**Aretxabaleta.** 72 metro koadroko etxebizitza salgai erdigunean. Aukera ona. Prezio negoziagarria. 659 64 67 38.

**Aretxabaleta.** Markole. 100 $m^2$ko etxebizitza salgai. Bi terraza handi (150 $m^2$), ganbara eta garajea. 650 34 89 85.

**Arrasate.** Etxebizitza salgai Erguin kalean. Hiru logela, egongela, sukaldea eta komuna. 606 86 71 97

**Bergara.** Etxebizitza salgai Boluko Koldo Eleizalde kalean. Argitsua. Hiru logela, egongela, bi bainugela, sukaldea eta terraza. Berogailuarekin. Jantzita utziko genuke. Prezio ona. 655 73 16 61.

**Bergara.** Etxebizitza salgai Masterrekan. 645 73 79 23.

**Noja.** Guztiz jantzitako 70 metro koadroko duplex ederra salgai. Bi logela, sukaldea, egongela handia, bi komun, bi terraza, garaje itxia. Urbanizazio pribatuan, igerilekua. Sei urteko eraikina. Aukera ona. 667 31 37 45.

**Oñati.** Bidebarrieta auzoan etxebizitza salgai. Hiru logela, egongela, bi bainugela, sukaldea eta ganbara. Garajea aukeran. 620 02 51 95.

### 103. ERRENTAN EMAN

**Arrasate.** Etxebizitza ematen da errentan unibertsitatetik bi minutura. Lau logela, egongela, sukaldea eta bi komun. Lau edo bost ikaslerentzat. Interesatuek deitu: 625 28 72 06

**Arrasate.** Etxebizitza ematen da errentan San Andres auzoan. Sukaldea, komuna eta hiru gela. Prezio ekonomikoa. 665 70 75 80 edo 943 76 59 93

**Arrasate.** Etxebizitza ematen da errentan unibertsitatetik gertu. Hiru logela, egongela eta sukaldea guztiz hornitua. Berogailuarekin. 610 01 31 80 edo 943 03 78 20

**Arrasate.** Etxebizitza ematen da errentan ikasleentzat unibertsitatetik gertu. Hiru logela eta egongela. Deitu telefono zenbaki hauetara: 617 78 85 38 edo 943 79 31 47

**Arrasate.** Etxebizitza ematen da errentan unibertsitatetik 200 metrora. Lau edo bost pertsonarentzat. Berogailu zentrala dauka. 659 44 86 79

**Arrasate.** Etxebizitza ematen da errentan erdialdean. Azken solairua, igogailuarekin. Berokuntza dauka. Hiru logela, sukaldea eta egongela. Bizi izateko gertu. 600 euro. 685 94 02 21

**Arrasate.** Etxebizitza ematen da errentan Zerrajeran. Hiru logela, bi komun, sukaldea eta egongela handiak. Interesatuek deitu 16:00etatik 23:00etara jarraian dauden telefono zenbaki hauetara: 943 03 78 56 edo 685 73 29 94

**Arrasate.** Ikasleentzako hiru logelako etxebizitza ematen da errentan erdigunean. Harremanetararako deitu telefono zenbaki honetara: 666 45 87 42

**Arrasate.** Etxebizitza ematen da errentan Seber Altube plazan. Hiru logela, bi komun, jangela-egongela handia eta sukalde jantzia. 5. solairua, igogailuarekin. Berokuntza zentrala. Terraza eta trastelekua. Prezio negoziagarria. 635 75 50 36 edo 609 40 33 79

**Arrasate.** Lau logelako etxebizitza ematen da errentan. Bi komun, sukaldea eta egongela. Eguzkitsua. 669 05 80 33

**Donostia.** 2009-2010 ikasturterako atikoa ematen da errentan Alde Zaharrean. Bikote batentzat aproposa. Bi logela, sukalde-egongela eta komuna. 616 01 40 17

**Etxeberri.** 2 logelako pisua alokatzen du kontzejuak. Interesatuek hots egin 676 33 66 03 telefono zenbakira.

**Eskoriatza.** Berriztutako baserria ematen da errentan. Deitu 20:00ak eta 21:00ak artean. Telefono zenbakia: 693 80 40 47

**Lasarte-Oria.** Erdialdean 100 metro koadroko etxea alokatzen dut. Harremanetarako telefono zenbakia: 686 67 45 52.

**Oñati.** Olakua auzoan etxebizitza errentan, ikasleentzako edo aldika. 660 40 06 75

**Oñati.** Apartamentua ematen da errentan. Bi logelakoa. Bikote batentzat aproposa. Deitu 20:00ak eta 22:30ak bitartean. 699 78 47 49

943 25 05 05 sailkatuak@goiena.com
http://www.goiena.net/sailkatuak

Eguenerarte (18:00) jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.
Ordu horretatik aurrera ez da onartuko aldaketarik eta ezta iragarkia bertan behera uzterik ere.

**PARTIKULARREN IRAGARKIAK ORDAINDUTAKO ATALAK: ETXEBIZITZA SALDU/ALOKATU. LOKALA SALDU/ALOKATU. GARAJEA SALDU/ALOKATU. MOTORRA SALDU.**

Iragarki partikularretan astebete baino gehiagoz argitaratu nahi izanez gero, prezio bereziak aplikatuko dira.
GOIENKARIAk ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

### 104. ETXEAK HARTU

**Aretxabaleta.** Bikote batek etxebizitza hartuko luke errentan Aretxabaletan. 669 92 62 12 edo 669 92 62 12

**Arrasate.** Bikote gazte batek Arrasaten pisua alokatuko luke. 1 edo 2 logeletakoa. Harremanetarako telefono zenbakia: 680 53 83 90

**Bergara.** Etxebizitza errentan hartuko nuke. 610 91 33 40

**Bergara.** Etxebizitza hartuko nuke errentan. 618 93 59 29

**Bergara.** Etxebizitza txikia errentan hartuko luke familia batek. 649 63 23 24edo 696 38 10 07

**Bergara.** Pertsona batendako etxebizitza txikia errentan hartuko nuke. 653 38 56 12

**Bergara.** Bergara edo inguruan etxebizitza txiki bat alokatuko nuke. Deitu: 607 31 85 60

**Bergara.** Etxebizitza behar dut errentan. Urgentea da. 669 12 70 98

**Debagoiena.** Familia batek etxebizitza hartuko luke errentan Bergara, Antzuola, Oñ ati, Arrasate edo Osintxun. Deitu:645 72 92 87

**Debagoiena.** Arrasate edo Debagoienean, familia serioak etxebizitza behar du errentan. Presazkoa da. Harremanetarako deitu telefono zenbaki honetara:671 35 22 60 edo 657 20 30 71

**Debagoiena.** Bergara-Arrasate. Logela errentan hartuko nuke. 658 77 90 46

**Lekeitio.** Urte osorako errentan hartzeko pisu txiki baten bila nabil, 1 edo 2 logela. Harremanetarako telefono zenbaki honetara deitu: 658 70 19 53

### 105. ETXEAK OSATU

**Altsasu.** Euskaldun batekin pisua konpartituko nuke Altsasun. Deitu 634 425 490

**Aretxabaleta.** Bi logela ematen dira errentan, sukaldea erabiltzeko aukerarekin. 659 65 21 45

**Aretxabaleta.** Irakasle baten etxean bi gela daude alokagai. Etxe berria. 250 euro, gastuak barne. 616 75 41 30

**Aretxabaleta.** Logela ematen da errentan. 620 60 54 14

**Arrasate.** Bi logela ematen dira errentan Eguzki dorrean. 620 52 94 98

**Arrasate.** Bi logela ematen dira errentan erdigunean. 663 65 78 43

**Arrasate.** Arrasatear batek logela bat ematen du errentan. 675 71 57 03

**Arrasate.** Gela bat ematen da errentan. Hiru gela, saloia, komun bi eta sukaldea. Etxe argitsua. 670 04 27 41

**Arrasate.** Logela ematen da errentan San Andresen, igogailu eta garajearekin. Pertsona arduratsua behar da, bertan bizi den pertsonarekin arduratu beharko du eta. Presazkoa da. 672 20 36 82

**Arrasate.** Logela ematen da errentan erdigunean. Pertsona bakarrarentzat. 666 21 88 95

**Arrasate.** Logela ematen da errentan erdigunean. Udaletxe ondoan. Sukalde handia, igogailua eta terraza dotorea. 688 64 10 13edo 620 72 27 30

**Arrasate.** Logela ematen da errentan sukaldea erabiltzeko aukerarekin. 270 euro. 618 00 08 28 edo 943 79 82 43

**Arrasate.** Logela ematen da errentan. 699 66 33 63

**Arrasate.** Oso egoera onean dagoen etxebizitza osatzeko pertsona bat behar da. Egongela eta sukalde handiak eta bi bainugela. Eguzkitsua. Wi fiarekin. Unibertsitatetik gertu. 699 28 99 06

**Arrasate.** Pertsona bat behar dugu beste hirurekin etxebizitza osatzeko. 670 59 73 62

**Arrasate.** Pertsona batendako logela ematen da errentan. 636 91 93 81

**Astigarraga.** Pisua konpartituko nuke Astigarragan. Berria, argitsua eta zabala da. Libre dagoen logelak kanporaldea ematen du eta bainugela ere badu. 676 93 47 58 (Ainhoa)

**Bergara.** Erdialdean. Logela ematen da errentan. 170 euro gehi gastuak. 696 02 68 30 edo 670 40 74 53

**Bergara.** Logela bikoitza ematen da errentan, bi lagunendako. Erdialdean. 649 63 23 24 edo 696 38 10 07

**Bergara.** Logela hartuko nuke errentan Bergaran. Telefonoa: 690 97 44 32

**Bergara.** Pertsona bat behar da etxebizitza osatzeko. Sukaldea eta Internet erabiltzeko aukera. 670 85 86 68

**Bergara.** Pertsona bat behar dugu etxea osatzeko. Telefonoa: 628 45 10 37

**Donostia.** Pertsona bat behar da ikasle etxe bat osatzeko. 4 logela, egongela, sukaldea, 2 komun eta berogailua. 618 01 57 07

**Donostia.** Aurten Donostiara nator 2. zikloko pedagogia egitera eta gela baten beharrean nago. 21 urte ditut eta Iruñ ekoa naiz. Norbaiten bila bazaudete pisua betetzeko mesedez deitu telefono honetara 652 17 89 29. Mila esker. Manex.

**Donostia.** Donostian Antso Jakitunaren etorbidean, Topo eta autobus geltokitik erdi bidean kokatuta, gela bat alokatzen da emakume euskaldun batentzat. Berdin ikasle edo langile. Gela argitsua eta telebista bertan edukitzeko aukera. Beste bi emakume osatutako pisu konpartitu bat da. Telefonoa: 943 65 16 92. Hartu ezean mezua utzi

**Lasarte-Orian.** Gela bat alokatzen da erdigunean. Telefonoa: 666 60 74 47.

## 2/ GARAJEAK

### 203. ERRENTAN EMAN

**Lasarte-Orian.** Garaje bat alokatzen dut Lasarte-Oria erdialdean. Harremanetarako zenbakia: 686 67 45 52.

### 204. ERRENTAN HARTU

**Aretxabaleta.** Garajea hartuko nuke errentan. Harremanetarako deitu telefono zenbaki honetara:656 71 31 71

## 4/ LANA

### 401. ESKAINTZAK

**Beasain.** Beasainen emakumea behar da 2 ume zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Esperientzia izatea beharrezkoa da. Interesatuek deitu telefono zenbaki honetara: 696 99 91 30

**Bergara.** Pertsona bat behar dugu pertsona nagusia zaintzeko, baserrian, bertan lo egingo duena. Deitu zenbaki hauetara: Jesus Mari Itziar. Harremanetaerako deitu: 636 30 09 16 edo 646 22 54 41

**Debagoiena.** Pertsona nagusi bat zaintzeko pertsona bat behar da arratsaldeetan, lau ordurako. 636 07 13 45

**Lazkao.** Zerbitzaria behar da Lazkaon. Beharrezkoa da eskarmentua izatea eguneko menuetan eta barran. Harremanetarako telefono zenbakia: 943 08 80 88. Alberto edo Nerea.

### 402. ESKAERAK

**Aretxabaleta.** 40 urtetik gorako neska euskalduna gertu nagusiak zaintzeko, etxean edo ospitalean. 943 79 54 21

**Aretxabaleta.** Emakumea gertu nagusiak zaindu, etxeko lanak egin edo umeak zaintzeko. Mari. 943 53 33 92

**Arrasate.** Neska gazte eta esperientziaduna prest arratsaldez lana egiteko astelehenetik igandera, berdin etxeak garbitzen edo haur eta helduak zaintzen. 688 64 10 13 edo 620 72 27 30

**Arrasate.** Ile apaintzaile laguntzailea eskaintzen da ilea moztu eta tinteak emateko. Deitu: 666 20 06 03

**Arrasate.** Emakumea gertu umeak zein nagusiak zaintzeko. Mari. 649 30 13 60

**Arrasate .** Emakume euskalduna gertu nagusiak zaindu edo bestelako lanetarako. Deitu: 659 82 75 18

**Arrasate .** Neska euskalduna goizetan umeak zaintzeko prest. Telefono zenbaki: 685 77 18 89

**Arrasate.** Emakumea gertu nagusi zein umeak zaintzeko eta baita etxeko garbiketak egiteko ere. Mari. Harremanetarako deitu : 649 30 13 60

**Arrasate.** Neska gazte euskalduna umeak zaintzeko gertu arratsaldeetan; esperientziaduna. 618 41 24 79

**Arrasate.** Emakumea gertu haurrak zaintzeko. 666 12 52 80

**Arrasate.** Emakumea gertu umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketak egiteko. Mari. 649 30 13 60

**Azpeitia.** Irailetik aurrera asteburutan tabernan lan egiteko prest nago. Arduratsua eta langilea. Harremanetarako deitu 647 82 58 52 telefonora. Eskerrik asko.

**Azpeitia.** 25 urteko neska arduratsua udaran umeak zaintzeko edota etxeko lanak egiteko prest. Esperientziduna. Deitu konpromisorik gabe 675 71 18 47

**Azpeitia.** 20 urteko neska bat naiz, haurrak oso gustukoak ditut eta arratsaldez zaintzaile bezala lan egitea gustatuko litzaidake. Udalekuetan begirale moduan ibilitakoa naiz eta haur hezkuntza ikasten ari naiz. Konpromisorik gabe deitu 675 71 27 22 telefonora.

**Bergara.** Mutil gaztea eraikuntzan edo autoa behar den beste edozein lanetan lan egiteko gertu. 696 48 42 50

**Bergara.** Neska lanerako gertu. Garbiketa lanetan edo adinekoak edo umeak zaintzen. Aste bukaeretan eta arratsaldeetan. 618 34 09 35

**Bergara.** Neska gaztea garbiketa lanak egin edo pertsona nagusiak zaintzeko gertu. Etxean bertan loegiteko. Deitu: 617 29 49 81

**Bergara.** Ingeles eta frantseseko itzulpenak egiten ditut. Ahoz zein idatziz. Deitu 654 94 87 26 telefonora.

**Bergara.** Emakume arduratsua eta esperientziaduna nagusiak edo umeak zaintzeko gertu. Deitu: 639 94 48 65

**Bergara.** Bergarako emakume euskalduna lanerako gertu. Umeak zaintzen, etxeko lanetan edo garbiketan. Goizez. Deitu telefono zenbaki honetara:665 70 03 74

**Bergara.** Edozein lan mota egiteko gertu nago. Maria Eugenia. Deitu: 628 23 50 55

**Deba.** Emakume euskalduna ospitalean jendea orduka zaintzeko prest. Telefono zenbakia 665 74 18 66. Marian.

**Debagoiena.** Mutil gaztea edozein lan egiteko gertu. 638 10 29 63

KOROSTI
INMOBILIARIA
Ibargarai 3 • BERGARA
Tel. / Faxa: 943 76 97 97
www.inmokorosti.com

**ETXEBIZITZAK SALGAI**

**Bergara:**
- Matxiategi 82 $m^2$. Eguzkitsua.
- Zubiaurre 230 $m^2$. Berritua.
- Zubieta 80 $m^2$. Berritua. Ganbararekin.
- Elusu baserria. Berritua. Oso ondo.
- Bidekurutzeta 60 $m^2$. Berritua. Gazteentzat.
- Zubiaurre 67 $m^2$. Berritua. Eguzkitsua.
- Zabalotegi 60$m^2$. Oso ondo
- Barrenkale 82 $m^2$. Berritua.
- San Antonio, 46 $m^2$. Berritua.
- Masterreka. 46 $m^2$. Eraikuntza berria. Oso ondo.
- Bidekurutzeta 103 $m^2$. Duplexa. Oso ondo.
- Boni Laskurain 90 $m^2$. Oso ondo.
- Azkarruntz 69 $m^2$. Prezio ona.
- San Pedro 65 $m^2$. Ganbararekin.
- Osintxu 64 $m^2$. Berritua. 114.192 €.
- Aranerreka 80 $m^2$. Terrazarekin.
- Zubiaurre 58 $m^2$. Eguzkitsua.
- Aranerreka 90 $m^2$. Oso ondo.
- Osintxu 62 $m^2$. Prezio ona.
- San Lorentzo 68 m2. Berritua.
- Zubiaurre 55 m2. Berritua. 84.162 €.
- **Etxebizitza berrien eraikuntza San Pedron, Zubiaurren eta Bidekurutzetan.**
- **San Lorentzon etxe berriak**

**Antzuola:**
- Buztinzuri, Sagasti, Antigua, Zurrategi, Beheko auzoa Etxe onak.
- Errekalde 70 $m^2$. Garajearekin.
- Beheko auzoa. Berritua. 135. 000 €.

**Elgeta:**
- San Roke 72 $m^2$. Berritua.
- San Roke 80 $m^2$. 80 $m^2$-ko ganbara eta lokalarekin.
- Salbador 90 $m^2$. Berritua.

**Soraluze:**
- Atxuri 49 m2. 117.618 €.

DEBA
**GARAIA**
**INMOBILIARIA**
**Telesforo Aranzadi 2**
T: 943 76 21 80 F: 943 76 06 37

**ETXEBIZITZAK SALGAI**

**BERGARA**
- Artekale, 89 $m^2$, ondo.
- Arrizuri, 97 $m^2$, garajearekin.
- Matxiategi, 65 $m^2$, berritua eta aukera ona.
- Matxiategi, 88 $m^2$, eguzkitsua, oso ondo.
- Zabalotegi, 54 $m^2$, eguzkitsua, oso ondo.
- Bolu, 103 $m^2$, oso eguzkitsua.
- Zubieta 65 $m^2$, ondo, hortuarekin.
- Ibargarai, apartamentua, 40 $m^2$, berria, garajea aukeran.
- Bidekurutzeta, duplexa, oso ondo.
- Iparragirre, apartamentua, 40 $m^2$, berria, garajea eta trastelekua.
- Zubiaurre, 55 $m^2$, 84.142 euro. Negoziagarriak.
- Martoko, 87 $m^2$, ondo, garajearekin.
- San Pedro, 88 $m^2$, ondo.
- Ibargarai, 80 $m^2$ oso ondo eta eguzkitsua.
- Koldo Eleizalde, 87 $m^2$ oso ondo.
- Urdangarin pasealekua,132 $m^2$, berritzeko.
- Zabalotegi 80 $m^2$, eguzkitsua, berritua.
- Elorregi 70 $m^2$, terrazarekin, eguzkitsua, oso ondo.
- Matxiategi, 73 $m^2$, berritzeko.
- Simon Arrieta, 57 $m^2$, terrazarekin.
- Zurradero, 81 $m^2$, oso ondo.
- Simon Arrieta, 80 $m^2$, berritua. Oso ondo.
- Zubieta, 125 $m^2$, terraza eta ortuarekin.
- Zabalotegi, 50 $m^2$, berritua. Oso eguzkitsua.
- Bidekurutzeta, 111 $m^2$, oso ondo.
- **Etxebizitza berrien erainkuntza Maduran, San Pedron, Masterrekan, Zubiaurren, Bidekurutzetan, Zubietan, Martokon eta San Lorentzon.**

**SORALUZE**
- Baltegieta, 83 $m^2$, berria.
- Sagarerreka, 58 $m^2$, aukera ona.

**ANTZUOLA**
- Eguzki auzoa, 85 $m^2$, oso eguzkitsua.
- Antigua 55 $m^2$, erdi berritua.

**ELGETA**
- San Roke, 75 $m^2$, ia berria.

Ikolan lanaldi
ALDIBATEKO LANA • TRABAJO TEMPORAL
**PEOIAK eta MOLDEATZAILEAK behar dira, Goierrin kokatutako FUNDIZIO baterako.**
Kontrastatutako esperientzia derrigorrezkoa da.
Ikusi lan eskaintzak: **943-16 20 48**
www.ikolanlanaldi.com

Etxebila higiezinak
943-44 61 66

**LOIOLA** 2 logela, egongela, sukaldea, bainugela. Igogailua. Oso polita. 39.500.000
**LOIOLA** 2 logela, egongela, sukaldea, bainugela. Igogailua. 24.900.000
**AMARA** 2 logela, egongela, sukaldea, bainugela. Kanpora. Berritua. 38.600.000
**AMARA** Apartamentu polita. Logela, egongela, sukaldea, bainugela. Argitsua. 39.900.000
**AMARA** 3 logela, egongela, sukaldea, bainugela. Terraza. Altua. 43.500.000
**AMARA** Hasieran. 2 logela, egongela, sukaldea, bainugela. 45.500.000
**AMARA** Hasieran 2 logela, egongela, sukaldea, bainugela. Berritua. 48.800.000
**GROS** Apartamentu polita. Logela-egongela, sukaldea, bainugela. 38.500.000
**GROS** Hondartzan. Logela, egongela-sukaldea, bainugela. Igogailua. 36.950.000
**EGIA** 2 logela, egongela, sukaldea, 2 bainugela. Terraza. Igogailua. 45.500.000
**INTXAURRONDO** 2 logela, egongela, sukaldea, bainugela. Berritua. Trastalekua. 42.900.000
**MARTUTENE** 2 logela, egongela, sukaldea, bainugela. Kanpora begira. 27.500.000
**PASAI ANTXO** 2 logela, egongela, sukaldea, bainugela. Kanpora. 25.950.000
**PASAI DONIBANE** Duplex oso polita. 100m2. balkoia eta Terraza. 31.900.000
**OIARTZUN** Baserria. 4.000m2 terrenoa. Berritzeko. 31.500.000
**LEZO** 3 logela, egongela, sukaldea, bainugela. Igogailua. 36.400.000
**LEZO** Baserri-etxea. 200m2 lurra. Eguzkitsua. Borda-txokoa. 46.800.000

**ALOKAIRUAN**
**GROS** 4 logela, egongela, sukaldea, 2 bainugela. Igogailua. 1100€
**GROS** Ibai ertzean. 2 logela, egongela, sukaldea, bainugela. 1.000€
**AMARA** 3 logela, egongela, sukaldea, 2 bainugela. 900€
**MARTUTENE** 3 logela, egongela, sukaldea, 2 bainugela. Igogailua. 750€
**ALTZA** 3 logela, egongela, sukaldea, bainugela. 750€
**USURBIL** 2 logela, egongela, sukaldea, bainugela. Kanpora begira. 650€

www.etxebila.net
www.etxebizitza.iragarkilaburrak.com

**Debagoiena.** Mutil gaztea lan bila eraikuntzan edo lantegian. 696 48 42 50

**Debagoiena.** Nagusiak zaintzen edota ostalaritzan lan egingo nuke: mantenulanak zein sukaldean. 657 20 30 71

**Debagoiena.** Emakumea gertu haurrak edo adineko pertsonak zaintzeko. Gauez ere bai. Arrasaten, Aretxabaletan nahiz Eskoriatzan. Esperientziaduna. 618 00 08 28

**Debagoiena.** Neska euskalduna prest edozein lan egiteko. 647 87 28 31

**Debagoiena.** Galdaragintzan esperientzia duen mutila edozein lan egiteko gertu. 664 42 96 65

**Debagoiena.** Sukaldean edo nagusi zein umeak zaintzen lan egingo nuke. Etxean bertan lo egiteko gertu nago. Deitu ezazutelefono honetara:676 73 90 05

**Debagoiena.** Arrasate edo Bergara. Neska gertu arratsaldetan nagusiak zaindu edo paseoan ateratzeko. 696 84 19 51

**Debagoiena.** Arrasate, Aretxabaleta edo Eskoriatza. Esperientziadun neska tabernan lan egiteko gertu. 650 59 93 91

**Debagoiena.** Arrasate, Aretxabaleta edo Eskoriatza. Neska gertu garbiketa lanetarako edo nagusi zein umeak zaintzeko. 618 00 08 28 edo 943 79 82 43

**Debagoiena.** Aretxabaleta, Eskoriatza edo Arrasate. Emakumea gertu umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko. Deitu ezazutelefono honetara: 680 61 96 98

**Debagoiena.** Delineatzaile, dekoratzaile eta hirugarren ikasturteko arkitektura ikaslea edozein lanerako gertu. Autocad programarekin esperientzia. 676 61 15 47

**Debagoiena.** Emakumea gertu etxeko lanak egiteko, umeak edo nagusiak zaintzeko. Deitu ezazutelefono honetara:671 87 14 06

**Debagoiena.** Ile apaintzaile lanetarako gertu nago. Deitu ezazutelefono honetara:639 00 35 57

**Debagoiena.** 25 urteko gazte bolibiarra adinekojendea zaintzeko gertu dago, egun osora edo komeni den ordutegiarekin. Gilberto. 654 24 13 27

**Debagoiena.** Arrasate edo Aretxabaleta. Neska gertu garbiketa edo sukalde lanetarako, eta baita nagusi edo umeak zaintzeko ere. 608 34 36 11

**Debagoiena.** Emakumea gertu garbiketa lanak egiteko, umeak eta pertsona nagusiak zaintzeko edo supermerkatuetan lan egiteko. Paperak dauzkat. 666 01 13 42

**Debagoiena.** Emakumea gertu garbiketak egiteko edo pertsona nagusiak edo umeak zaintzeko. 664 74 82 07

**Debagoiena.** Garbiketa lanetan, tabernari edota nagusiak zaintzen aritzeko gertu nago. Autoa daukat. Egun osoz zein orduka. 636 11 23 40

**Debagoiena.** Arrasate, Aretxabaleta eta Eskoriatza. Neska gertu sukaldean lan egiteko, edozein ordutegitan. 648 19 10 38edo 610 97 82 88

**Debagoiena.** Mutil gaztea edozein lan egiteko gertu. 628 93 79 39

**Debagoiena.** Bigarren mailako ofiziala lanerako gertu. Esperientzia handia. 610 63 17 71

**Debagoiena.** Arrasate edo Bergara. Mutila gertu edozein lan egiteko. Nagusiak zaintzen esperientzia daukat. 685 70 76 25

**Debagoiena.** Emakumea gertu garbiketa lanak egiteko edo pertsona nagusiak zaintzeko. Etxean geratzeko prest. Deitu: 664 12 43 25

**Debagoiena.** Bigarren mailako ofizial, ostalaritza laguntzaile edo garbiketa lanak egingo nituzke. 649 62 88 22

**Debagoiena.** Bergara Arrasate. Neska euskalduna gertu garbiketa lanak egiteko eta umeak zaintzeko. 600 82 84 60

**Debagoiena.** Bergara edo Antzuola. Hemengo emakumea gertu umeak zaintzeko. 696 84 19 51

**Debagoiena.** Garbiketa edo bestelako lanak egingo nituzke. 650 55 14 28 edo 627 10 98 43

**Debagoiena.** Emakume arduratsua gertu nagusiak edo umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko. 686 53 34 01

**Debagoiena.** Emakumea gertu gauez nagusiak zaintzeko. Deitu: 646 77 85 31

**Debagoiena.** 40 urteko emakume ukrainar esperientziaduna lanerako gertu.Paperak ditut eta sukaldean ere jarduten dut. Etxean bertan bizi izango nintzateke. Larisa. Deitu: 680 77 34 77

**Debagoiena.** 50 urteko emakume esperientziaduna ume zein nagusiak zaindu edo garbiketa lanak egiteko gertu. Oti. 615 75 30 75

**Debagoiena.** Altzariak muntatzen, denetariko konponketak egiten edo bestelako edozein lanetan aritzeko prest. 695 78 91 04 edo 695 78 41 14

**Debagoiena.** Aretxabaleta edo Arrasaten lan egingo nuke garbitasun lanetan edo nagusiak zaintzen. Orduka edo etxean bertan bizi izaten. 626 78 22 95

**Debagoiena.** Emakumea gertu garbiketa edo sukalde lanetarako, zein nagusi eta umeak zaintzeko. 630 20 12 03 edo 637 21 87 20

**Debagoiena.** Emakumea gertu garbiketa lanak egin eta ume zein helduak zaintzeko. Deitu: 678 24 94 24

**Debagoiena.** Neska gaztea umeak zaintzeko gertu. Deitu ezazutelefono honetara:666 21 82 94

**Debagoiena.** Mutil gazte eta langilea gertu eraikuntza arloan lan egiteko. Esperientziaduna eta alikatatzaile aditua. Harremanetarako telefono zenbakia: 663 72 37 44

**Debagoiena.** Mutil gaztea lanerako gertu. Publizitate banaketan edo bestelako lanetan. 696 48 42 50

**Debagoiena.** Emakume gaztea garbiketa lanak orduka edo pertsona nagusiak gauez zaintzeko gertu. 609 23 39 52

**Debagoiena.** Emakumea gertu etxean bertan bizi izaten nagusiak zaintzeko. Legezko paperak dauzkat. 689 50 61 24

**Debagoiena.** Neska gertu garbiketa lanak egin edo nagusi zein umeak zaintzeko. Interesatuek deitu telefono zenbaki hauetara: 648 33 93 68 edo 943 79 76 39

**Debagoiena.** Emakume esperientziaduna gertu sukalde laguntzaile edo garbiketa lanak egiteko. Nacira Moreno. 680 58 57 06 edo 659 32 69 92

**Debagoiena.** Gizona gertu edozein lan egiteko. 645 72 92 87

**Debagoiena.** Zerbitzaria lanerako gertu. Zortzi urteko esperientzia dut. 657 02 15 96

**OÑATI**

**Funtzionamenduan dagoen**
**emakumezkoen ile apaindegia**
**ematen da errentan.**
**Deitu 21:00etatik 23:00etara.**

**654 81 22 78**

**Debagoiena.** Neska euskalduna gertu umeak zaintzeko edota garbiketa lanak egiteko. 600 82 84 60

**Debagoiena.** Neska gertu nagusiak zaintzeko. Esperientzia daukat nagusiak zaintzen, botikak banatu eta elikadura gertatzen, higienean eta mugitzen. Umeak zaindu edo garbiketa lanak ere egingo nituzke. 943 03 45 06 edo 688 65 41 26

**Debagoiena.** Neska gertu umeak zaintzeko edo ostalaritzan lan egiteko. 666 21 82 94

**Debagoiena.** Nagusiak zainduko nituzke, etxean bertan bizi izaten, astelehenetik ostiralera. 678 04 28 16 edo 638 04 17 02

**Debagoiena.** Emakumea gertu pertsona nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko. Interesatuek deitu: 696 57 03 89 edo 627 60 49 99

**Debagoiena.** Emakumea gertu pertsona nagusiak orduka eta gauez zaintzeko, garbiketa lanak egiteko eta haurrak zaintzeko. Harremanetarako: 638 54 75 93

**Debagoiena.** Emakumea gertu umeak zaintzeko. Mari. 649 30 13 60

**Debagoiena.** Emakumea lanerako gertu. Adinekoak zaintzen edo garbiketa lanetan jardungo nuke. Orduka, egun erdiz edo gauez. Harremanetarako deitu: 671 18 50 83

**Debagoiena.** Emakumea lanerako gertu. Adinekoak zaintzen edo garbiketa lanetan jarduteko prest. 680 67 74 96

**Debagoiena.** Emakumea lanerako gertu. Adinekoak zaintzen edo garbiketa lanetan jarduteko prest. 667 20 56 29

**Debagoiena.** Emakumea lanerako gertu. Adinekoak zaintzen edo garbiketa lanetan jarduteko prest. 649 70 51 74

**Debagoiena.** Emakumezko batek lan egingo luke nagusiak zaintzen. Erreferentziak ditut. Harremanetarako: 630 85 54 46

**Debagoiena.** Erizain ikasketak ditut eta nagusiak zainduko nituzke, etxean bertan bizi izaten. Erreferentzia eta lege dokumentuak ditut. Harremanetarako telefono zenbakia: 652 25 34 97

**Debagoiena.** Erizain laguntzailea prest pertsonak zaintzeko. Deitu: 630 03 95 59

**Debagoiena.** Erizaintzako laguntzaile ikasten ari den neska gertu pertsona nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko. 612 18 07 44

**Debagoiena.** Esperientzia duen mutila gertu etxeko lanak egiteko edo pertsona nagusiak zaintzeko. 650 17 74 87

**Debagoiena.** Esperientziadun emakumea nagusiak zaindu edo etxeko lanak egiteko gertu. Erreferentziak eta legezko paperak dauzkat. Etxean bertan bizi izaten ere lan egingo nuke. Deitu ezazutelefono honetara:686 52 15 98

**Debagoiena.** Metalurgian lan egingo nuke. Baita garbiketak egiten edo nagusiak zaintzen. Alberto. 620 12 78 46

**Debagoiena.** Mutila gertu zerbitzari lanetarako. Egunean bost orduz. Ordutegi malgua. Harremanetarako deitu telefono zenbaki hauetara: 943 71 21 15 edo 679 58 41 92

**Debagoiena.** Mutila gertu zerbitzari, sukalde laguntzaile edo nagusiak zaintzen lan egiteko. 672 25 92 20

**Debagoiena.** Mutila edozein lan egiteko gertu. Deitu ezazutelefono honetara:630 61 29 30

**Debagoiena.** Mutila edozein lanetan jarduteko gertu. Deitu: 696 48 42 50

**Debagoiena.** Mutila lanerako gertu. Deitu: 618 34 09 35

**Debagoiena.** Mutila lanerako gertu. Deitu: 685 70 76 25

**Debagoiena.** Mutila prest lanerako. Nekazaritzako lanak, pertsona nagusiak zaindu edo garbiketa lanak egiteko. Deitu: 650 96 23 08

**Debagoiena.** Nagusiak zainduko nituzke orduka zein etxean bertan bizi izanda. Deitu ezazu telefono honetara: 669 02 91 30

**Debagoiena.** Nagusiak zaintzen edo bestelako lanetan jardungo nuke. Deitu ezazu telefono honetara677 17 43 75

**Debagoiena.** Pertsona nagusiak zainduko nituzke. Esperientzia eta erreferentziak ditut. 627 21 08 93

**Debagoiena.** Pertsona nagusiak zainduko nituzke. Etxean lo egiteko prest nago. 638 23 37 39

